

Euskal Autonomia Erkidegoko
sektore publikoan
euskararen erabilera normalizatzeko

VI. PLANGINTZALDIAREN TARTEKO EBALUAZIOA

Siadeco^x
ikerketa aplikatua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan
aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

ISBN: 978-84-457-3618-0



Argitaraldia: 1.a, 2021eko azaroa / **Ale-kopurua:** 50 / © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila / **Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco / **Internet:** <https://www.euskadi.eus> / **Inprimaketa:** Eusko Jaurlaritzaren Inprinta eta Erreprografia Zerbitzua / **ISBN:** 978-84-457-3618-0 / **Lege Gordailua:** LG G 774-2021



Euskal Autonomia Erkidegoko
sektore publikoan
euskararen erabilera normalizatzeko

**VI. PLANGINTZALDIAREN
TARTEKO EBALUAZIOA**

2021



Siadeco^x
ikerketa aplikatua



Vitoria-Gasteiz, 2021

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Aurkibidea

Sarrera	4.
A. HERRI ERAKUNDEAK	6.
1. Metodologia	7.
1.1 Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa	7.
1.2. Fitxa teknikoa.....	14.
1.3. Inkestatutako langileen soslaia: generoa eta adina	16.
1.4. Jendaurreko lanpostuak.....	19.
2. Langileen euskara gaitasuna	21.
3. Zerbitzu hizkuntza.....	25.
3.1. Irudia	25.
3.2. Herritarrekiko ahozko harremanak.....	38.
4. Lan hizkuntza	54.
4.1. Barne komunikazioa	54.
4.2. Kanpo komunikazioa: Beste administrazioekin eta erakunde pribatuekin eta bestelakoekin ahoz ..	65.
4.3. Laburpena: Barne eta kanpo komunikazioetako ahozko harremanak	67.
5. Kudeaketa	69.
5.1. Idatzizko sortze hizkuntza	69.
5.2. Prestakuntza	72.
5.3. Bilakaerarekiko balorazioa	76.
6. Hizkuntza adierazleen taula	84.
6.1. Administrazio orokorra: adierazleak orotara eta erakunde esparru, lurralde historiko eta Erakundeari 86/1997 Dekretuak ezartzen dion derrigortasun indizearen arabera	84.
6.2. Administrazio orokorra: adierazleak orotara eta langilearen genero, adin-tarte eta euskara gaitasunaren arabera	88.
7. Bilakaeraren estimazioa	91.
7.1. Argibideak: VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioan neurtutako adierazleak eta V. Plangintzaldiaren amaierakoan neurtutakoen arteko aldea	91.
7.2. Udal eta mankomunitateak.....	94.
7.3. Foru aldundiak.....	96.
7.4. Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunak	98.
7.5. Guztira herri administrazio orokorra	100.
8. Ondorioak.....	102.
B. GAINERAKO SEKTORE PUBLIKOA	105.
1. Metodologia	106.
1.1 Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa	106.

1.2. Fitxa teknikoa.....	107.
1.3. Inkestatutako langileen soslaia: generoa eta adina.....	108.
1.4. Jendaurreko lanpostuak.....	110.
2. Langileen euskara gaitasuna	112.
3. Zerbitzu hizkuntza.....	115.
3.1. Irudia	115.
3.2. Herritarrekiko ahozko harremanak.....	121.
4. Lan hizkuntza.....	131.
4.1. Barne komunikazioa	131.
4.2. Kanpo komunikazioa: Beste administrazioekin eta erakunde pribatuekin eta bestelakoekin ahoz	138.
4.3. Laburpena: Barne eta kanpo komunikazioetako ahozko harremanak	140.
5. Kudeaketa.....	141.
5.1. Idatzizko sortze hizkuntza	141.
5.2. Prestakuntza	143.
5.3. Bilakaerarekiko balorazioa.....	145.
6. Hizkuntza adierazleen taula	153.
6.1. Gainerako sektore publikoa: adierazleak orotara eta langilearen genero, adin-tarte eta euskara gaitasunaren arabera	153.
7. Bilakaeraren estimazioa	157.
7.1. Argibideak: VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioan neurtutako adierazleak eta V. Plangintzaldiaren amaierakoan neurtutakoen arteko aldea	157.
7.2. Gainerako sektore publikoko erakundeak	160.
8. Ondorioak.....	162.
Eranskinak	164.
Ebaluazioan parte hartu duten erakundeak	165.
Galdesortak	172.

Sarrera

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bitartez arautu zen Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua. Dekretu horren arabera, EAEko administrazioetako hizkuntza normalizazio prozesua hezurmami zedin, entitate publiko bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar zuen.

Dekretu horren 6. artikuluan ezartzen da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plangintzaldi bakoitzaren tartean eta amaieran txosten bat igorri behar diola Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari, herri administrazioetan hizkuntza normalizazioa zertan den ebaluatu eta ezagutzera emateko. Une honetan, 2018-2022 aldiari dagokion plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa landu du, hain zuzen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Lan horren emaitzetako bat da eskuartean duzun txosten hau, EAEko Administrazioiko datu orokorrak aztertzen dituen txostena. Horretaz gain, beste hainbat txosten eta euskarri ere eskaini dira ikerketa honetan: horien artean azpimarratzekoak, Eusko Jaurlaritzako sailkako txostenak, non sail eta erakunde autonomiadun bakoitzean bildutako datuen irakurketa orokorra eta hizkuntza adierazleak jasotzen diren; eta plangintzaldi honen amaierako ebaluaziorako adierazleak kalkulatzeko lagunduko duen aplikazio informatikoa.

VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioan, V. Plangintzaldiaren amaierakoan erabilitako metodologia bera erabili da. Bi informazio iturri izan dira: erakundeetako solaskideak eta langileak.

Ebaluatutako edukiari dagokionez, bi ardatzetan egituratu da azterketa: zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza. Lehenengoan, erakundeen zerbitzuak jasotzen dituztenen aldetik aztertu da hizkuntza egoera: iruditeria eta herritarrekiko harremanak aztertu dira, beti erakundeak zerbitzua euskaraz eskaintzen duen ala ez bereziki kontuan hartuta. Bigarren ardatzean, berriz, erakundearen lan jardunari erreparatu zaio: barneko erabilerari, beste erakundeekiko eta enpresekiko harremanari, eta langileen prestakuntzari. Langileek idatziak sortzeko erabilitako hizkuntza ere aztertu da, eta kudeaketaren gaineko atala ere bai, euskara planen eboluzioari buruzko balorazio eta iritziak hain zuzen.

EAEko amaraun publikoa osorik aztertuta, datuak aurkezteko, bitan bereizi da txostena. Batetik, herri administrazioen azterketa egin da; bestetik, gainerako sektore publikoarena, hau da, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoena. Ikerketa eredu berbera izan dute biek, eta hizkuntza aldagaiak ere bai, oro har. Baina aztergai hartu diren unibertsoak eta laginak bereizi egin dira.

Egiteko nagusiak honakoak izan dira:

- Dekretuaren eraginpeko erakundeen unibertsoa zehaztu eta HPSrekin kontrastatu.
- Datu bilketa egiteko erakunde eta informazio-iturrien lagina diseinatu, estatistikoki adierazgarria izan dadin.
- 86/1997 Dekretuaren eraginpeko erakunde publikoetako VI. Plangintzaldiko Tarteko Ebaluazio inkesta egiteko galdetegia diseinatu. Horretarako, Bikain ebaluazioko Erreferentzia Marko Estandarra (EME) izan da abiapuntua, baina marko horretan agertzen diren adierazleetako batzuk soilik hartu dira kontuan galdetegia osatzeko.

Tarteko Ebaluazioa izanik, arlo diferenteetan ahozko eta idatzizko erabilera eta eskaintza errealari buruzko informazioan zentratu da galdetegia, herri-administrazio bakoitzean ezarritako erabilera planean helburuak zein neurritan bete diren ezagutu eta baloratzera zuzendutako galderak baztertuta. Galdera kuantitatiboez gain, bilakaera baloratzeko modu kualitatiboan galdetu duen itema ere txertatu da.

Beraz, jasotako informazioa ez da zuzenean V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan jasotakoarekin erabat alderagarria; batetik, galdetegiak laburtzea eta hizkuntza adierazle gutxiagoz galdetzea erabaki delako eta, bestetik, hainbat galderaren formulazioa eta adierazle batzuen definizioa moldatu direlako Erreferentzia Marko Estandarrera hobeto egokitzeke.

- Landa-lana aurrera eramateko metodologia zehaztu da, erakunde tipologiaren eta bildu beharreko informazio kopuruaren arabera.
- Landa-lana garatu.
- Datuak aztertu eta txostenak landu. Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunentzat hizkuntza adierazleak eta banakako txostenak landu dira. Jaurlaritzaz gain, EAEko beste herri erakunde guztietan jasotako datuen irakurketa orokor bat egin da, ondoren, amaieran erakunde motaren arabera hizkuntza adierazleak kalkulatzera iristeko.



A. HERRI ERAKUNDEAK

1. Metodologia

1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa

Aztergai hartu da EAEko administrazio publikoa: udalak, mankomunitateak, partzuergoak eta kuadrillak, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta haren menpeko erakunde autonomiadunak, eta erakunde publiko independenteak (Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak...). Unibertsoa 331 erakundek osatzen dute, eta haietan 35 mila langile baino gehiago ari dira beharrean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako informazioaren arabera. Unibertso hori aztertzeko, 3.510 inkestako lagina osatu da, kontuan izanik datuek adierazgarriak izan behar dutela erakunde esparruka, lurraldeka eta Erakundeari 86/1997 Dekretuak ezartzen dion derrigortasun indizearen arabera. Langileei bakarrik ez, aztertutako erakundeetako euskara arduradunei ere egin zaizkie galderak. Hartara, bi bidetatik jaso da informazioa.

Jarraian, zehatzago azalduko da azterketa aurrera eramateko burututako prozesua.

Esan bezala, EAEko herri administrazioak osatu du euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa egiteko ikerlanaren unibertsoa, baina ebaluazioa ez da unibertsoko unitate guztietara zabaldu, eta geroxeago zehatzago azalduko denez, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udaletan eta mankomunitate, partzuergo eta kuadrilletan lagin bat izan da aztertutakoa.

Bestalde, ahalik eta informazio osatu eta zabalena izan asmoz, bi datu-iturri erabili dira:

- Erakundeetako ordezkari edo "solaskidearena": euskara teknikariak, idazkariak...
- Herri administrazioiko langileak

Bietan jasotako informazioa aztertu eta landu da eta bietatik jasotako emaitzak dira txosten honetan aurkeztutakoak.

Ebaluazioa horrela planteatuta, landutako informazioaren kalitatea bermatu eta datuak aztertzeko aukera berriak zabaldu dira: erakunde motaren, lurralde historikoaren eta udalen kasuan 86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizearen arabera aztertzeaz gain, langileen informazio zuzena izateak, datuak bere euskara ezagutzaren, sexuaren edota adin tartearen arabera aztertzeko aukera eman baitu.

Hauxe, HPStik igorritako lanpostu zerrendaren arabera, azterlanaren unibertsoa osatzen duten erakunde eta langile kopuruak:

1. taula: Herri erakundeetan VI. Plangintzaldiko Tarteko Ebaluazioa egiteko, unibertsoa osatzen duen erakunde eta langileen kopuruak, erakunde mota, lurraldea eta udalerrien tamainari jarraiki (5 mila biztanlelik gorakoak eta beherakoak)

Erakunde mota	Lurraldea	UNIBERTSOA		
		Erakundeak /Sailak	Langileak ¹	
Udalak eta mankomunitateak	Araba	Gasteiz	1	2.998
		>5000 biztanle	3	286
		<5000 biztanle	47	286
		Udalak guztira	51	3.570
		Mankomunitateak	11	88
		GUZTIRA	62	3.658
	Bizkaia	Bilbo	1	2.453
		>5000 biztanle	32	5.441
		<5000 biztanle	79	717
		Udalak guztira	112	8.611
		Mankomunitateak	15	625
	GUZTIRA	127	9.236	
	Gipuzkoa	Donostia	1	1.664
		>5000 biztanle	33	3.974
		<5000 biztanle	54	479
		Udalak guztira	88	6.117
		Mankomunitateak	18	206
		GUZTIRA	106	6.323
	Udalak eta mankom. guztira	Hiriburuak	3	7.115
		>5000 biztanle	68	9.701
<5000 biztanle		180	1.482	
Udalak guztira		251	18.298	
Mankom. guztira		44	919	
GUZTIRA	295	19.217		
Foru Aldundiak	Arabako Foru Aldundia	1	2.151	
	Bizkaiko Foru Aldundia	1	4.019	
	Gipuzkoako Foru Aldundia	1	2.096	
	GUZTIRA	3	8.266	
Lurralde mailakoak guztira	Araba	63	5.809	
	Bizkaia	128	13.255	
	Gipuzkoa	107	8.419	
	GUZTIRA	298	27.483	

Iturria: HPS, 2020

¹ Lanpostu zerrendan "okupatuta dauden lanpostuetako langileak.

2. taula: Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomiadunak eta langile kopurua

Erakunde mota	ERAKUNDEA	Langileak
Sailak (12 sail)	EUSKO JAURLARITZA - LEHENDAKARITZA	91
	EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	449
	EUSKO JAURLARITZA - EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	419
	EUSKO JAURLARITZA - ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKAK	134
	EUSKO JAURLARITZA - INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	353
	EUSKO JAURLARITZA - OGASUNA ETA EKONOMIA	221
	EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA	1.905
	EUSKO JAURLARITZA - OSASUNA	828
	EUSKO JAURLARITZA - TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	72
	EUSKO JAURLARITZA - KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	153
	EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUNA	655
	EUSKO JAURLARITZA - LANA ETA JUSTIZIA	465
Erakunde autonomiadunak(13)	EUSKO JAURLARITZA - IVAP	123
	EUSKO JAURLARITZA - HABE	67
	EUSKO JAURLARITZA - POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKAD.	108
	EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA	188
	EUSKO JAURLARITZA - EMAKUNDE	34
	OSALAN - LANEKO SEG.OSASUNERAK.EUS.ERAK.	168
	EUSKO JAURLARITZA - COJUAE	6
	EUSKO JAURLARITZA - EAE KONTRATUEN INGURUKO ERREKUR ADM.ORG	4
	EUSKO JAURLARITZA - KONTSUMOBIDE	60
	EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE	886
	EUSKO JAURLARITZA - LEHIAREN EUSKAL AGINTZARITZA	9
	EUSKO JAURLARITZA - GOGORA	8
	EUSKO JAURLARITZA-EAEko DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA	4
GUZTIRA		7.410

Iturria: HPS, 2020

3. taula: Erakunde publiko independenteak edota beste instituzio eta erakunde publikoak²³

	Erakundea	Langileak
Erakunde publiko independenteak (8)	Eusko Legebiltzarra	149
	Herri Kontuen Euskal Epaitegia	78
	Lan Harremanen Kontseilua (LHK)	15
	Arabako Biltzar Nagusiak	12
	Bizkaiko Batzar Nagusiak	16
	Gipuzkoako Batzar Nagusiak	12
	Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB)	20
	Arartekoa	30
	GUZTIRA	332

Iturria: HPS, 2020

Guztira, beraz, 331 erakunde eta 35 mila langile baino gehiagoko lan unibertsoaz ari gara; bi “azpiunibertsoz” osatutakoa: erakundeena batetik, eta langileena bestetik.

a. Herri administrazioko erakundeen unibertsoari dagokion irismen maila definitzerakoan, errolda bidezko irismen maila eta lagin bidezkoaren artean bereizi da, jarraian adierazi bezala:

- Errolda bidezkoa: Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakunde autonomiadunetara, erakunde publiko independenteetara, Foru Aldundietara eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udal guztietara zabaldu da ebaluazioa egiteko landa-lana.
- Lagin bidezkoa: 5.000 biztanletik azpiko udalerrietako udalen, kuadrilla/mankomunitate eta partzuergoen kasuan, estatistikoki adierazgarria den lagin bat aukeratu da informazio bilketarako landa lana egiteko.

Honela, 189 izan dira erakundeko ordezkariari zuzendutako galde-sorta erantzun dutenak.

² Erakunde publiko independenteen kasuan, hasierako unibertsoa 11 erakundek osatu zuten, baina tarteko ebaluazio honetatik, 3 erakunde kanpo geratu dira:

- Gazteriaren Kontseilua: ez delako “erakunde publiko independentea”, solaskideak adierazitakoaren arabera.
- Euskal Herriko Unibertsitatea: hizkuntza erabileraren diagnostikoa egin berria izanik, berriro beraiengana ez jotzea adostu zen.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa: baztertu egin zuten parte hartzeko aukera.
- Bestalde, Arartekoaren langile kopurua estimatu egin da.

³ VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioan “erakunde publiko independenteak” kategorian osatu duten erakundeak eta V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan “bestelakoak” osatu zutenak ez dira berberak.

- b. Herri administrazioiko erakundeetako langileen unibertsoa: ebaluazioa egin den erakundeetako langileek osatutakoa izan da kasu honetan unibertsoa. Informazio unitate gisa ebaluazioan parte hartu dutenak langileak izan dira eta langile bakoitzaren hizkuntza egoera eta jarduerari lotuak dauden hizkuntza adierazleei buruzko datuak jaso dira. Laginketa ausazkoa izan da, eta lortu nahi genuen adierazgarritasun mailak mugatu du erakunde mota bakoitzean egin beharreko inkesta kopurua.

4. taula: Inkestatutako langileak eta erakundeak eta unibertsoarekiko alderaketa

Erakunde mota	Lurraldea		Herri administrazioiko langileak: unibertsoa eta inkestatutakoak			Herri administrazioiko erakundeak: unibertsoa eta inkestatutakoak			
			Azterketarako unibertsoan %	Inkestatutako langileak Kop	Haztatutako %	Azterketako unibertsoan Kop	Inkestatutako erakundeak %	Kop	
Udalak eta mankom.	Araba	Gasteiz	8,5	116	3,3	8,5	1	1	0,5
		>5.000 biztanle	0,8	45	1,3	0,8	3	2	1,1
		<5.000 biztanle	0,8	30	0,9	0,8	47	18	9,5
		Udalak guztira	10,1	191	5,4	10,1	51	21	11,1
		Mankomunitateak partzuergoak eta kuadrillak	0,2	29	0,8	0,3	11	5	2,6
		GUZTIRA	10,4	220	6,3	10,4	62	26	13,8
	Bizkaia	Bilbo	7,0	98	2,8	7,0	1	1	0,5
		>5.000 biztanle	15,4	122	3,5	15,5	32	29	15,3
		<5.000 biztanle	2,0	60	1,7	2,0	79	29	15,3
		Udalak guztira	24,4	280	8,0	24,4	112	59	31,2
		Mankomunitateak, partzuergoak eta kuadrillak	1,8	50	1,4	1,8	15	6	3,2
		GUZTIRA	26,2	330	9,4	26,2	127	65	34,4
	Gipuzkoa	Donostia	4,7	100	2,8	4,7	1	1	0,5
		>5000 biztanle	11,3	130	3,7	11,3	33	31	16,4
		<5000 biztanle	1,4	80	2,3	1,4	54	23	12,2
		Udalak guztira	17,4	310	8,8	17,4	88	55	29,1
		Mankomunitateak, partzuergoak eta kuadrillak	0,6	40	1,1	0,6	18	7	3,7
		GUZTIRA	18,0	350	10,0	18,0	106	62	32,8
	Udalak eta mankom guztira	Hiriburuak	20,2	314	8,9	20,2	3	3	1,6
		>5000 biztanle	27,5	297	8,5	27,5	68	62	32,8
<5000 biztanle		4,2	170	4,8	4,2	180	70	37,0	
Udalak guztira		51,9	781	22,3	51,9	251	135	71,4	
Mankomunitateak, partzuergoak eta kuadrillak		2,6	119	3,4	2,6	44	18	9,5	
GUZTIRA		54,6	900	25,6	54,6	295	153	81,0	
	Arabako Foru Aldundia	6,1	100	2,8	6,1	1	1	0,5	

Foru Aldundiak	Bizkaiko Foru Aldundia	11,4	150	4,3	11,4	1	1	0,5
	Gipuzkoako Foru Aldundia	6,0	130	3,7	6,0	1	1	0,5
	GUZTIRA	23,5	380	10,8	23,5	3	3	1,6
Lurralde mailakoak guztira	Araba	16,5	320	9,1	16,5	63	27	14,3
	Bizkaia	37,6	480	13,7	37,6	128	66	34,9
	Gipuzkoa	23,9	480	13,7	23,9	107	63	33,3
	GUZTIRA	78,0	1280	36,5	78,0	298	156	82,5

5. taula: Inkestatutako langileak eta erakundeak eta unibertsorekiko alderaketa (Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde autonomiadunak)

Erakunde mota	ERAKUNDEA	Herri administrazioari langileak: unibertsorekiko eta inkestatutakoak				Herri administrazioari erakundeak: unibertsorekiko eta inkestatutakoak			
		Azterke-tarako unibertsorean %	Inkestatutako langileak		Haztatutako %	Azterke-tarako unibertsorean Kop	Inkestatutako erakundeak		
			Kop	%			%	Kop	%
Sailak (12 sail)	LEHENDAKARITZA	0,3	65	1,9	0,3	1	1	0,5	
	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	1,3	170	4,8	1,3	1	1	0,5	
	EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	1,2	153	4,4	1,2	1	1	0,5	
	ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKAK	0,4	90	2,6	0,4	1	1	0,5	
	INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	1,0	125	3,6	1,0	1	1	0,5	
	OGASUNA ETA EKONOMIA	0,6	116	3,3	0,6	1	1	0,5	
	HEZKUNTZA	5,4	181	5,2	5,4	1	1	0,5	
	OSASUNA	2,4	148	4,2	2,4	1	1	0,5	
	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	0,2	52	1,5	0,2	1	1	0,5	
	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	0,4	98	2,8	0,4	1	1	0,5	
	SEGURTASUNA	1,9	136	3,9	1,9	1	1	0,5	
	LANA ETA JUSTIZIA	1,3	125	3,6	1,3	1	1	0,5	
Erakunde autonomiadunak (13)	IVAP	0,3	90	2,6	0,3	1	1	0,5	
	HABE	0,2	48	1,4	0,2	1	1	0,5	
	POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKAD.	0,3	68	1,9	0,3	1	1	0,5	
	EUSTAT - EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA	0,5	91	2,6	0,5	1	1	0,5	
	EMAKUNDE	0,1	30	0,9	0,1	1	1	0,5	
	OSALAN - LANEKO SEG.OSASUNERAK.EUS.ERAK.	0,5	99	2,8	0,5	1	1	0,5	
	COJUAE - EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURID.	0,0	6	0,2	0,0	1	1	0,5	
	EAE KONTRATUEN INGURUKO ERREKUR ADM.ORG	0,0	2	0,1	0,0	1	1	0,5	
KONTSUMOBIDE	0,2	46	1,3	0,2	1	1	0,5		

LANBIDE	2,5	146	4,2	2,5	1	1	0,5
LEHIAREN EUSKAL AGINTZARITZA	0,0	7	0,2	0,0	1	1	0,5
GOGORA	0,0	4	0,1	0,0	1	1	0,5
EUSKO JAURLARITZA-EAeko DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA	0,0	4	0,1	0,0	1	1	0,5
GUZTIRA Sail eta erakunde autonomiadunak	21,0	2100	59,8	21,0	25	25	13,2

6. taula: Inkestatutako langileak eta erakundeak eta unibertsoarekiko alderaketa (Erakunde publiko independenteak eta Guztirakoa)

Erak_mota	ERAKUNDEA	Herri administrazioako langileak: unibertsoa eta inkestatutakoak				Herri administrazioako erakundeak: unibertsoa eta inkestatutakoak		
		Azterketarako unibertsoan	Inkestatutako langileak		Haztatutako %	Azterketako unibertsoan	Inkestatutako erakundeak	
		%	Kop	%	%	Kop	Kop	%
Erakunde publiko independenteak (8)	Eusko Legebiltzarra	0,4	29	0,8	0,4	1	1	0,5
	Herri Kontuen Euskal Epaitegia	0,2	29	0,8	0,2	1	1	0,5
	Lan Harremanen Kontseilua (LHK)	0,0	14	0,4	0,0	1	1	0,5
	Arabako Biltzar Nagusiak	0,0	5	0,1	0,0	1	1	0,5
	Bizkaiko Batzar Nagusiak	0,0	9	0,3	0,1	1	1	0,5
	Gipuzkoako Batzar Nagusiak	0,0	11	0,3	0,0	1	1	0,5
	Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB)	0,1	6	0,2	0,1	1	1	0,5
	Arartekoa	0,1	27	0,8	0,1	1	1	0,5
	GUZTIRA Erakunde pub. Indep.	0,9	130	3,7	0,9	8	8	4,2
Guztira		100,0	3.510	100,0	100,0	331	189	100,0

Iturria: HPS, Siadecok landua 2020

1.2. Fitxa teknikoa

Azaldu berri duguna kontuan hartuz, jarraian egindako landa-lanaren fitxa teknikoa:

a. Unibertsoa

- Herri administrazioko erakundeak (331, Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomiadun bakoitza erakunde modura kontsideratuz),
- Herri erakunde horietako langileak (35.225, Hizkuntza Politika Sailburuordetzatik emandako informazioaren arabera).

b. Teknika

- Galde-sorta egituratua erabili da, bai erakundeetako ordezkarietara, erakundearen beraren informazioa eskatzeko, baita langileak inkestatzeko ere.
- On-line betetzeko inkesta bidali zaie, bai erakundeetako ordezkarietara, baita langileetara ere; baina on-line betetzeko zailtasunak izan direnean, telefono bidez erantzun dira edo paperean inprimatuta.

c. Inkesta

- Siadecok ikerlan honetarako berriaz diseinaturiko bi galde-sorta egituratu erabili dira: lehena, erakundeetako ordezkariak edo "solaskideak" betetzeko, eta bigarrena, langileak betetzeko. HPSko teknikariek adostu dira galdetegiaren galderak eta erantzun modalitateak.

d. Laginketa mota

- Aurreko atalean esan bezala, 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udaletan, foru aldundietan eta EAE mailako administrazio publiko guztietan egin da inkesta; eta aldiz, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udalen eta mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoen lagin batean.
- Lagina diseinatzeko, lurralde historikoaz gain, habitata (2.000 biztanletik azpiko udalerria ote zen ala 2.000-5.000 artekoa) eta Erakundeari 86/1997 Dekretuak ezartzen dion derrigortasun indizea hartu dira kontuan.
- Esleipen interesatua (ez proportzionala) izan duen laginketa geruzatua egin denez, azterketa orokorra egiteko datuak haztatu egin dira.

e. Laginaren tamaina eta errore-marjina estatistikoa

- Guztira 189 erakundetan 3.510 inkesta egin dira.
- Errore-marjina estatistiko orokorra, langileen inkestarako % $\pm 1,57$ da, % 95eko konfiantza tarterako ($p=q=0.5$ izanik ausazko laginketa sinplerako). Erakundeen kasuan, errore marjina orokorra % $\pm 4,68$ da.
- Honakoa errore-marjina estatistikoa erakunde motaren arabera, eta udalen kasuan, lurraldearen arabera:

7. taula: Bi landa-lanen errore marjina estatistikoa (2020)

	Langileen azterketa	Erakundeen azterketa
Arabako udal eta mankomunitateak, partzuergo eta kuadrillak	6,41	14,76
Bizkaiko udal eta mankomunitateak, partzuergo eta kuadrillak	5,30	8,53
Gipuzkoako udal eta mankomunitateak, partzuergo eta kuadrillak	5,09	8,06
Udalak eta mankom, partzuergo eta kuadrillak guztira	3,19	5,51
Foru Aldundiak	4,91	0
Eusko Jaurlaritzak	1,81	0
Beste herri administrazio batzuk	6,71	0
Guztira, datu orokorrak	1,57	4,68

Iturria: Siadeco, 2021.

f. Egin den garaia

- Landa-lana fase desberdinetan egin da:
 - Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunak: 2020ko uztailaren 8aren eta urriaren lehenaren artean.
 - Bizkaiko Foru Aldundia: 2020ko irailaren 15aren eta abenduaren 5aren artean.
 - Administrazio orokorreko gainerako erakundeetako langile eta solaskideak: 2020ko urriaren 30aren eta 2021eko otsailaren 15aren artean.

g. Prozedura metodologikoaren urratsak

- Metodologia dosierraren diseinu eta baliozkotzea: laginketa diseinua, bi galdekizunak, landa laneko arduradunen trebakuntza.
- Laginean titular eta ordezeko gisa sartu ziren langileekin harremanetan jarri ahal izateko informazioa. Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunen langileen kasuan, langile zerrendarekin batera, beraiekin harremanetan jartzeko posta elektronikoak eta telefonoak ageri ziren. Gainerako erakunde guztien kasuan (udalak, foru aldundiak, mankomunitate/kuadrillak,...), langile horiek lan egiten duten erakundeko solaskideari jakinarazi, hark langilearen posta elektronikoa eta telefonoa bidal zezan.
- Behin posta elektronikoa eskuratuta, galde-sorta langileari zuzenean bidaltzea. Posta elektronikoa eskuratzetik izan ez den kasuetan, telefono bidez inkesta egitea, edo pdf formatuan bidaltzea, paperean bete zezaten.
- Landa lanaren garapen, jarraipen eta kontrol zehatza.
- Telefono bidez eta paperean eskuratutako galde-sorten grabazioa oinarri informatikodun euskarrian (ACCESS), eta horien nahiz on line bidez jasotako galdekizunen datuen konsistentzia bermatzeko, aldagai barneko eta aldagaien arteko kontrol arauen ezarpena.
- Grabatutako informazioaren azterketa: arazketa, birkodifikazioak eta ustiaketa estatistikoa (SPSS).

- Datuen haztapena: langileen kasuan, lehen esan bezala, erakunde motaren eta lurralde historikoaren arabera haztatu dira datuak, horien arabera langileek duten pisu errealerara egokitzeko. Erakundeko solaskideari egindako galdetegiaren emaitzak aldiz, — erakundearen irudiari eta laneko prestakuntzari buruzkoak— ez dira haztatu.
- Informazioaren ustiaketa, azterketa eta interpretazioa.

1.3. Inkestatutako langileen soslai: generoa eta adina

Erakunde mota guztietan, emakumeak dira hamar beharginetik sei, eta batez beste ia 51 urte dauzkate (50,5 urte emakumezkoek eta 51,7 gizonezkoek).

45 urtez azpiko langileak lautik bat besterik ez dira; % 36,6 dira 46-55 urte artekoak, eta zertxobait gutxiago (% 34,9) 55 urtetik gorakoak.

Alde txikiak badiren arren, erakunde mota guztietan 10etik 6 pasatxo emakumezkoak dira —pisurik gehien erakunde publiko independenteetan dute, % 66,2—; eta batez besteko adinari dagokionez, gazteenak foru aldundietako langileak dira (batez beste 49,20 urte); eta zaharrenak, erakunde publiko independenteetakoak (batez beste 52,05 urte).

8. taula: Inkestatutako langileak generoaren eta adin tartearen arabera (haztatu gabe)

		Generoa				Guztira
		Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	Zehaztu gabe	
<=35 urte	Kop	116	58	3	0	177
	%	5,3%	4,8%	11,5%	0,0%	5,0%
36-45 urte	Kop	461	224	5	13	703
	%	21,0%	18,6%	19,2%	15,7%	20,0%
46-55 urte	Kop	844	410	13	18	1285
	%	38,4%	34,1%	50,0%	21,7%	36,6%
>55 urte	Kop	713	492	3	18	1.226
	%	32,4%	40,9%	11,5%	21,7%	34,9%
Zehaztu gabe	Kop	65	18	2	34	119
	%	3,0%	1,5%	7,7%	41,0%	3,4%
Guztira	Kop	2.199	1.202	26	83	3.510
% (horizontala)	%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
Batez besteko adina		50,5	51,7	46,9	51,6	50,9


Iturria: Siadeco, 2020

9. taula: Inkestatutako langileak generoaren eta adin tartearen arabera (% guztiekiko) (haztatu gabe)

	Generoa				Guztira	Batez besteko adina
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	Zehaztu gabe		
Udalak+mankomunitateak	62,9%	36,3%	0,6%	0,2%	100,0%	50,13
Foru Aldundiak	63,9%	35,3%	0,3%	0,5%	100,0%	49,20
Jaurlaritza+erak. autonomiadunak	62,1%	33,3%	1,0%	3,6%	100,0%	51,49
Erakunde publiko independenteak	66,2%	31,5%	0,0%	2,3%	100,0%	52,05
Guztira	62,6%	34,2%	0,7%	2,4%	100,0%	50,91


Iturria: Siadeco, 2020

1. grafikoa: Langileak sexuaren arabera (inkestatuak, haztatu gabe) (%)



Iturria: Siadeco, 2020

2. grafikoa: Langileak adin taldeka (inkestatuak, haztatu gabe) (%)



Iturria: Siadeco, 2020

10. taula: Azterketan parte hartutako laginaren generoa eta adin tartea, erakunde motaren arabera (%) (haztatu gabe)

	GENEROA				ADIN TARTEA					Batez besteko adina	N
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	Zehaztu gabe	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Zehaztu gabe		
< 5 mila biztanleko udalak	62,9	35,9	0,6	0,6	5,3	21,8	44,1	26,5	2,4	49,7	170
>5 mila biztanleko udalak	62,3	37,7	0,0	0,0	5,7	25,6	32,3	30,6	5,7	49,7	297
Hiriburuak	65,3	33,4	1,3	0,0	3,8	23,6	40,4	29,6	2,5	50,4	314
Foru Aldundiak	63,9	35,3	0,3	0,5	7,1	22,9	37,9	28,7	3,4	49,2	380
Mankom., kuadrilla.	58,0	41,2	0,0	0,8	5,9	12,6	51,3	28,6	1,7	50,9	119
Erakunde publi indep	66,2	31,5	0,0	2,3	6,2	13,1	36,9	40,0	3,8	52,0	130
Eusko Jaurjaritza	62,0	34,3	0,8	2,9	5,2	18,3	33,1	41,1	2,3	51,7	1.459
Erak.autonomiadunak	62,2	31,0	1,4	5,3	3,3	20,3	39,2	31,5	5,8	51,0	641
Guztira	62,6	34,2	0,7	2,4	5,0	20,0	36,6	34,9	3,4	50,9	3.510
N	2.199	1.202	26	83	177	703	1.285	1.226	119		

11. taula: Azterketan parte hartutako laginaren generoa eta adin tartea, lurralde historikoaren arabera (%) (Lurralde izaerako erakundeetan soilik: udalak, hiriburuak, FA eta mankom/kuadrillak) (haztatu gabe)

	GENEROA				ADIN TARTEA					Batez besteko adina	N
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	Zehaztu gabe	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Zehaztu gabe		
Araba	68,4	31,3	0,3	0,0	8,1	21,3	43,8	24,4	2,5	49,1	320
Gipuzkoa	61,3	37,1	0,8	0,8	5,0	24,8	37,1	30,8	2,3	49,9	480
Bizkaia	61,7	38,1	0,2	0,0	4,6	21,3	38,5	30,4	5,2	50,3	480
Guztira	63,2	36,0	0,5	0,3	5,6	22,6	39,3	29,1	3,4	49,9	1.280
N	809	461	6	4	72	289	503	372	44		

V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan parte hartu zuten langileen genero/adin-tartea eta orain parte hartutakoena alderatuz, aipatu daiteke 55 urtetik gorakoen multzoa % 25 izatetik % 34,9 izatera pasa dela; eta behera egin dutela bai 36-45 urte bitartekoek eta baita 46-55 artekoek ere. Honela, batez besteko adinak gora egin du 1,3 urte. Aldiz, 35 urtetik beherakoek portzentajea berdin mantendu da.

12. taula: Azterketan parte hartutako langileen generoan eta adinean izandako bilakaera. V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa eta VI. Plangintzaldiaren tartekoa

		V. Plang. Amaierako Ebaluazioa %	VI. Plang. Tarteko Ebaluazioa %
ADIN TARTEA	<=35 urte	5,0	5,0
	36-45 urte	24,1	20,0
	46-55 urte	42,9	36,6
	>55 urte	25,2	34,9
	Zehaztu gabe	2,8	3,4
	Guzfira	100,0	100,0
Batez besteko adina		49,6	50,9
GENEROA	Emakumezkoa	62,1	62,6
	Gizonezkoa	37,8	34,2
	Ez bitarra		0,7
	Zehaztu gabe	0,1	2,4
	Guzfira	100,0	100,0

Oharra: Datuak ponderatu gabe

1.4. Jendaurreko lanpostuak

Azterketan parte hartutako 3 langiletik batek, jendaurrekotzat jotzen du bere lanpostua, bere zeregin nagusia, ahoz zein idatziz herritarrekiko harremanetan oinarritzen dela adierazi baitu.

Udaletan, jendaurreko lanpostuan ari direnak nabarmen gehiago dira (% 57,6 eta % 61,8 udalaren tamainaren arabera), eta gutxiago aldiz Eusko Jaurlaritzako sailetan (% 25,0) eta erakunde publiko independenteetan (% 22,3).

Gune euskaldunenetan, hiru langiletik ia bik diote jendaurreko lanpostu batean ari direla lanean (% 64,9), eta adinaren arabera, hain nabarmena ez bada ere, gora egiten du portzentajeak adinean behera egin ahala.

13. taula: Zeregin nagusia herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremanetan oinarritzen diren lanpostuak (%) (haztatu gabe)

		JENDAURREKO LANPOSTUA Bai
ERAKUNDE ESPARRUA	< 5 mila biztanleko udalak	61,8
	>5 mila biztanleko udalak	57,6
	Hiriburuak	37,6
	Mankomunitateak, kuadrillak	42,9
	Udalak+mankomunitateak	49,4
	Foru Aldundiak	31,3
	EJ+erakunde autonomiadunak	26,8


	Erakunde publiko independenteak	22,3
	Guztira	32,9
HERRIALDEA (ALDUNDIAK, UDALAK, MANKOMUNITATEAK)	Araba	44,4
	Gipuzkoa	44,8
	Bizkaia	43,1
	Guztira	44,1
86/1997 DEKRETUAK EZARTZEN DUEN DERRIGORTASUN INDIZEA (ALDUNDIAK, UDALAK, MANKOMUNITATEAK)	<%45	45,9
	%45-70	34,9
	>%70	64,9
	Guztira	44,1
GENEROA	Emakumezkoa	34,1
	Gizonezkoa	31,9
	Ez bitarra	34,6
	Guztira	32,9
ADIN TARTEA	<=35 urte	40,1
	36-45 urte	37,0
	46-55 urte	34,0
	>55 urte	29,8
	Guztira	32,9

Iturria: Siadeco, 2020

2. Langileen euskara gaitasuna

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, langileei galdetu zaie nola moldatzen diren euskaraz ulertzeko, irakurtzeko, hitz egiteko eta idazteko. Datu aitortua jaso da, beraz, langileen autopertzepzioa. Maila handiena ulermenean eta irakurmenean dago: hamarretik zortzik diote maila *ona* edo *nahiko ona* dutela. Hizketan eta idazten, hamarretik zazpik adierazi dute hori.

3. grafikoa: Herri erakundeetako langileen hizkuntza gaitasun aitortua, trebetasunen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Erakunde esparrua, herrialdea eta erakundeari dagokion derrigortasun indizea aintzat hartuta aztertu dira datuak, eta hona ekarri dira hitz egiteko eta idazteko gaitasunari buruzkoak.

Erakundeen arteko alderaketan aldeak ageri dira. Hiriburuak ez diren udal eta mankomunitateetako langileek dute euskara gaitasunik handiena: bostetik lauk *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dute, eta batez bestekoaren gainera daude *ongi* edo *nahiko ongi* idazten dutenak. Foru aldundi eta erakunde publiko independenteetako langileak datoz ondoren, eta azkenik Eusko Jaurlaritza eta haren erakunde autonomiadunetako eta hiriburuetako langileak.

Erakundeari dagokion derrigortasun indizearen eta herrialdearen arabera datuetan aldeak nabarmenak dira; % 70etik gorako derrigortasun indizea duten erakundeetako eta Gipuzkoan kokatutako erakundeetako ia langile guztiak dira euskaraz hitz egiteko eta idazteko gai. Arabakoetan erdiak baino zertxobait gehiago, eta bien artean Bizkaiko erakundeetako langileak.

14. taula: Langileen euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna, lan egiten duten erakunde esparru, herrialde eta Erakundeari 86/1997 Dekretuak ezartzen dion derrigortasun indizearen arabera (aldundi, udal eta mankomunitateetan) (%)

	Hitz egin							Idatzi						
	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira
Erakunde esparrua														
Udalak + mankomunitateak	53,8	19,8	15,4	5,5	3,7	1,9	100,0	48,9	23,4	14,9	5,0	5,5	2,4	100,0
< 5 mila biztanleko udalak	65,7	12,5	11,4	4,8	4,3	1,3	100,0	55,9	18,4	14,6	2,6	6,4	2,1	100,0
>5 mila biztanleko udalak	60,2	20,0	12,9	2,6	2,4	1,9	100,0	54,2	24,8	13,9	2,0	2,3	2,7	100,0
Hiriburuak	42,4	20,7	20,1	9,3	5,4	2,1	100,0	40,0	22,2	16,7	9,7	9,3	2,1	100,0
Mankomunitateak, kuadrillak	55,7	23,3	11,0	6,8	2,7	0,6	100,0	49,4	25,7	13,3	3,7	7,4	0,6	100,0
Foru Aldundiak	49,4	21,0	14,2	6,8	6,1	2,5	100,0	46,2	25,4	12,3	5,2	8,4	2,5	100,0
EJ+erakunde autonomiadunak	43,2	22,4	21,1	6,2	5,1	1,9	100,0	39,1	25,8	21,2	5,5	6,4	1,9	100,0
Erakunde publiko indep.	45,5	27,3	18,2	6,1	3,0	0,0	100,0	42,4	33,3	21,2	3,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	50,5	20,7	16,3	6,0	4,5	2,0	100,0	46,1	24,5	15,7	5,1	6,3	2,3	100,0
Herrialdea (aldundiak, udalak, mankomunitateak)														
Araba	32,6	19,7	22,4	13,6	11,2	0,5	100,0	30,7	21,6	18,3	12,1	16,8	0,5	100,0
Gipuzkoa	75,9	14,4	6,6	0,7	0,6	1,8	100,0	67,4	20,9	7,0	1,7	0,7	2,3	100,0
Bizkaia	46,2	24,1	17,1	5,8	3,8	3,0	100,0	43,5	26,9	16,8	4,1	5,3	3,4	100,0
Guztira	52,4	20,2	15,0	5,9	4,4	2,1	100,0	48,1	24,0	14,1	5,0	6,3	2,4	100,0
Derrigortasun indizea (aldundiak, udalak, mankomunitateak)														
<45	34,9	22,0	22,8	10,6	8,0	1,8	100,0	35,0	22,8	19,6	8,6	11,8	2,2	100,0
45-70	59,7	21,2	11,3	3,0	2,0	2,9	100,0	53,5	26,1	11,9	3,0	2,5	3,0	100,0
>70	88,4	10,0	1,3	0,0	0,0	0,3	100,0	74,8	20,8	2,8	0,0	0,3	1,3	100,0
Guztira	52,4	20,2	15,0	5,9	4,4	2,1	100,0	48,1	24,0	14,1	5,0	6,3	2,4	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Adina eta hizkuntza gaitasuna gurutzatuta, badago aldea hizkuntza gaitasunean. Joera argia da: zenbat eta gazteagoa, orduan eta gaitasun handiagoa. 35 urtez beherako langile ia guztiak gai dira euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko eta idazteko. 55 urtez gorakoen artean, aldiz, % 60,2 hitz egiteko, eta % 53,4 idazteko. Tartean beste bi adin multzoetakoak daude. Baina kontuan izatekoa da adin talde guztien pisua ez dela berbera: 35 urte edo gutxiagoko beharginek dute gaitasun maila handiena, baina langile guztien % 5 dira; 55 urtez gorakoek dute maila txikiena, eta ia langile guztien % 35 dira.

Hizketa eta idazketa alderatuta, bi norabide daude: 55 urtetik gora, zertxobait gehiago dira euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenak, ongi edo nahiko ongi idazten dutenak baino; 55 urtez behera, aldiz, alde txikiz bada ere, gehixeago dira ongi edo nahiko ongi idazten dutenak, hitz egiten dutenak baino.

Langileen hizkuntza gaitasuna sexuaren arabera ere aztertu da. Hitz egiteko gaitasuna eta idaztekoa hartuta, bietan ageri da ez bitarrek gaitasun hobea aitortzen dutela —baina langileen % 0,7 dira—. Bestetik, gizonetakoak zertxobait gehixeago dira ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai direnen artean. Idatzizkoan apenas dago diferentziarik.


15. taula: Langileen euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna, generoaren eta adin tartearen arabera (%)

	Hitz egin							Idatzi						
	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira
Generoa														
Emakumezkoa	50,1	20,2	17,0	6,1	4,3	2,3	100,0	47,0	24,0	15,0	5,5	6,0	2,6	100,0
Gizonezkoa	51,4	21,7	15,1	5,8	4,9	1,1	100,0	45,0	25,3	16,9	4,5	7,1	1,3	100,0
Ez bitarra	56,3	25,0	18,8	0,0	0,0	0,0	100,0	46,7	33,3	20,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	50,4	20,7	16,3	6,0	4,5	2,1	100,0	46,1	24,5	15,7	5,1	6,3	2,3	100,0
Adin-tartea														
<=35 urte	70,4	25,3	4,3	0,0	0,0	0,0	100,0	74,6	21,6	2,2	0,0	1,6	0,0	100,0
36-45 urte	66,7	18,6	11,4	1,8	1,0	0,5	100,0	66,2	22,5	7,2	1,8	1,8	0,5	100,0
46-55 urte	50,0	22,4	18,2	5,8	2,8	0,8	100,0	46,3	27,7	15,5	6,3	3,6	0,6	100,0
>55 urte	39,9	20,3	18,8	10,1	10,1	0,8	100,0	29,8	23,6	23,6	7,2	14,1	1,7	100,0
Guztira	50,5	20,7	16,3	6,0	4,5	2,1	100,0	46,1	24,4	15,7	5,2	6,3	2,3	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Jendaurreko lanpostuetako langileen euskara gaitasuna altuagoa da, eta 10etik ia 9k diote gai direla euskaraz ongi edo nahiko ongi ulertzeko. Alderik handiena hitz egiteko eta idazteko gaitasunean ematen da, non jendaurreko lanpostua dutenen artean 9 puntu altuagoa da euskaraz ongi/nahikoa ongi egiten dutenak.

4. grafikoa: Jendaurreko lanpostua duten langileen (Bai) eta ez dutenen (Ez) euskara gaitasuna (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Langileek adierazitako euskara gaitasunak, V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluaziokoarekin alderatuz gero, zertxobait gora egin du: Euskaraz ongi edo nahiko ongi irakurtzeko eta idazteko gai direnek bost puntu egin dute gora, eta ia lau euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai direnek.

16. taula: Herri erakundeetako langileen euskara gaitasun aitortuaren bilakaera, trebetasunaren arabera (%)

	2017						2020							Ongi + nahiko ongi		Aldea
	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Guztira	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira	2017	2020	
Ulertu	53,7	26,0	12,4	5,1	2,8	100	64,8	18,7	8,4	4,1	2,2	1,8	100,0	79,7	83,5	3,8
Hitz egin	42,7	24,6	19,7	7,9	5,1	100	50,5	20,7	16,3	6,0	4,5	2,0	100,0	67,3	71,2	3,9
Irakurri	49,5	24,8	14,9	3,9	6,9	100	59,5	20,2	9,5	3,2	5,8	1,9	100,0	74,3	79,7	5,4
Idatzi	38,2	26,7	21,2	5,7	8,3	100,1	46,1	24,5	15,7	5,1	6,3	2,3	100,0	64,9	70,6	5,7

Iturria: Siadeco, 2017-2020

3. Zerbitzu hizkuntza

Erakunde publikoetan euskara zertan den aztertzeko, zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiari heldu zaio lehenik. Zein hizkuntza eskaintzen dien erakundeak bere zerbitzuak jasotzen dituztenei.

Bi atal landu ditu zerbitzu hizkuntzari buruzko azterketak: *irudia eta herritarrekiko ahozko harremanak*.

Erakundeko ordezkari edo solaskideari erakundearen irudiaz galdetu zaio. Zehazki galdetu zaio zein den erakundeak eskainitako jendaurreko ekitaldietan eta herritarrari eskainitako bestelako jardueratan-erakusketak, kanpainak, ikastaroak, bestelako egitasmoak...- erakundeak erabilitako hizkuntza; bestetik, langileari berari galdetu zaio ahozko harremanetan zein hizkuntzatan zuzentzen zaion herritarrari, eta euskarazko eskaerari zein hizkuntzatan erantzuten dion.

3.1. Irudia

Erakundeak kanpora begira dituen hainbat alderdiri buruzko informazioa eskatu zaio erakundeko solaskide edo ordezkariari:

- a. Herritarrarekin (hitzaren zentzu zabalean: herritarrarekin, bezeroekin, elkarrekin, beste erakundeetako ordezkariekin, etab.) egiten diren ekitaldi eta jardunaldietan zein den, ahozko harremanean, erakundeak egiten duen eskaintzan euskarak duen presentzia maila.
- b. Erakundeak herritarrari eskainitako ikastaroetatik, euskaraz zenbat eskaintzen diren.
- c. Herritarrari eskainitako bestelako jardueretan (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...) erakundeak egiten duen eskaintzan euskarak duen presentzia maila.

Atal metodologikoan esan bezala, solaskideari egindako galdetegiko erantzunak ez dira haztatu; jaso bezala agertzen dira taula eta grafikoetan.

3.1.1. Jendaurreko ekitaldiak

Erakundeak antolatutako jendaurreko ekitaldietan (esan bezala, hitzaren zentzu zabalean: herritarrarekin, bezeroekin, elkarrekin, beste erakundeetako ordezkariekin, etab.) jardueran zehar azaldutako informazio unitateetatik, euskaraz zenbat eskaintzen diren eta erdaraz zenbat galdetu da. Hizkuntza batean eta bestean azaldutako informazio kopuruaz galdetu da, ez hizkuntza batean edo bestean hitz egindako denboraz.

Honela, adibidez, ekitaldi batean informazio guztia euskaraz eta erdaraz eskaini bada, informazio bera errepikatuz, euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoak % 100 litzateke, eta erdaraz eskainitakoa ere % 100. Baina ekitaldian

azaldutako 10 informazio unitatetik 2 euskaraz eman badira, eta erdaraz 10ak (euskaraz azaldutakoak, erdaraz ere errepikatuz), euskararen ehunekoa % 20 litzateke, eta erdararena % 100. Solaskideei helarazitako galdetegian adibide hauek eta beste batzuk ere ipini ziren, galdetegia betetzeko argibideekin batera.

Horrela galdetzearen helburua, Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jasotakoarekin alderagarri egitea da, eta baita “erabilera orekatua” deiturikoa antzematea ere (hots, azaldutako informazioaren % 50 euskaraz eta % 50 erdaraz emateari deitzen zaio “erabilera orekatua”).

Baina ekitaldiotan euskararen erabilera aztertu aurretik, jendaurreko ekitaldiak zein maiztasunez egiten diren azalduko da.

Erakunde mota batetik bestera jendaurrean egiten diren ekitaldi eta jardunaldien pisua oso diferentea izan arren, gutxi dira inoiz egiten ez dituztenak (mankomunitate/kuadrillen laurdena eta hainbat erakunde autonomiadun eta erakunde publiko independente).

Jendaurreko ekitaldiak maizago antolatzen dituzte foru aldundiek eta 5.000 biztanletik gorako udalek, udal txikiagoek baino. Eta Gipuzkoako eta 86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea % 45-% 70 artean dutenek.

17. taula: Jendaurreko ekitaldien maiztasuna, erakunde esparruaren arabera (%)

	< 5.000 biztanle	> 5.000 biztanle	Hiri-buruak	Mankom. kuadrillak	Udalak, hiriburuak, mankom. guztira	Foru Aldundiak	Jaurlaritza+ erak. auton.	Erakunde publiko indep.	Guztira
Egunero	0,0	8,1	33,3	5,6	4,6	66,7	4,0	25,0	6,3
Astero	5,7	40,3	0,0	5,6	19,6	33,3	28,0	0,0	20,1
Hamabostean behin	14,3	12,9	33,3	11,1	13,7	0,0	4,0	12,5	12,2
Hilean behin	18,6	17,7	33,3	11,1	17,6	0,0	8,0	0,0	15,3
Hilean behin baino gutxiagotan	55,7	21,0	0,0	38,9	38,6	0,0	40,0	50,0	38,6
Inoiz ez	5,7	0,0	0,0	27,8	5,9	0,0	16,0	12,5	7,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Siadeco, 2020

18. taula: Jendaurreko ekitaldien maiztasuna, lurralde historiko eta 86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizearen arabera (lurralde esparruko erakundeak soilik) (%)

	Lurralde historikoa			Derrigortasun indizea			Guztira
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	<% 45	% 45-% 70	>% 70	
Egunero	3,7	7,9	4,5	7,1	8,7	2,9	5,8
Astero	7,4	27,0	18,2	14,3	26,1	19,1	19,9

Hamabostean behin	11,1	11,1	16,7	14,3	13,0	13,2	13,5
Hilean behin	11,1	15,9	21,2	14,3	21,7	16,2	17,3
Hilean behin baino gutxiagotan	55,6	30,2	37,9	42,9	26,1	42,6	37,8
Inoiz ez	11,1	7,9	1,5	7,1	4,3	5,9	5,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2020

Jendaurreko ekitaldietan, batez beste, ahoz azaldutako informazioaren % 69,1 euskaraz eskaintzen da; hau da, ekitaldi horietan azaldutako informazioaren % 30 ez da euskaraz eskaintzen.

Baina batez besteko orokorraren atzean errealitate desberdinak antzematen dira: Udal, hiriburu eta mankomunitateetan, euskaraz eskainitako informazioaren portzentajea datu orokorraren inguruan kokatzen da, baina nabarmen baxuagoa da gainerako erakunde esparruetan. Baxuena, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan dago, non euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa ez den % 50era iristen.


Gipuzkoako erakundeetan eta % 70etik gorako derrigortasun indizea duten herri erakundeetan, ia informazio osoa euskaraz eskaintzen den bitartean, Arabako eta % 45etik beherako derrigortasuna dutenetan, eskainitako 3 informazio unitatetik, bakarra eskaintzen da euskaraz.

5. grafikoa: Jendaurreko ekitaldietan, euskaraz azaldutako informazioaren ehunekoa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

6. grafikoa: Aldundiak, mankomunitateak eta udalak: Jendaurreko ekitaldietan, euskaraz azaldutako informazioaren ehunekoa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Herritarrekin (hitzaren zentzu zabalean: herritarrekin, bezeroekin, elkarrekin, beste erakundeetako solaskideekin, etab.) egiten diren ekitaldi eta jardunaldietan euskararen presentzia sustatzeko beharrik ikusten al duten galdetu zaie herri administrazioko ordezkariari. Eta hala bada, zein den hutsunerik handiena, eta zein bultzatu beharreko alderdia.

Eskaintako informazioaren erdia edo gutxiago euskaraz eskaintzen duten erakundeetan, orokorrean, euskarazko eskaintza sustatu beharra badagoela adierazten dute solaskideek, baina honako oztopo edo zailtasun hauek aipatzen dituzte:

- Agerraldia eskaintzen duen erakundeko ordezkari politikoa euskaraz egiteko gai ez izatea; eta batzuetan, gai izan arren, erraztasun edo ohitura faltagatik, gaztelania lehenestea. Holako kasuetan, euskararen presentzia sinbolikoa behintzat bermatzen saiatzen dira (agurrak, oinarritzko azalpenak....)
- Agerraldietan erabili beharreko hizkuntza protokoloa behar bezala definitu gabe izatea; edo sail/erakundeen artean behar bezala zabaldua ez egotea. Horrelakoetan, maiz norberaren esku geratzen da zein prozedura erabili.
- Ekitaldiko hartzaileen artean euskaldunak gutxi izatea, eta euskarazko eskaerarik ez izatea, edo —besterik gabe— eskaerarik egongo ez dela onartzea.

“Oraingo alkateak eta zinegotzi askok ez dakite euskaraz. Udal langileek sarrerek euskaraz egiten dituzte eta PPTak erabiltzerakoan, euskararen presentzia sinbolikoa bermatzen saiatzen da. Hartzailetako asko ere ez dira euskaldunak (adineko jendeari zuzendutako ekitaldietan), eta teknikariek euskaraz jakin arren ez dute elebitan egiten”. (Araba, Udala)

“Ordezkeri politikoen ezagutzak baldintzatzen du arlo hau, ezagutza txikia daukatenez, euskaraz oinarritzko azalpenak ematen dituzte, gazteleraz berriz, gehiago luzatzen dira zehaztapen gehiago emanez” (Araba, Udala)

“Ekitaldietan protokoloa betetzen da: lehenengo hitza eta hasierako azalpena elebitan egiten da. Ondorengo gaztelaniaz, oro har hartzaileek ez dakitelako euskaraz”. (Araba, Udala)

“Udalbatzak, publikoak dira eta urtean zehar 10 bat egiten dira. 7 zinegotzitik batek bakarrik daki euskaraz eta herritarrik ere hurbiltzen ez denez, ez dute euskaraz egiteko beharrik ikusten” (Araba, Udala)

“Antolamendu-fasean udal sailek ez dute hizkuntzak zelan erabiliko diren zehazteko prozedura komun eta adosturik. Sail antolatzailearen borondatearen arabera da, gehienetan, erabakia.” (Gipuzkoa, Udala)

“Barakaldo bezalako udalerrri batean ingurunearen eragina ez da batere mesedegarria euskararen erabilera areagotzeko. Izan ere, inertziaz edo, barakaldarrek informazioa gaztelaniaz hobeto ulertuko dutelako ustean, askoz gehiago erabiltzen da hizkuntza hau euskara baino.” (Bizkaia, Udala)”

“Bai, euskararen presentzia sustatu behar da. Erakunde euskaldun ugari dagoen arren, batzuek ez dute euskara erabiltzen ekitaldietan.” (Bizkaia, Udala)

“Bai, beharra ikusten dut; ez daukagu agerraldi publikoetan hizkuntzaren erabilerarako arau argitik; bakoitzak nahi/ahal duena egiten du. Arazorik handienak bi dira; agerraldi horiek egiten dituztenen gaitasun eza eta gaitasuna dagoenean erraztasun eza” (Bizkaia, Udala)

Eskaintako informazioa guztia ez, baina gehiena euskaraz eskaintzen duten erakundeetan ere bildu dira hainbat oztopo edo eragozpen; horien artean, adibidez, hauek daude:

- Onartutako protokoloaren betetze mailaren jarraipena eta kontrola behar bezalako ez izatea, eta udalaren babesean beste erakunde batek antolatutako jardueretan udalaren protokoloak ez aplikatzea.
- Hartzaileen artean euskaraz egiteko gai direnak gutxi izatea, edo talde jakin batzuei zuzendutako ekitaldietan (edadekoak, etorkinak...) euskal hiztunak gutxi izatea. Jarduna euskaraz antolatutako erakundeetan, partaideen, herritarren erdararako joerak ere baldintza dezake euskararen erabilera.
- Ekitaldietarako aurkezle euskaldunak topatzeko zailtasunak izaten dira batzuetan.
- Legealdi batetik bestera ordezkeri politikokoak aldatzen direnez, euskararen erabileran eta motibazioan gorabeherak gertatzen dira. Jendaurreko ekitaldietan euskaraz arituko diren pertsonak ematen duten ereduaren garrantzia azpimarratzen da.

- Aurkeztu beharreko gaiaren atzean dagoen hizkuntza bakarra gaztelania izateak zaildu egiten du aurkezpena bietara egitea.

Bere ohiko jarduna euskaraz duen erakunderen batean, euskara “sustatzeko beharra baino, euskarari eusteko beharra” dutela adierazi dute, udalerrri batzuetara iristen ari diren pertsonen profilak gaztelania areagotzea ekar baitezake.

“Hala ere, komenigarria ikusten dut udal-ordezkariekin berriz hitz egitea hizkuntza-irizpideei buruz, hizkuntzen erabilerari dagokionez irizpideak aintzat hartuz jokatzeko ekitaldi guztietan”.(Gipuzkoa, Udala)

“Udalak berak zuzenean antolatu ez arren bere babespean egin denek batek euskara planetan zehaztuta dauden irizpideak bete ez izana. Irizpideak zehatzak dira, baina hauen betetze mailaren jarraipena sendotu beharra dago. Hau izango da datozen urteetarako erronka”.(Udala, Bizkaia)

“Ekintza gehienak euskaraz antolatzen baditugu ere, bertan elkartzen diren ikusleen, partaideen erabilera oso gaztelaniakoa da”. (Gipuzkoa, Udala)

“Zenbait ekitaldi eskaintzerakoan, zailtasunak izan ohi ditugu aurkezle euskaldunak aurkitzeko”.(Udala, Bizkaia)

“Euskarari lehentasuna emateko irizpidea finkatuta dago eta zinegotziak euskaldunak diren artean bai, baina legealditik legealdira aldaketak daude arlo desberdinetan. Batzuetan aurrera egiten da eta beste batzuetan atzera, zinegotziaren gaitasunaren edo borondatearen arabera. Nekatuta gaude poliziarena egiten. Beti da eredu goiko erakundeetako agintarien erabilera.... hor zer esan asko daukate Aldundietako eta Jaurlaritzako agintariek”. (Udala, Bizkaia)

“Beste batzuetan, gainera, ekitaldi hori oinarritzen den araudi guztia gaztelera hutsean dago (estatukoa edo europarra delako), eta kasu hauetan ere zaila izaten da informazioa euskaraz prestatu eta ematea”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Gurean euskara sustatzeko beharra baino, euskarari eusteko beharra dugu. Zenbaitetan, eta batez ere erdaldunak ohi baino gehiago direnean (etorri berriekin egindako saioetan, esaterako), erdarari tarte handiagoa egin behar izaten diogu halabeharrez. Euskarak presentzia hori gal ez dezan mekanismo egokiak identifikatu behar ditugu, bat-bateko itzulpena, esaterako, atzerapausoa iruditzen zaigulako, hein batean”.(Gipuzkoa, Udala)

“Hutsunerik handiena: la erabat euskalduna izan den herrira, bizitzera etorri den jendearen konpromezu eza euskararekiko eta errespetu eza euskaraz bizi gure dogunokiko”.(Bizkaia, Udala)

Oztopo horiei aurre egiteko proposatutako neurrien artean, honakoak aipatu dira:

- Herri administrazioko langileen eta ordezkari politikoen euskararen ezagutzan sakontzea. Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenekin, aurkezpen edo saioaren aurretik biltzea, euskarazko saioa prestatzen

laguntzeko. Hizkuntza normalkuntzarako teknikariaren laguntza/aholkularitza eskatzea.

- Erakundeetako ordezkari guztiei hizkuntza irizpideak gogoraraztea, (ahoz edo euskarriren batean jasota) horiek aintzat hartuz jokatu dezaten. Betetze-maila zehatzago neurtzeko protokoloak erabat zehaztu eta finkatzea.
- Herri erakundeekin kontratua duten enpresei irizpideak azaltzea eta betearaztea.
- Euskararen erabilera areagotzeko hizkuntza teknologiak eskaintzen dituzten aukerak aztertu eta, egoki direnean, erabiltzea (bat-bateko itzulpena, adibidez)
- Saioan erabiliko den hizkuntza hartzaileen euskara gaitasunera egokitzea, gune soziolinguistiko erdaldunetan ere, haur eta gazteei eskainitako saioetan euskara sustatzeko helburuarekin.

3.1.2. Herritarrei eskainitako ikastaroak

Herri administrazioko erakundeen artean, udaletan dago zabalduen herritarrei ikastaroak eskaintzea. Eta hain zuzen ere, udal ordezkariak eskatu dute ebaluazio honetan erakundeek eskainitako ikastaroen hizkuntza eskaintza ezagutzeko galdera txertatzea.

Horrela, herri erakundeen % 82k eskaintzen dituzte —gehiago ala gutxiago— herritarrentzako ikastaroak; eta 3 hiriburu eta 5 mila biztanletik gorako udalerrietako udalen kasuan, ehunekoa 98,4ra igotzen da.

19. taula: Herritarrei begira antolatutako ikastaroen maiztasuna, erakunde esparruaren arabera (%) (pond gabe)

	< 5.000 biztanle	> 5.000 biztanle	Hiri-burua	Mankom, kuadrillak	Udal, hiriburu, mankom guztira	Foru Aldundiak	Jaurlaritza+ erak auton	Erakunde publiko indep	Guztira
Urtean 50 baino gehiago	0,0	25,8	66,7	0,0	11,8	33,3	12,0	0,0	11,6
Urtean 20-50 artean	8,6	25,8	33,3	5,6	15,7	0,0	16,0	0,0	14,8
Urtean 10-20 artean	21,4	27,4	0,0	11,1	22,2	0,0	8,0	0,0	19,0
Urtean 10 baino gutxiago	54,3	19,4	0,0	55,6	39,2	0,0	36,0	0,0	36,5
Ez, inoiz ez	15,7	1,6	0,0	27,8	11,1	66,7	28,0	100,0	18,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

20. taula: Herritarrei begira antolatutako ikastaroen maiztasuna, lurralde historiko eta 86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizearen arabera (lurralde esparruko erakundeak soilik) (%) (pond gabe)

	Lurralde historikoa			Derrigortasun indizea			Guztira
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	<% 45	% 45-% 70	>% 70	
Urtean 50 baino gehiago	7,4	12,7	13,6	19,0	17,4	4,4	12,2
Urtean 20-50 artean	7,4	22,2	12,1	9,5	23,9	13,2	15,4
Urtean 10-20 artean	14,8	20,6	25,8	19,0	26,1	20,6	21,8
Urtean 10 baino gutxiago	37,0	36,5	40,9	31,0	23,9	52,9	38,5
Ez, inoiz ez	33,3	7,9	7,6	21,4	8,7	8,8	12,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2020

Herritarrei eskaintzen zaizkien ikastaroetatik, batez beste, % 60 euskaraz eskaintzen dituzte erakundeek.

Erakunde esparruari dagokionez, euskarazko eskaintzarik altuena 5 mila biztanletik beherako udalek egiten dute (% 72), eta hortik behera 5 mila biztanletik gorakoek (% 56,6), Eusko Jaurlaritzak eta erakunde autonomiadunek eta hiriburuek (% 39,4 eta % 37,2 hurrenez hurren), eta azkenik, foru aldundiek (% 20,6).


Gipuzkoako erakundeetan eta % 70etik gorako derrigortasun indizea duten herri erakundeetan eskainitako ikastaroen % 80 baino gehiago euskaraz eskaintzen dira; Bizkaikoetan eta % 45-% 70 arteko derrigortasuna dutenetan erdia baino zertxobait gehiago, eta Arabako eta % 45etik beherako derrigortasuna dutenetan, aldiz, lautik bat edo gutxiago.

7. grafikoa: Erakundeak herritarrei begira antolatutako ikastaroetatik, euskaraz eskainitakoak (%)



Iturria: Siadeco, 2020

8. grafikoa: Aldundiak, mankomunitateak eta udalak: Erakundeak herritarrei begira antolatutako ikastaroetatik, euskaraz eskainitakoak (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Solaskideei galdetuta ea zein den euskaraz eskaintza sustatzeko hutsunerik handiena, honakoak aipatzen dituzte:

- Ikastaroetako hartzaileen euskararen ezagutza maila baxua eta euskarazko taldeak sortzeko zailtasunak. Herritar euskaldunen portzentajea baxua den udalerritan gertatzen da, baina baita, orotara portzentajea altuagoa izan arren, hartzaile jakin batzuei eskainitako ikastaroetan ere (migratzaileak, langabeak, autoeskolako irakasle izateko ikastaroak,...).
- Eskaini nahi diren ikastaroetarako prestatzaile euskaldunak topatzeko zailtasunak, are gehiago hiriburuetatik kanpo.
- Euskarazko eskaintza sustatzeko irizpidea taldea sortzeko gutxieneko kopuru jakin bat lortzeko beharrezkin uztartu behar denean, maiz lehentasuna ikastaroa eskaintzeari ematen zaio, euskaldunak gaztelaniazko ikastaroetan sartuz.
- Hasiera batean “ele bietan” eskaintzen diren ikastaroetan ere, errealitatean, gaztelania nagusitzen da, batetik, ia ezinezkoa izaten baita ikastaro bat bi hizkuntzetan era parekatuan ematea, eta, bestetik, maiz, jardueran zehar bai aurkezleak/prestatzaileak, bai hartzaile/herritarrek ere, gaztelaniara jotzen dutelako.
- Hartzaileen artean gaztelaniazko ikastaroen aldeko joera antzematen da, ustez kalitate maila altuagoa dutelakoan edo, sarritan, inertziaz. Ez da euskarazko ikastaroen eskaririk sumatzen.
- Ikastaroan landutako material oso espezializatua ez dago maiz euskaraz eguneratua (lege kontuak eta erreglamentuak), eta gaztelaniaz soilik dago.

- Euskarazko eskaintza bermatzeak ekitaldiaren aurrekontuan eragin dezakeenez, saihestu egiten da.

“Adin jakin batetik gorako parte-hartzaileek ez dakite euskaraz, eta horrek euskara gehiago erabiltzea oztopatzen du”. (Araba. Udala)

“Dena dela, zailtasun nabariena kudeaketan dago. Eskaini nahi diren ikastaroetan begirale/enpresa elebidunak ez da beti posiblea; eta are zailagoa izaten da lurraldeko hiriburutik kanpora erakarri behar diren kasuetan”.(Araba. Udala)

“Derrigorrezko elebitasun horren planteamendu barruan, hainbat ikastaro eskaintzen dira ele bitan, baina gauzatzeko garaian ezinezkoa izaten da bi hizkuntzatan, modu orekatuan ematea, eta errealtatean, gaztelaniaz egiten dira”. (Gipuzkoa, Udala)

“Gizarte-ongizateko ikastaro askotan hiztunaren proiektzioa lehenetsita, hizkuntza-ezagutza ez da aintzat hartu. Ondorioz, ikastaroa ahoz erdaraz jaso dute bertaratuek, nahiz eta gerora euren euskaraz egin ahal izatea bermatu”.(Gipuzkoa, Udala)

“Beharrezkoa da, baina, gure kasuan ikusi dugu euskarazko eskaintza egiten dugunean jendeak ez duela apuntatu nahi, txikien kasua izan ezik. Beraz, jendea motibatu edo sentsibilizatu beharko genuke horrelako jarduerak euskaraz eskatzeko edo egiteko.(Bizkaia, Udala)

Eta hauek dira, ikastaroen euskarazko eskaintza sustatzeko, solaskideek egindako proposamenen artean aipaturikoak:

- Erakundeak beti zehaztea zein hizkuntzatan egiten duen eskaintza, zein euskaraz eta zein erdaraz, beti euskarari lehentasuna emanez eta aurreko urteetako eskaria kontuan hartuta, herritarrek argi izan dezan hizkuntza izena emateko garaian. Hartzaileen artean belarriprestak identifikatzea ere proposatzen da.
- Herritar euskaldunen portzentajea altua ez den udalerrietan, helduei zuzendutako ikastaroak gaztelaniaz izaten jarraitu arren, haur eta gazteei egiten zaien eskaintzan euskarazko ikastaroak sustatzea. Ikastaroa gaztelaniaz eskaintzen den kasuetan ere hartzaile euskaldunari euskarazko arreta pertsonalizatua bermatzeko ahalegina egitea proposatzen da.
- Aitzitik, euskaldunen portzentajea altua denean eta ikastaroa praktikoa den kasuetan (sukaldaritza, egur lanketa, serigrafia...) ikastaroa euskaraz eskaintzea, euskaraz ez dakitenei arreta pertsonalizatua gaztelaniaz jasotzeko aukera emanez.
- Kontuan hartuta hainbat arlotan hizlari/irakasle euskaldun trebatuak topatzeko erakundeek dituzten zailtasunak, ikastaroak euskaraz eskaintzeko gai diren hizlarien datu-base orokorra osatzea, arloz arlo sailkatuta (genero berdintasuna, droga menpekotasuna, enplegua...).
- Euskarazko ikastaroen aldeko jarrerak sendotzen lagunduko duten ekimenak eta lan pedagogikoa egin.

3.1.3. Herritarrari zuzendutako bestelako jarduerak

Erakundearen irudiaren atalarekin amaitzeko, erakundeak, herritarrari zuzendutako bestelako jardueretan (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...) azaldutako eduki edo informazio unitateetatik euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa landuko da jarraian.

Herri erakundeen ia % 90ek eskaintzen dituzte horrelako jarduerak, gehiago ala gutxiago. Herritarrei eskainitako ikastaroetan, ikusi bezala, hiriburuetan eta 5 mila biztanletik gorako udalerrietako udaletan eskaintzen dira maizen.

21. taula: Herritarrari begira antolatutako jardueren maiztasuna (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...), erakunde esparruaren arabera (%)

	< 5.000 biztanle	> 5.000 biztanle	Hiri-burua	Mankom, kuadrillak	Udal, hiriburu, mankom guztira	Foru Aldundiak	Jaurlaritza+ erak auton	Erakunde publiko indep	Guztira
Urtean 50 baino gehiago	1,4	29,0	66,7	0,0	13,7	33,3	4,0	0,0	12,2
Urtean 20-50 artean	7,1	37,1	33,3	11,1	20,3	66,7	8,0	12,5	19,0
Urtean 10-20 artean	15,7	21,0	0,0	22,2	18,3	0,0	28,0	12,5	19,0
Urtean 10 baino gutxiago	64,3	12,9	0,0	50,0	40,5	0,0	36,0	25,0	38,6
Ez, inoiz ez	11,4	0,0	0,0	16,7	7,2	0,0	24,0	50,0	11,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

22. taula: Herritarrari begira antolatutako jardueren maiztasuna (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...), lurralde historiko eta 86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizearen arabera (lurralde esparruko erakundeak soilik) (%)

	Lurralde historikoa			86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea			Guztira
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	<% 45	% 45-% 70	>% 70	
Urtean 50 baino gehiago	7,4	17,5	13,6	16,7	21,7	7,4	14,1
Urtean 20-50 artean	7,4	20,6	27,3	23,8	28,3	14,7	21,2
Urtean 10-20 artean	11,1	17,5	21,2	16,7	15,2	20,6	17,9
Urtean 10 baino gutxiago	48,1	39,7	36,4	26,2	34,8	51,5	39,7
Ez, inoiz ez	25,9	4,8	1,5	16,7	0,0	5,9	7,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2020

Herritarrei begira antolatutako jarduera horietan azaldutako eduki edo informaziotik, batez beste, % 85 euskaraz eskaintzen da. Kasu honetan erakunde esparruaren arabeko aldea txikiagoa da aurreko bi adierazleetan baino, eta 10 punturen bueltan dabilta denak.

Jendaurreko ekitaldietan ez bezala, herritarrari begira antolatutako bestelako jardueren kasuan, ahozko eta idatzizko elementuak hartu dira kontuan. Eta idatzizko elementuetan, oro har, altuagoa da euskararen presentzia.


Lurralde mailako erakundeetan orain arteko joera errepikatzen da, baina nabarmen altuagoa da euskararen presentzia Arabako eta % 45etik beherako derrigortasun indizea duten erakundeetan, eta gainerakoekiko aldeak baxuagoak dira aurreko adierazleetan baino.

9. grafikoa: Herritarrentzat antolatutako jardueretan, euskaraz azaldutako informazioa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

10. grafikoa: Aldundiak, mankomunitateak eta udalak: Herritarrentzat antolatutako jardueretan, euskaraz azaldutako informazioa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Solaskideari bere erakundearen eskaintza sustatzeko beharrik ikusten ote duen galdetu zaio eta zein den sumatzen duen hutsunerik handiena. Arrazoiak, maiz, aurreko ataletan azaldutakoak berak edo antzekoak dira, baina herritarren eskariarekin eta hizkuntza irizpideen betetze mailarekin lotutako bi ideia azpimarratzen dira berriro:

- Gune erdaldunetan kokatutako udalerrietan, herritarrek ez diote euskarari behar adina baliorik ematen; ez dago eskaririk, eta erakundeak ez du lehentasunezkoztat jotzen.
- Erakundearen kudeaketa sisteman, enpresak kontratatzeke garaian, hizkuntza irizpideak txertatuta ez dauden kasuetan, enpresek ez dituzte zertan bete. Horiek txertatzea litzateke betearazteko lehen urratsa eta jarraipena egiteko ezinbestekoa.

Horietaz gain, solaskideek bestelako hutsuneak aipatzen dituzte. Horien artean aipatzekoak: sektore jakin batzuetan euskarazko eskaintza oso mugatua da (zineman, adibidez); eskaintako euskarazko programazioa, kanpainak, etab., gainera, gaztelaniaz sortuak daude maiz, eta euskarazko jarduna sustatzeak jarduera horiek euskaraz sortuta izatea ekarri beharko luke (eta ez euskarara itzuliak soilik).

“Ohiturak aldatu beharko ziren. Hor eragin behar da, batez ere; herritarrek ez baitiote baliorik ematen euskarari eta eskaera oso txikia da. Ez dute beharra sumatzen eta ondorioz ez dago udalen lehentasunen artean”. (Bizkaia. Udala)

“Udalarentzako lan egiten duten enpresek bere egin beharko lituzkete Udala Hizkuntza Irizpideak eta bete. Horretarako, Udalaren kudeaketa sisteman txertatuta egon beharko lirateke kontratazioarako hizkuntza irizpideak; hori da beteko direla bermatzeko modurik errazena eta eraginkorrena” (Bizkaia. Udala)

“Eskaintza merkatuaren arabera izaten da askotan, kultur programazioaren kasuan adibidez (zine emanaldiak, kultur ekitaldiak, antzerkia,...) eta euskarazko merkatuak ez du sortarazten nahi beste eduki programazio iraunkorra euskaraz eskaintzeko (batik bat haur eta gazteena)”. (Bizkaia, Udala)

“Bai, sustatu beharko litzateke. Programazioa, kanpainak eta abar gaztelaniaz daude pentsatuta, eta gaztelaniaz plazaratuta, itzuli egiten dira eta gure ustez, hau ez da euskara sustatzea”. (Bizkaia, Udala)

“Kanpainak eta erakusketak ele bietan egiten dira. (...) Arazo nagusia da askotan kanpainak erdaraz daudela pentsatuta, eta gero euskarara ekarriak”. (Araba. Udala)

“Oro har, nahiko ondo betetzen da euskararen erabilera herritarrei begira antolatutako jardueretan. Dena den, horren oinarrian elebitasuna egon daiteke eta hori gainditzeko beharra dago, kanpainak... euskaraz eta euskaratik sortuta”. (Gipuzkoa. Foru Aldundia)

“Hutsunetzat jo badaiteke, euskarazkoaren gehiena itzulpena izatea” (Bestelako erakunde publikoa)

Eta hauetan euskararen erabilera sustatzeko proposatutako neurrien artean azpimarratzekoak dira hauek:

- Gune soziolinguistiko erdaldunetan, batez ere, euskarekiko sentsibilizazioa sustatu eta erakargarri egitea.
- Herritarrek hizkuntzarekiko duten pertzepzioan eta euskararen erabileran sakontzeko, herri erakunde askok (udal batzuek, foru aldundiek, Eusko Jaurilaritzak berak) hainbat kanpainatan egindako “elebitasun orekatutik” euskara lehenestera pasatzea.
- Euskarazko eskaintzarekin batera euskal kultura eta identitatea landuko duen eskaintza egitea eta txertatzea udaletako kultur programazioan.

“Ohiturak aldatu beharko ziren. Hor eragin behar da, batez ere; herritarrek ez baitiote baliorik ematen euskarari eta eskaera oso txikia da”. (Bizkaia, Udala)

“Egokia litzateke euskara hutsezko komunikazioa egitea eta baliabide jakin batzuk jartzea euskara ez dakitenean esku, modu sistematikoan ez erabiltzeko euskara eta gaztelania bideratzen diren kanpaina eta antzeko guztietan; euskarak normaltasuna izan beharko luke eta konplexu barik bera bakarrik erabili” (Bizkaia, Udala)

“Bestalde, ekitaldi publikoetan eta bestelako jardueretan, udalak antolatutakoak, zein udalak diruz lagundutakoak izan edota gune publikoan egingo direnak izan, euskara erabiltzeko betebeharrak gain, eta jarduera bakoitzaren izaerarekin talka egin barik, zeharka euskal identitatea edota euskal kultura sustatzeko irizpideak bete beharko lirateke. Azken ideia horrekin lotuta, euskal kultura, euskal identitatea eta euskal erreferenteak sustatzeko ekintzak leku gehiago beharko lukete udaletako kultur programazioan”. (Bizkaia, Udala)

3.2. Herritarrekiko ahozko harremanak

Herri administrazioko langileari zuzenean galdetu zaio zein hizkuntzatan zuzentzen zaion herritarrari, ahozko harremanean. Galdetu zaio zein duen harrerako lehen hitza —agurra—, eta, behin agurtuta, langileak zein hizkuntzatan jarraitzea eskaintzen duen, zerbitzua euskaraz izan dadin bai telefonoz eta baita aurrez aurre ere. Beraz, langileari galdetu zaio zein den berak eskaintzen duen hizkuntza, ez zein hizkuntzatan garatzen den gero bien arteko elkarrizketa.

Euskaraz nahiago duten herritarrekin zein hizkuntza erabiltzen duen ere galdetu zaio langileari.

Kasu guztietan, ehunekoetan adieraztea eskatu zaio zenbatetan egiten duen hizkuntza batean edo bestean.

3.2.1. Telefono bidezko harremanak

(a) Agurra

Administrazioko langileen % 79,3k eman dute telefono bidezko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzari buruzko informazioa, harreman-mota hori badutela diotenak, alegia.

Herritarrei harrera egiten dietenean, batez beste, % 58,2tan agurtzen dituzte euskaraz eta % 12,7tan ele bietan. % 29,1etan gaztelaniaz soilik agurtzen dituzte. Hau da, batez beste, 10etik 7tan euskaraz agurtzen dira herritarrak telefonoz (soilik edo ele bietan) eta 10etik 3tan gaztelania hutsez.

Espero zitekeen bezala, langilearen euskara gaitasunak eragin nabarmena du herritarrak agurtzeko erabiltzen den hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko momentuan. *Ongi hitz egiten dutela* adierazten dutenen artean, euskararen erabilera % 87,8koa da; hau da 10etik ia 9tan euskaraz agurtzen dituzte herritarrak. Nahiko ongi egiten dutenen artean, berriz, 10etik 7tan agurtzen dituzte euskaraz.


Hiriburuak ez diren udaletan eta mankomunitateetan ere euskararen erabilera altuagoa da, eta batez beste 10etik 8tan agurtzen da euskaraz (soilik edo ele bietan).

36-45 urte artekoen artean eta herritarrekiko telefono bidezko harremanak egunero dituzten langileen artean ere, zertxobait altuagoa da euskararen erabilera telefono bidezko agurrean.

Gipuzkoako erakundeetan eta % 70etik gorako derrigortasun indize duten erakundeetan ia erabat orokortuta dago euskarazko agurra.


Erabilera nabarmen baxuagoa da, aldiz, hiriburuetan, % 45etik beherako derrigortasun indizea duten erakundeetan, Arabakoetan, eta, noski, euskaraz nahiko ongi hitz egiteko gai ez direnen artean.

11. grafikoa: Telefono bidezko harreran, langileak erabiltako hizkuntza (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2020

12. grafikoa: Telefono bidezko harrerera, langileak zenbatetan egiten duen euskaraz eta ele bietan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

13. grafikoa: Telefono bidezko harreran, langileak zenbatetan egiten duen euskaraz eta ele bietan (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020


(b) Elkarrizketa jarraitzeko aukera

Agurra bera euskaraz (soilik edo ele bietan) egin ondoren, tarteka, administrazioko langileak gaztelaniaz osatzen du esaldia, herritarrak bere hizkuntza hautua esplizitatu baino lehen, elkarrizketa gaztelaniaz abiatuz. Kasu honetan, erantzun aukerak euskara eta gaztelania dira, elkarrizketak batean ala bestean jarraitzen direlako, ez ele bietan.

Langileak berak adierazitakoaren arabera, batez beste, 10etik 5etan ematen du elkarrizketa euskaraz jarraitzeko aukera (% 51,2); 10etik 7tan euskaraz agurtzetik, 10etik 5etan euskaraz jarraitzeko aukerara pasa gara. **Hots, 10etik 5ean, gaztelaniaz abiatzen du elkarrizketa langileak.**


Zein erakundetan eta zein profileko langileen artean da elkarrizketa euskaraz jarraitzeko aukera ohikoagoa, joerak errepikatu egiten dira: Euskaraz ongi hitz egiten dutenak dira % 75etik gorako derrigortasun indizeko erakunde batean ari direnak eta Gipuzkoako erakunde batean, eta hiriburua ez den udal edo mankomunitate/kuadrilla batean ari direnak.

14. grafikoa: Behin hasierako agurra eginda, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

15. grafikoa: Behin hasierako agurra eginda, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(lurralde esparruko erakundeak)(Batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

Esan bezala, hasierako agurrean euskararen erabilera, batez beste % 70,7koa izatetik, elkarrizketa euskaraz jarraitzeko gonbitea, batez beste % 50,1koa izatera pasa da. Hau da, ia 20 puntu baxuagoa.

Galerarik handiena gertatzen da langilearen euskara gaitasuna “zertxobait”, bereziki kasu honetan, edo “nahikoa ona” denean, hau da, ziur aski, motibazioak edo irizpideak markatuta, euskaraz agurtu bai baina, gero, elkarrizketa euskaraz jarraitzeko segurtasun nahikorik ez dutenen artean.

Oso alde txikiagatik bada ere, galera ere altua da 45 urtetik beherakoen artean, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan eta foru aldundietan.

3.2.2. Aurrez aurreko harremanak

Administrazioko langileen % 74,7k eman dute aurrez aurreko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzari buruzko informazioa, harreman-mota hori badutela diotenenk, alegia.

(a) Agurra

Herritarrei aurrez aurre harrera egiten dietenean, batez beste, % 55,4tan agurtzen dituzte euskaraz, eta % 11,1etan ele bietan. % 33,5etan gaztelaniaz soilik agurtzen dituzte. Hau da, batez beste, 3tik bitan (% 66,5) euskaraz agurtzen dira herritarrak aurrez aurre, eta 3tik 1ean gaztelania hutsez. Telefonoz baino apenas 4,5 puntu gutxiago.

Euskaraz ongi hitz egiten dutela adierazten dutenen artean, euskararen batez besteko erabilera % 85,8koa da; hau


da 10etik ia 9tan euskaraz agurtzen dituzte herritarrak. Nahiko ongi egiten dutenen artean, berriz, % 63,9koa. Hau da, berriro ere alde handia bien artean.

Hiriburuak ez diren udal eta mankomunitateetan ere, euskararen erabilera zertxobait altuagoa da, eta adin-tartearen arabera, berriro ere 36-45 urte artekoan.

Gipuzkoako erakundeetan (% 89,2) eta % 70etik gorako derrigortasun indizekoetan (%96,3), ia erabat orokortuta dago euskarazko agurra.


Erabilera nabarmen baxuagoa da, aldiz, hiriburuetan, % 45etik beherako derrigortasun indizea duten erakundeetan, Arabakoetan, eta, noski, euskaraz nahiko ongi hitz egiteko gai ez diren langileen artean

16. grafikoa: Aurrez aurreko harreran, langileak erabilitako hizkuntza (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2020

17. grafikoa: Aurrez aurreko harreran, langileak zenbatetan erabiltzen duen euskara (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

18. grafikoa: Telefono bidezko harreraren, langileak zenbatetan egiten duen euskaraz eta ele bietan (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)




Iturria: Siadeco, 2020

(b) Elkarrizketa jarraitzeko aukera

Kasu honetan ere langileei galdetu zaie zein hizkuntzatan abiatzen duten elkarrizketa, behin agurtuta, aurrez aurre. Eta telefonozko harremanean ikusi den bezala, aldea dago agurtzeko erabilitako hizkuntzaren eta elkarrizketa hasteko eskaintako hizkuntzaren artean.


Izan ere, langileak berak adierazitakoaren arabera, batez beste % 46,6tan eskaintzen du elkarrizketa euskaraz jarraitzeko aukera. Telefono bidezko harremanetan bezala, 20 puntu egin du behera euskararen eskaintzak agurretik elkarrizketara. Gaztelaniaz abiatzen dute langileek aurrez aurreko elkarrizketa kasuen erdietan baino gehiagotan.

19. grafikoa: Behin hasierako agurra eginda, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

20. grafikoa: Behin hasierako agurra eginda, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrek hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)(lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020

Esan bezala, aurrez aurreko hasierako agurrean euskararen erabilera, batez beste % 66,5koa izatetik, elkarriketa euskaraz jarraitzeko gonbitea, batez beste % 46,6koa izatera pasa da. Hau da, ia 20 puntuz baxuagoa da

Galerarik handiena, telefono bidezko harremanean bezala, langilearen euskara gaitasuna “zertxobait” edo “nahikoa ona” denean gertatzen da, hau da, motibazioak edo irizpideak markatuta, euskaraz agurtu, baina gero elkarriketa euskaraz jarraitzeko segurtasun nahikorik ez dutenen artean, ziur aski.

Eta berriro ere, oso alde txikiagatik bada ere, galera altuagoa da 45 urtetik beherakoen artean, eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetako eta foru aldundietako langileen artean.

3.2.3. Euskarazko eskariari emandako erantzuna

Zerbitzu hizkuntzarekin lotuta egin zaion azken galderan, langileari galdetu zaio ea ahozko harremana euskaraz nahiago duten herritarrekin zein hizkuntza erabiltzen duen.


Eta kasu horretan, batez beste, euskararen erabilera % 74,1ekoa da. Aurreko adierazleetan baino altuagoa da kasu horretan euskararen erabilera; baina, hala ere, euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin harremana gaztelaniaz gertatzen da 4tik 1ean.

Bestalde, euskararen erabilera % 90etik gorakoa da euskaraz ongi egiten dutenen artean, % 70etik gorako derrigortasun indizea duten erakundeetako langileen artean eta Gipuzkoakoetan.

Batez bestekotik beherakoa, aldiz, euskara ez dakien artean, noski, eta zertxobait baxuagoa hiriburu eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan —non euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileen portzentajea ere zertxobait baxuagoa den—.


Aipatzekoa da 45 urtetik beherako langileen artean euskaraz nahiago dutenekin azaldutako erabilera maila altua, beraien inizatibaz, —telefonoz nahiz aurrez aurre— eskainitakoa baino nabarmen altuagoa.

21. grafikoa: Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin euskaraz egindakoa (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

22. grafikoa: Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin euskaraz egindakoa (batez besteko %)(lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020

3.2.4. Laburpena

Zerbitzu hizkuntzarekin lotutako adierazleak batera agertzen dira ondorengo taulan, euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileen portzentajearekin batera.

Harreman mota bakoitzean, agurtzeko erabilitako hizkuntzaren eta elkarrizketa jarraitzeko erabilitako hizkuntzaren arteko aldea ere zehazten da.

23. taula: Euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileak (%) eta langileek eskainitako zerbitzu hizkuntzarekin lotutako hizkuntza adierazleak (batez besteko %)

	Euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileak			Telefono bidezko harremana			Aurrez aurreko harremana			Euskaraz nahiago dutenekin
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi + nahiko ongi	Harreran, langileak zenbatetan erabiltzen duen euskara (batez besteko %)	Behin agurtuta, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte) (Batez besteko %)	Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)	Harreran, langileak zenbatetan erabiltzen duen euskara (batez besteko %)	Behin agurtuta, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte) (Batez besteko %)	Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)	Euskarazko harremana nahiago duten herritarekin euskaraz egindakoa (batez besteko %)
	%	%	%	Euskaraz + elebietan %	Euskaraz %	%	Euskaraz+ elebietan %	Euskaraz %	%	Euskaraz %
ERAKUNDE ESPARRUA										
< 5 mila biztanleko udalak	65,7	12,5	78,2	79,4	62,9	-16,5	73,6	59,9	-13,7	81,3
>5 mila biztanleko udalak	60,2	20	80,2	81,6	62,1	-19,5	76,8	57,4	-19,4	83,9
Hiriburua	42,4	20,7	63,1	57,9	41,6	-16,4	54,9	35,3	-19,5	66,8
Mankomunitateak, kuadrillak	55,7	23,3	79,0	80,4	63,0	-17,5	77,8	58,6	-19,2	80,5
Udal+ mankomunitateak guztira	53,8	19,8	73,6	74,0	55,8	-18,2	69,9	50,8	-19,1	77,3
Foru Aldundiak	49,4	21	70,4	66,3	44,7	-21,5	59,2	37,9	-21,3	71,9
EJ+erakunde autonomiadunak	43,2	22,4	65,6	67,9	45,8	-22,1	64,4	43,0	-21,4	68,2
Erakunde publiko indep.	45,5	27,3	72,8	71,3	55,9	-15,4	66,5	49,7	-16,8	73,6
Guztira	50,5	20,7	71,2	70,9	51,2	-19,7	66,5	46,6	-19,9	74,1
HARREMANAREN MAIZTASUNA										
Egunero				73,7	53,7	-20,0	67,6	48,7	-19,0	
Gutxiagotan				67,4	48,0	-19,4	65,4	44,6	-20,8	
GENEROA										
Emakumezkoa	50,1	20,2	70,3	70,7	50,5	-20,3	65,2	45,9	-19,3	74,0
Gizonezkoa	51,4	21,7	73,1	71,1	52,5	-18,6	68,8	47,6	-21,2	74,3
Ez bitarra	55,3	24,6	79,9	73,5	68,4	-5,1	72,7	59,2	-13,6	78,6
ADIN TARTEA										
<=35 urte	70,7	25,2	95,9	69,2	48,0	-21,3	67,7	44,7	-23,0	90,8
36-45 urte	66,7	18,6	85,3	75,6	54,4	-21,2	73,0	49,8	-23,2	84,2
46-55 urte	50,0	22,4	72,4	73,8	53,9	-19,9	69,0	49,6	-19,4	76,2
>55 urte	39,8	20,3	60,1	65,1	47,5	-17,6	59,7	43,5	-16,2	62,7
EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA										
Ezer ez	0,0	0,0	0,0	4,9	1,4	-3,5	2,2	0,1	-2,1	0,5
Hitz batzuk	0,0	0,0	0,0	18,2	2,7	-15,6	17,6	2,7	-15,0	4,4
Zertxobait	0,0	0,0	0,0	44,2	15,7	-28,6	40,6	14,1	-26,5	43,5
Nahiko ongi	0,0	100,0	100,0	72,4	47,7	-24,7	63,9	40,9	-23,0	83,1
Ongi	100,0	0,0	100,0	87,7	70,7	-17,0	85,8	67,7	-18,1	94,3

Iturria: Siadeco, 2020

24. taula: Euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileak (%) eta langileek eskainitako zerbitzu hizkuntzarekin lotutako hizkuntza adierazleak (batez besteko %)(lurralde esparruko erakundeak)

	Euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileak			Telefono bidezko harremana			Aurrez aurreko harremana			Euskaraz nahiago dutenekin
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi + nahiko ongi	Harreran, langileak zenbatetan erabiltzen duen euskara (batez besteko %)	Behin agurtuta, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte) (Batez besteko %)	Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)	Harreran, langileak zenbatetan erabiltzen duen euskara (batez besteko %)	Behin agurtuta, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte) (Batez besteko %)	Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)	Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin euskaraz egindakoa (batez besteko %)
				Euskaraz+ elebrietan %	Euskaraz %	%	Euskaraz+ elebrietan %	Euskaraz %	%	Euskaraz %
LURRALDE HISTORIKOA										
Araba	32,6	19,7	52,3	47,4	28,3	-19,2	40,4	22,9	-17,5	56,5
Gipuzkoa	75,9	14,4	90,3	89,9	75,8	-14,1	89,2	74,3	-14,9	92,2
Bizkaia	46,2	24,1	70,3	68,7	46,2	-22,5	63,2	39,7	-23,5	73,6
Guztira	52,4	20,2	72,6	71,8	52,6	-19,1	67,0	47,4	-19,6	75,7
86/1997 DEKRETUAK EZARTZEN DUEN DERRIGORTASUN INDIZEA										
<% 45	34,9	22,0	56,9	54,0	33,2	-20,8	46,1	26,6	-19,6	62,0
% 45-70	59,7	21,2	80,9	80,7	61,2	-19,5	77,8	56,1	-21,7	83,1
>% 70	88,4	10,0	98,4	96,2	83,0	-13,3	96,3	83,4	-13,0	97,6

Iturria: Siadeco, 2020

4. Lan hizkuntza

Erakundearen irudia eta zerbitzu hizkuntza azterturik, herriko erakundeen barruko jardunari erreparatu zaio, lan jardunari, alegia, eta, honetarako, langileei barne eta kanpo komunikazioan zein hizkuntza erabiltzen duten galdetu zaie. Barne komunikazioan ahoz eta idatziz darabilten hizkuntzaz; eta kanpo komunikazioan, ahozkoaz.

4.1. Barne komunikazioa

4.1.1. Erakundearen barne harremanetarako idatziak

Langileari galdetu zaio erakunde barnerako sortutako testu labur eta luzeak idazten ote dituen eta, hala bada, zein hizkuntzatan sortzen dituen.

Langilearen sortze hizkuntza neurtu da. Jatorrizko testua gaztelaniatik sortu eta itzultzaile automatikoaren bidez egin badu euskarazko bertsioa eta testu hori berak birpasatu, zuzendu eta egokitu badu, elebietan sortutakoa dela kontsideratu da. Euskarazko bertsioa ere norberak lantzen badu eta itzultzailea erabili ez bada eta lehenago erabilitako euskarazko testu ereduak (txantilioiak) erabili badira, sortze hizkuntza euskara dela kontsideratu da.

(a) Testu laburrak


Langileen % 92,3k idazten dituzte, —gehiago ala gutxiago— testu laburrak erakunde barneko lanetarako (e-mailak, oharra, jakinarazpenak, egiaztagiak, inprimakiak...).

Batez beste, % 45,9tan sortzen dira euskaraz erakunde barnerako testu laburrak: % 32,3an euskara hutsez, eta % 13,6an ele bietan. Hots, gaztelania hutsez, erdiak baino gehiago (% 54,1)

Euskaraz ongi idazten dutenek sortutako testuen artean, batez beste, % 64,9 sortzen da euskaraz (euskara hutsean edo ele bietan). Euskaraz nahiko ongi idazten dutenen artean, berriz, ia 22 puntu gutxiago (% 43,0)


Hiriburuak ez diren udal eta mankomunitateetan, euskararen erabilera altuagoa da; eta horien artean, % 70etik gorako derrigortasun indizea dutenak (% 86,4) eta gipuzkoarrak (% 76,0).

23. grafikoa: Lanerako testu laburrak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

24. grafikoa: Lanerako testu laburrak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020

(b) Testu luzeak

Langileen % 56,2k idazten dituzte, —gehiago ala gutxiago— testu luzeak erakunde barneko lanetarako (memoriak, txostenak, proiektuak...). Eta horiei dagozkie erabilerari buruzko datuak.

Batez beste, erakunde barnerako testu luzeen, % 34,7 sortzen dira euskaraz: % 22,3 euskara hutsez, eta % 12,4 ele bietan. Hau da, gaztelania hutsez sortzen dira ia hirutik bi.

Euskaraz ongi idazten dutenek sortutako testuen artean, batez beste, % 51,7 sortzen da euskaraz (euskara hutsean edo ele bietan). Euskaraz nahiko ongi idazten dutenen artean, berriz, ia 23 puntu gutxiago (% 29,0)


Adin-tarteari begiratuta, 36-55 urte artekoen artean sortzen da euskaraz gehien, eta aldiz 35 urtez beherakoan artean gutxien —nahiz eta azken hauen artean gehiago diren euskaraz ongi idazteko gai—.

Hiriburuak ez diren udal eta mankomunitateetan, euskararen erabilera altuagoa da; eta horien artean, % 70etik gorako derrigortasun indizea duten erakundeetan (% 80,2) eta gipuzkoarretan (% 63,9).

Lanerako testu luzeak idazteko garaian, euskarazko sortze indizea, aldiz, baxuagoa da, orain arteko beste


adierazleetan agertzen ari zaigun bezala, erakunde arabarretan, % 45etik beherako derrigortasun indizea dutenetan, foru aldundietan eta erakunde publiko independenteetan.

25. grafikoa: Lanerako testu luzeak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

26. grafikoa: Lanerako testu luzeak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020


(c) Hartzaileari testua iristen zaion hizkuntza

Erakunde barnerako sortutako testu labur eta luzeak zein hizkuntzatan sortzen dituen galdetu ondoren, langileari (hartzaileari, kasu honetan) zein hizkuntzatan iristen zaizkion galdetu zaio.

Eta batez beste % 53,8 iristen zaizkio euskaraz; % 27,4 euskara hutsez, eta ia beste hainbeste ele bietan.


Horrenbestez, batez beste, langileek sortutako testu laburren % 45,9 euskaraz sortzen dira eta testu luzeen % 34,7, baina orotara, euren sortutako testuen % 53,8 euskaraz iristen zaiola hartzaileari diote langileek. Gainerako % 46,2 gaztelania hutsez.

27. grafikoa: Erakunde barnerako sortutako testuak, zenbatetan iristen zaizkion euskaraz hartzaileari (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

28. grafikoa: Erakunde barnerako sortutako testuak, zenbatetan iristen zaizkion euskaraz hartzaileari (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020

(d) Idatzizko elementuen laburpena

25. taula: Euskaraz ongi eta nahiko ongi idazteko gai diren langileak (%) eta langileen barneko lan hizkuntzarekin lotutako hizkuntza adierazleak (batez besteko %)

	Euskaraz ongi eta nahiko ongi idazteko gai diren langileak			Lanerako testu laburrak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Lanerako testu luzeak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Erakunde barnerako sortutako testuak, zenbatetan iristen zaizkion euskaraz hartzaileari (batez besteko %)
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi+ nahiko ongi	Euskaraz+elebi	Euskaraz+elebi	Euskara+elebi
ERAKUNDE ESPARRUA						
< 5 mila biztanleko udalak	55,9	18,4	74,3	64,8	61,0	70,3
>5 mila biztanleko udalak	54,2	24,8	79,0	60,8	50,7	69,2
Hiriburuak	40,0	22,2	62,2	35,2	22,6	38,6
Mankomunitateak, kuadrillak	49,4	25,7	75,1	57,0	44,7	61,7
Udal+mankomunitateak guztira	48,9	23,4	72,3	51,7	42,4	57,6
Foru Aldundiak	46,2	25,4	71,6	35,0	21,2	46,3
EJ+erakunde autonomiadunak	39,1	25,8	64,9	43,1	27,2	51,8
Erakunde publiko independenteak	42,4	33,3	75,7	52,8	14,7	66,2
Guztira	46,1	24,5	70,6	45,9	34,7	53,8
HARREMANAREN MAIZTASUNA						
Egunero				46,1	30,1	
Gutxiagotan				46,4	38,3	
GENEROA						
Emakumezkoa	47,0	24,0	70,9	47,0	37,0	56,2


Gizonezkoa	44,9	25,3	70,3	43,6	30,9	49,2
Ez bitarra	47,9	32,0	79,9	64,2	63,6	63,3
ADIN TARTEA						
<=35 urte	74,6	21,5	96,1	46,7	28,4	49,4
36-45 urte	66,2	22,5	88,8	49,0	36,7	54,7
46-55 urte	46,3	27,7	74,0	47,5	38,2	55,0
>55 urte	29,8	23,7	53,4	42,4	31,1	52,9
EUSKARAZ IDAZTEKO GAITASUNA						
Ezer ez			0,0	0,6	0,5	14,1
Hitz batzuk			0,0	6,6	1,9	17,5
Zertxobait			0,0	20,9	7,3	36,3
Nahiko ongi		100,0	100,0	43,0	29,0	51,7
Ongi	100,0		100,0	64,9	51,7	69,1
Aldundiak, mankomunitateak, udalak						
Lurralde Historikoa						
Araba	30,7	21,6	52,3	23,8	18,2	31,2
Gipuzkoa	67,4	20,9	88,3	76,0	63,9	79,5
Bizkaia	43,5	26,9	70,4	37,1	25,0	47,7
Guztira	48,1	24,0	72,1	46,6	36,6	54,2
86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea			0,0			
<% 45	35,0	22,8	57,8	28,5	19,5	36,1
% 45-70	53,5	26,1	79,6	53,3	39,3	62,0
>% 70	74,8	20,8	95,6	86,4	80,1	90,1

Iturria: Siadeco, 2020

4.1.2. Erakundearen barneko lan-bileratako ahozkoak


Langileen % 82,8k adierazi dute badituztela lan bilerak, eta bilera horietan, euskaraz egindako bileren portzentajea, batez beste, % 34,3koa da; hau da, 3tik 1 inguru. Hirutik 2, gaztelaniaz egiten da.

29. grafikoa: Lan bileratan ahoz euskaraz egindakoa (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

30. grafikoa: Lan bileratan ahoz euskaraz egindakoa (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)




Iturria: Siadeco, 2020

4.1.3. Erakundearen barneko ahozko harremanak: Telefono bidez eta aurrez aurre

Langileen % 91,5ek adierazi dute badituztela telefono bidezko harremanak lankideekin, eta ia denek —% 97,1ek—, aurrez aurrekoak. Berauei dagozkie erantzunak.


Telefono bidezko harremanetan, euskararen erabilera % 41ekoa da, eta zertxobait baxuagoa aurrez aurrekoetan: % 38,7koa. Gaztelania nagusi da, beraz, langileen arteko harremanetan, oro har, 10etik 6 kasutan, gaztelaniaz bideratzen baita harremana.

31. grafikoa: Euskararen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz eta aurrez aurre (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

32. grafikoa: Euskararen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz eta aurrez aurre (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020


4.2. Kanpo komunikazioa: Beste administrazioekin eta erakunde pribatuekin eta bestelakoekin ahoz

Langileen % 70ek diote badituztela ahozko harremanak beste herri erakundeetako solaskideekin; eta beste hainbestek, erakunde pribatuetako edo bestelako entitateetako solaskideekin.

Beste herri erakundeetako solaskideekin, ahozko harremanetan, euskararen erabilera % 49,5ekoa da, eta baxuagoa erakunde pribatu eta beste entitateetako solaskideekin (% 33koa).


Norberarena ez den beste herri erakundeetako solaskideekin, beraz, euskara gehiago erabiltzen da erakunde bereko solaskideekin baino; baina, gutxien erakunde pribatu edota bestelako entitateetako solaskideekin egiten da.

33. grafikoa: uskararen erabilera ahozko kanpo harremanetan herri erakundeekin eta bestelako enprekin (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

34. grafikoa: Euskararen erabilera ahozko kanpo harremanetan (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020

4.3. Laburpena: Barne eta kanpo komunikazioetako ahozko harremanak

26. taula: Euskaraz ongi/nahiko ongi hitz egiteko gai direla dioten langileak eta laneko eta kanpoko ahozko hizkuntzaren adierazleak (euskaraz %)

	Euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileak			Lan bileretan ahoz Euskaraz %	Euskararen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz eta aurrez aurre (batez besteko %)		Euskararen erabilera ahozko kanpo harremanetan (batez besteko %)	
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi+nahiko ongi		Telefonozko harremanetan	Aurrez aurreko harremanetan	Beste herri erakundeetako solaskideekin	Erakunde pribatu eta beste entitateetakoekin
	%	%	%		Euskaraz %	Euskaraz %	Euskaraz %	Euskaraz %
ERAKUNDE ESPARRUA								
< 5 mila biztanleko udalak	65,7	12,5	78,2	60,1	61,0	57,8	60,8	50,1
>5 mila biztanleko udalak	60,2	20	80,2	52,9	55,7	54,9	62,5	43,0
Hiriburuak	42,4	20,7	63,1	23,5	30,4	26,5	37,6	21,7
Mankomunitateak, kuadrillak	55,7	23,3	79,0	49,4	54,7	53,9	60,7	43,0
Udalak+mankomunitateak guztira	53,8	19,8	73,6	42,9	47,2	44,6	54,5	36,5
Foru Aldundiak	49,4	21,0	70,4	21,8	32,3	29,6	41,8	28,9
EJ+erakunde autonomiadunak	43,2	22,4	65,6	25,7	34,4	33,3	42,8	27,3
Erakunde publiko independenteak	45,5	27,3	72,8	31,2	40,2	38,3	46,9	26,2
Guztira	50,5	20,7	71,2	34,3	41,0	38,7	49,5	33,0
LANEKO BILERAK ERAKUNDEKO LANKIDEekin								

Egunero/Astero				35,9	41,9	38,6	51,5	31,7
Gutxiagotan				32,9	38,6	39,8	48,4	34,5
GENEROA								
Emakumezkoa	50,1	20,2	70,3	33,9	40,9	38,5	51,2	35,3
Gizonezkoa	51,4	21,7	73,1	34,8	41,1	39,0	46,3	29,5
Ez bitarra	55,3	24,6	79,9	46,9	61,0	47,2	77,6	31,8
ADIN TARTEA								
<=35 urte	70,7	25,2	95,9	32,5	46,4	41,3	60,2	32,1
36-45 urte	66,7	18,6	85,3	35,5	44,3	43,9	53,8	35,8
46-55 urte	50,0	22,4	72,4	36,0	43,0	39,5	49,7	33,6
>55 urte	39,8	20,3	60,1	33,0	37,5	35,7	44,2	31,4
EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA								
Ezer ez				4,4	0	0,4	0	0,1
Hitz batzuk				1,9	0,8	0,9	0,2	0,2
Zertxobait				7,2	9,1	8,8	10,5	5,9
Nahiko ongi		100,0	100,0	26,6	33,8	30,4	39,0	23,9
Ongi	100,0		100,0	51,7	61,9	60,5	72,1	49,7

Oharra: lankideekiko harremanetan, maiztasuna aukerak "egunero" eta "gutxiagotan" dira.

27. taula: Euskaraz ongi/nahiko ongi hitz egiteko gai direla dioten langileak eta laneko eta kanpoko ahozko hizkuntzaren adierazleak (euskaraz %)(lurralde esparruko erakundeak)

	Euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileak			Lan bileretan ahoz Euskaraz %	Euskararen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz eta aurrez aurre (batez besteko %)		Euskararen erabilera ahozko kanpo harremanetan (batez besteko %)	
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi+ nahiko ongi		Telefonozko harremanetan	Aurrez aurreko harremanetan	Beste herri erakundeetako solaskideekin	Erakunde pribatu eta beste entitateetakoekin
	%	%	%		Euskaraz %	Euskaraz %	Euskaraz %	Euskaraz %
Lurralde historikoa								
Araba	32,6	19,7	52,3	13,4	19,1	17,1	28,3	14,7
Gipuzkoa	75,9	14,4	90,3	68,9	73,5	71,3	78,5	62,0
Bizkaia	46,2	24,1	70,3	24,4	31,6	30,3	40,7	23,0
Guztira	52,4	20,2	72,6	36,6	42,8	40,2	51,3	34,6
86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea								
<% 45	34,9	22,0	56,9	14,6	21,4	19,4	30,2	15,1
% 45-70	59,7	21,2	80,9	42,4	50,2	48,5	58,2	41,9
>% 70	88,4	10,0	98,4	87,8	87,7	84,4	87,4	68,2

Oharra: lankideekiko harremanetan, maiztasuna aukerak "egunero" eta "gutxiagotan" dira.

5. Kudeaketa

Atal honetan bi izan dira aztertu diren alderdiak; lanari loturiko idatzien sortze hizkuntza (laburrak edo luzeak diren bereizi gabe), eta erakundeak eskainitako laneko prestakuntzan, euskaraz eskainitako ikastaroen ehunekoa.

Bi iturri desberdinetatik jaso dira datuak; lehena, langileari berari galdetu zaio. Bigarrena, aldiz, erakundeko solaskideari, erakundearen ikuspegi orokorra hobeto ezagut dezakeelakoan.


5.1. Idatzizko sortze hizkuntza

Jatorrizko testua gaztelaniatik sortu eta itzultzaile automatikoaren bidez egin badu euskarazko bertsioa eta testu hori berak birpasatu, zuzendu eta egokitu badu, elebietan sortutakoa dela kontsideratu da. Euskarazko bertsioa ere norberak lantzen badu eta itzultzailea soilik “zuzentzaile” modura erabili bada edo itzultzailea erabili ez bada eta lehenago erabilitako euskarazko testu ereduak (txantilioiak) erabili badira, sortze hizkuntza euskara dela kontsideratu da.

Oro har, lanari loturiko idazkiak, batez beste, % 38,6an sortzen dira euskaraz: % 24,7 euskara hutsez eta % 13,8 ele bietan. 10etik 6, hortaz, gaztelania hutsez.


Euskararen erabilera testu laburrak idazterakoan ateratzen den indizea baino 7 puntuz baxuagoa da sortze hizkuntzaren indizea, eta aldiz, luzeak sortzeko baino 4 altuagoa.

35. grafikoa: Lanari lotutako idazkien artean, zenbat diren euskaraz sortutakoak (soilik, edo ele bietan) (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

36. grafikoa: Lanari lotutako idazkien artean, zenbat diren euskaraz sortutakoak (soilik, edo ele bietan) (batez besteko %) (lurralde esparruko erakundeak)



Iturria: Siadeco, 2020

2020an egindako datu bilketaren azken ebaluaketako emaitzak V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluaziokoekin alderatuta, ikus daiteke erakunde esparruaren arabera udal eta mankomunitateetan mantendu egin dela euskaraz sortutako testuen portzentajea; foru aldundietan eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan, aldiz, behera egin du.

Genero eta adin-tarte guztietan ere behera egin du, eta baita euskara gaitasun maila guztietan ere.

28. taula: Lanari lotutako idazkien artean, zenbat diren euskaraz sortutakoak (soilik eta ele bietan) (batez besteko %). Bilakaera.

	V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2017)			VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)		
	Euskaraz %	Ele bietan %	Euskaraz+ele bietan %	Euskaraz %	Ele bietan %	Euskaraz+ele bietan %
ERAKUNDE ESPARRUA						
Udal+mankomunitateak guztira	26,9	16,3	43,2	30,1	13,8	43,9
Foru Aldundiak	19,4	18,0	37,4	17,2	10,4	27,6
EJ+erakunde autonomiadunak	20,4	20,9	41,3	19,6	17,4	37,0
Besterik/Erakunde publiko indep.	35,9	23,4	59,3	19,9	21,5	41,4
Guztira	25,0	18,4	43,4	24,7	13,8	38,6
GENEROA						
Emakumezkoa	26,5	21,6	48,1	24,1	14,8	38,9
Gizonezkoa	22,7	13,5	36,2	25,9	11,9	37,8
Ez bitarra				31,2	20,4	51,7
ADIN TARTEA						

<=35 urte	36,5	15,0	51,5	20,1	14,9	35,0
36-45 urte	30,6	18,0	48,6	27,8	13,7	41,4
46-55 urte	23,4	19,4	42,8	24,8	15,7	40,5
>55 urte	18,9	18,9	37,8	24,0	11,9	36,0
EUSKARAZ IDAZTEKO GAITASUNA						
Ezer ez	0,1	4,9	5,0	0,1	5,7	5,8
Hitz batzuk	0,9	8,9	9,8	1,3	1,7	3,1
Zertxobait	5,4	15,8	21,2	4,9	8,3	13,1
Nahiko ongi	22,8	21,0	43,8	18,4	16,1	34,5
Ongi	42,9	21,2	64,1	40,5	16,8	57,3

29. taula: Lanari lotutako idazkien artean, zenbat diren euskaraz sortutakoak (soilik eta ele bietan) (batez besteko %). Bilakaera.

	V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2017)			VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)		
	Euskaraz %	Ele bietan %	Euskaraz+ele bietan %	Euskaraz %	Ele bietan %	Euskaraz+ele bietan %
LURRALDE HISTORIKOA						
Araba	6,7	9,8	16,5	9,0	9,8	18,8
Gipuzkoa	47,8	19,1	66,9	53,0	14,9	67,9
Bizkaia	16,3	18,2	34,5	16,8	12,7	29,6
86/1997 DEKRETUAK EZARTZEN DUEN DERRIGORTASUN INDIZEA						
<% 45	9,0	15,5	24,5	9,8	11,5	21,3
% 45-70	36,7	20,0	56,7	31,2	14,0	45,2
>% 70	69,9	12,9	82,8	68,7	12,8	81,5

Oharra: VI. plangintzaldiaren tartekoan "bestelako erakunde independenteak" sailkapenean aztertutakoak EZ dira V.Plang Amaierakoan sartutako berberak.

5.2. Prestakuntza

Solaskideari, erakundeak langileei zuzendutako lan prestakuntza saio edota ikastarorik antolatzen al duen galdetu zaio, eta, hala bada, urtean zenbat gutxi gorabehera.

Eta taulan ageri den bezala, 3 erakundetik batek ez du prestakuntzarik antolatzen, eta multzorik handienak (ia erdiak), urtean 10 baino gutxiago antolatzen ditu.

Ikastaro gehien antolatzen dituzten erakundeen artean hiriburuak eta foru aldundiak daude; eta gutxien antolatzen dituztenak, aldiz, 5 mila biztanletik beherako udalak dira, 10etik 6k ez baitiete inolako prestakuntzarik eskaintzen bertako langileei.

30. taula: Langileei zuzendutako lan prestakuntza saio edota ikastaroen maiztasuna, erakunde esparruaren arabera (%)

	< 5000 biztanle	> 5000 biztanle	Hiri-buruak	Mankom., kuadrillak	Udalak, hiriburuak, mankom .guztira	Foru Aldundiak	Jaurlaritza+erak. Auton.	Erakunde publiko indep.	Guztira
Urtean 50 baino gehiago	0,0	3,2	66,7	0,0	2,6	66,7	8,0	0,0	4,2
Urtean 20-50 artean	0,0	8,1	33,3	0,0	3,9	33,3	8,0	0,0	4,8

Urtean 10-20 artean	2,9	11,3	0,0	11,1	7,2	0,0	8,0	12,5	7,4
Urtean 10 baino gutxiago	35,7	58,1	0,0	66,7	47,7	0,0	52,0	75,0	48,7
Ez, inoiz ez	61,4	17,7	0,0	22,2	37,9	0,0	24,0	12,5	34,4
Zehaztu gabe	0,0	1,6	0,0	0,0	0,7	0,0	0,0	0,0	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

31. taula: Langileei zuzendutako lan prestakuntza saio edota ikastaroen maiztasuna, erakunde esparruaren arabera (%)

	Lurralde historikoa			86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea			Guztira
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	<% 45	% 45-% 70	>% 70	
Urtean 50 baino gehiago	3,7	4,8	3,0	4,8	8,7	0,0	3,8
Urtean 20-50 artean	3,7	6,3	3,0	7,1	6,5	1,5	4,5
Urtean 10-20 artean	3,7	4,8	10,6	4,8	13,0	4,4	7,1
Urtean 10 baino gutxiago	29,6	50,8	50,0	35,7	47,8	52,9	46,8
Ez, inoiz ez	59,3	31,7	33,3	47,6	21,7	41,2	37,2
Zehaztu gabe	0,0	1,6	0,0	0,0	2,2	0,0	0,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Orotara eskainitako ikastaroen erdiak euskaraz eskaintzen dira (% 52,6). % 70etik gorako derrigortasun indizeko erakundeetan % 86,1 eskaintzen dira euskaraz, Gipuzkoakoetan % 77,6, eta 5.000 mila biztanletik azpikoetan, oro har, % 72,8.

Aldiz, hiriburuetan % 21ekoa da euskarazko eskaintza, foru aldundietan % 25,5ekoa, eta Eusko Jaurlaritza eta erakunde autonomiadunetan % 33,2.

32. taula: Erakundeak langileei begira antolatutako ikastaroetatik, zenbat eskaintzen dira euskaraz

	Euskaraz %
ERAKUNDE ESPARRUA	
< 5.000 biztanle	72,8
> 5.000 biztanle	53,1
Hiriburuak	21,0
Mankomunitateak eta kuadrillak	55,7
Udalak, hiriburuak, mankomunitateak	58,1
Foru Aldundiak	25,5
Jaurlaritza+erakunde autonomiadunak	33,2
Erakunde publiko independenteak	43,0
Guztira	52,6

Iturria: Siadeco, 2020

33. taula: Erakundeak langileei begira antolatutako ikastaroetatik, zenbat eskaintzen dira euskaraz. Lurralde esparruko erakundeak.

Aldundiak, mankomunitateak, udalak	
LURRALDE HISTORIKOA	
Araba	14,8
Gipuzkoa	77,6
Bizkaia	47,5
86/1997 DEKRETUAK EZARTZEN DUEN DERRIGORTASUN INDIZEA	
<% 45	8,1
% 45-% 70	54,9
>% 70	86,1
Guztira	57,1

Iturria: Siadeco, 2020

Solaskideari galdetu zaio zein den euskarazko eskaintza sustatzeko hutsunerik nagusiena eta zein alderdi bultzatu beharrekoa. Honakoak azpimarratu dituzte:

- Erakundeko hizkuntza irizpideak behar bezala finkatu gabe edukitzeak edo erakunde barneko sailen arteko koordinazio faltak eta bakoitzak prestakuntza bere kabuz antolatzeak euskarazko eskaintzea egitea zaildu egiten du.
- Erakunde/sail jakin batzuetan prestakuntza euskaraz eskaintzeko interes handirik ere ez da sumatzen.
- Batzuetan zaila gertatzen da euskarazko prestakuntza “justifikatzea” euskarazko eskaerarik ez dagoen erakundeetan eta erabilgarria ez dirudienean.
- Erakunde txikietan zaila da prestakuntza bi hizkuntzatan eskaintzea, eta, langile edota udal ordezkari erdaldunak dauden kasuetan, erdarazko prestakuntza eskaintzen da. Aldibereko itzulpen zerbitzua ez da oso praktikoa ikusten erakunde barneko saioetarako.
- Formatzailea ere ez da beti egiten euskaraz, eta, maiz, inertiak ere eragiten du prestakuntza gaztelania hutsez eskaintzen jarraitzea. Eskainitako prestakuntza oso teknikoa edo espezializatua den kasuetan, prestakuntza emaileak/hartzaileak gaztelaniaz eman/jaso nahiago du maiz.

“Langile gutxi direnez, saio bakarra antolatzen da, eta denek ez dakitenez gaztelera izaten da. Hutsune hau konpontzeko modu bakarra, bi saio antolatzea litzateke”. (Araba. Udala)

“Irizpidea izaten da hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek formazioa euskaraz jasotzea, baina askotan ez da hori betetzen, izan ikastaroaren eskaintza gaztelaniaz soilik delako, izan formatzailea elebiduna ez delako, izan inertziaz... Honetan ere aipatu behar da IVAPeK eskaintzen dituen teknikariei zuzendutako ikastaro asko gaztelaniaz baino ez direla eskaintzen”. (Gipuzkoa. Udala)

“Formazio enpresa guztiek ez baitute gaitasunik euskarazko ikastaroak emateko. (Gipuzkoa. Udala)

“Langileen artean erresistentzia ere izaten da, lanpostuko zereginak egiteko nahikoa gaitasun izan arren, askok prestakuntza gaztelaniaz jaso nahi izaten baitute. (Gipuzkoa. Udala)

“Hizkuntza hautuaren gaineko galdera egin beharko litzateke bai eta sentiberatzea (udal langileak ohituta daude gaztelaniazko ikastaroetara eta inertzia horretatik ateratzea zaila da ez baldin bada lantzen)”. (Gipuzkoa.Udala)

“Hobetu beharrekoak: ikastaro gehienak sailek antolatuta eta sailean bertan eskatuta egiten dira eta horietan ez da hizkuntza kontuan hartzen. Kopuru handi batean gaztelaniaz egiten dira eta horrek ez du laguntzen lanerako euskarazko giroa sortzen”. (Gipuzkoa. Udala)

“Normalean, ematen diren kurtsoak oso teknikoak dira eta bai hartzen dituenak edo ematen dituenak ez daude prestatuta euskara hutsean emateko, nahiz eta sentsibilizatuta egon... Normalean udal idazkariak hartzen ditu kurtsoak.(Bizkaia. Udala)

“Inguru honetako lan eskaintzetan euskara ez da beharrezkoa, ezta kasu gehienetan, erabilgarria”.(Araba. Kuadrilla)

“Hutsune nagusia, prestaketa lanetan dabiltzanek euskarazko eskaintza ematea aztertu ere ez dutela egiten da”.(Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Dudarik gabe langileentzako eskaintza gaztelania hutsean egotea harrigarria da langileen artean dagoen euskara maila kontuan hartuz”. (Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna)

Edonola ere, erakundeetako solaskideek prestakuntza euskaraz eskaintzea lehentasunezko zat jotzen dute, eta bada lanerako prestakuntza euskaraz izatea “hizkuntza normalizazioari begira, HE egiaztatzea bezain eraginkorra dela” adierazten duenik. Horretarako proposatutako neurrien artean dago hizkuntza eskakizun jakin batetik gorakoek prestakuntza orokorra euskaraz jasotzea, adibidez. Arlo teknologikoan eta aplikazio informatikoen inguruko eskaintzan euskara sustatzea ere proposatu dute solaskideek.

5.3. Bilakaerarekiko balorazioa


Amaitzeko, langileari bere erakundearen erabilerak duen bilakaerari buruzko balorazioa eta iritzia eskatu zaizkio.

Langileen erdiek baino gehiagok (% 55,5) bilakaera oso positiboa (% 12,1) edo positiboa (% 43,4) izan dela diote. Beste muturrean daude oso negatiboa edo negatiboa diotenak: % 10,8. Eta tartean geratu dira balorazio ez positibo eta ez negatiboa egiten dutenak: % 24,5.

Iritzirik positiboena % 70etik gorako derrigortasun indizea duten erakundeetako langileen artean (% 89,9) eta Gipuzkoakoetan gertatzen da (% 79,1). Baina, altua da, baita ere, erakunde publiko independenteetan bilakaera positiboa izan dela dioten portzentajea (% 68,6), edo hiriburu ez diren udaletan bilakaera positiboa izan dela dioten portzentajea (% 67 inguru)

Bilakaera kritikoagoarekin agertzen dira, aldiz, 35 urtetik beherako langileak (%16,2), % 45etik beherako derrigortasun indizeetako erakundeetako langileak (% 14,9) eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetakoak (% 14,3).

37. grafikoa: Bilakaerari buruzko balorazioa, erakunde esparruaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020

34. taula: Bilakaerari buruzko balorazioa (%)

	Oso negatiboa %	Negatiboa %	Ez negatibo ez positiboa %	Positiboa %	Oso positiboa %	Zehaztu gabe %	Guztira %
ERAKUNDE ESPARRUA							
< 5 mila biztanleko udalak	0,7	6,8	14,3	41,5	25,9	10,9	100,0
>5 mila biztanleko udalak	2,3	6,2	17,0	46,4	20,1	8,1	100,0
Hiriburuak	2,5	8,9	27,9	40,9	6,9	12,8	100,0
Mankomunitateak, kuadrillak	2,2	9,8	29,3	41,3	14,1	3,3	100,0
Udalak+mankomunitateak	2,2	7,4	21,4	43,7	15,4	9,9	100,0
Foru Aldundiak	1,9	8,7	28,5	45,1	6,4	9,4	100,0
EJ+erak. autonomiadunak	2,0	12,3	28,2	40,5	9,6	7,4	100,0
Erakunde publiko indep.	0,3	7,3	21,7	51,3	17,3	2,0	100,0
Guztira	2,1	8,7	24,5	43,4	12,1	9,2	100,0
GENEROA							
Emakumezkoa	1,9	9,3	25,0	40,3	12,7	10,8	100,0
Gizonezkoa	2,5	7,8	24,0	49,3	10,9	5,5	100,0
Ez bitarra	0,9	0,0	7,7	48,2	12,8	30,4	100,0
ADIN TARTEA							
<=35 urte	0,0	16,2	27,8	37,0	14,8	4,3	100,0
36-45 urte	3,9	8,6	23,1	45,7	13,1	5,6	100,0
46-55 urte	2,0	8,3	28,2	42,1	12,3	7,1	100,0
>55 urte	1,1	8,6	21,8	47,8	11,5	9,2	100,0
JENDAURREKO LANPOSTUA							
Bai	2,2	8,7	22,1	43,5	17,2	6,3	100,0
Ez	2,0	9,0	27,2	45,2	8,6	8,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

35. taula: Bilakaerari buruzko balorazioa (%) (lurralde mailako erakundeak)

	Oso negatiboa %	Negatiboa %	Ez negatibo ez positiboa %	Positiboa %	Oso positiboa %	Zehaztu gabe %	Guztira %
LURRALDE HISTORIKOA							
Araba	2,5	9,6	37,2	36,9	4,9	8,9	100,0
Gipuzkoa	0,2	3,9	11,3	53,0	26,1	5,4	100,0
Bizkaia	3,2	9,4	25,3	41,7	7,5	12,8	100,0
Guztira	2,1	7,8	23,6	44,1	12,7	9,7	100,0
86/1997 DEKRETUAK EZARTZEN DUEN DERRIGORTASUN INDIZEA							
<% 45	4,0	10,9	33,0	33,4	5,0	13,7	100,0
% 45-70	0,9	6,0	19,2	52,5	13,6	7,9	100,0
>% 70	0,0	3,1	5,2	51,9	38,0	1,8	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Oso positibo (% 12,1) eta positibo (% 43,4) jotzen dutenek aipatutako arrazoien artean nagusiena da erakundearen euskara gero eta gehiago erabiltzen dela; nagusiki ahoz, baina baita idatziz ere. Horien inguruan azpimarratzeko moduan azaldutako ideiak:

- Euskararen erabilerak gora egin du, erakundearen bultzadari eta langileen interesari esker. Hala ere, batzuetan pertsona baten ekimena nahikoa izan daiteke talde baten hizkuntza ohituretan eragiteko.
- Oro har, bilakaera positiboagoa da ahozko harremanetan idatzizkoetan baino.
- Egun zerbitzu eta lan hizkuntza nagusia/bakarra euskara da erakundearen lehentasuna eman zaiolako euskarari. UEMAko kide egin da, edo Bikain eskuratu du. Erakundearen bultzadari eta langileen interesari esker gertatzen da.
- Euskararen erabilerak gora egin du langile euskaldunen portzentajeak gora egin duelako.

“Duela 2 urte iritsi nintzen hona eta pentsatzen nuen inork ez zekiela, izan era inork ez zuen erabiltzen. Gure euskara-teknikaria duela urte eta erdi iritsi zen. Iritsi zenetik, ilusioz bete ditu guztiok, euskaraz askoz gehiago hitz egiten dugu eta askoz gehiago erabiltzen dugu. Berak gurekin lan-taldeak sortu ditu, eta euskera erabiltzea badirudi errazagoa dela denontzat. Noski gauza asko egiteke daude nitaz hasten. Horregatik positiboa jarri dut izan ere egoera, nire iritziz, asko aldatu da.”(Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Instituzio eta langileen aldetik saiakera handia egiten dugulako euskararen erabilera era normalizatuen izan dadin.”(Gipuzkoa. Udala)

“Azken 10-15 urtetan egin den aldaketa ikaragarria izan da. Asko dugu egiteko, baino inertzia hausten ari gara.” (Gipuzkoa. Udala)

“Lehen baino askoz gehiago erabili/ezagutzen delako. Gaur egun posible da bilera bat euskaraz egitea, nahiz eta batzuentzat ez den hain eroso izango, hemengo langile guztiok ulertzen dugu eta badakigu hitz egiten (batzuek ondo, beste batzuek ez hainbeste)”(Araba. Udala)

“Oraindik gauzak fintzeko dauden arren, azken 20 urteetan, gehiena erdaraz egitetik ia dena euskaraz sortzera pasa garelako, eta langileak euskaraz lan egiteko prestatuta daudelako.” (Gipuzkoa. Udala)

“Langile guztiok egiten dugu euskaraz eta udalaren irizpidea da lehen hitza beti euskaraz egitea, bai udal langileon artean eta baita herritar zein beste erakundeekin ere.”(Gipuzkoa. Udala)

“Barneko komunikazio osoa euskaraz egiten dugu. Eta sortutako edukiak ere %100ean euskaraz dira.” (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Gure Sailean posiblea delako lanaren arlo guztiak euskera hutsez egitea. . (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Azken 15 urteetan laneko harremanetan erabiltzen dugun hizkuntza erabat aldatu da. Hasieran gai tekniko gehienak gaztelaniaz soilik lantzen ziren. Orain ordea, ia guztia euskara hutsean egiten dugu.”

Bilakaera horren arrazoi nagusia lankideen hizkuntza ezagueran datza (orain, lehen baino lankide gehiagok du euskara maila altua). Nire atalean, lankide guztiek ulertzen dute euskara, eta horrek, bilerak eta gure arteko komunikazioak euskara hutsean izatea ahalbidetzen du. Gainera, urteen poderioz, txantilo ezberdinak sortu ditugu euskaraz lan egin ahal izateko. Gurekin harremanetan aritzen den jendeak ere, gero eta gehiagotan egiten du euskararen hautua eta horrek guztiak, lanean erabiltzen dugun hizkuntza ohitura aldatzea ekarri du. (Gipuzkoa. Udala)

“La gente joven que ha entrado, todos saben euskera, y se nota mucho la evolución” .(Erakunde Autonomiaduna)

Erabilera positiboa egiten dutenen artean badira euskararen ezagutzan sakontzeko prestakuntza ikastaroak berreskuratzea proposatzen dutenak, horrek euskara sortze hizkuntza gisa areagotzea egin lezakeelakoan. Edo garai batean izandako trebatzailea berreskuratzea proposatzen dutenak ere badira. Positiboki baloratzen da posta elektronikoko bidez egunero egiten den bost minutuko ikastaroa.

“Positiboa egiten dut, orokorrean euskaraz murgiltzen garelako. Faltan botatzen dut idatziz hobetzeko aukera izatea (idatzizko arauak, ikastaroak,...) Euskara jasoagoan egin ahal izateko eta zenbaitetan erabiltzen ditugun hitz teknikoak ikasteko”.(Gipuzkoa. Udala)

“Arazo nagusia idatziaren alorrean ikusten dut. Nahiz eta jendea euskaraz eskolatua izan, kosta egiten zaie maila batetik goragoko testuak idaztea eta itzulpen sailera bideratzen dituzte. Testu gutxi sortzen dira euskara hutsean; gehienak itzulpenak dira. Hor ikusten dut gabezia nagusia. Uste dut jendea trebatu egin beharko litzatekeela administrazio erako testuak irakurtzen eta ulertzen, eta agian horietara ohituta batzuk animatuko lirakeela euskaraz gehiago sortzen”.(Gipuzkoa Udala)

“Convendría retomar el apoyo en euskera por profesores personalizado que se tenía hace unos años en horario acordado entre los dos apersonas que no dominamos el Euskera” (Gipuzkoa. Foru Aldundia)

“Bost minutuko ikastaroa jasotzen dugu e-mailez egunero eta euskera sustatzen dela uste dut”.(Eusko Jaurlaritzako Saila)

Administrazioan idazkietan erabilitako hizkuntza erraztea ere proposatzen da herritar gehiagorengana iristeko. Hizkuntza teknikoak ulertzeko zailtasuna ere aipatzen da maiz erdarazko bertsioetara jotzeko arrazoi modura.

“Considero que la utilización del lenguaje tanto en formularios de la Administración, textos de las cartas, emails... si se escribieran en el euskera que utiliza el ciudadano medio sería mejor acogido en general por todos” .(Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Jende gehiagok hitz egiten du euskaraz orain. Hala ere, nire ustez bi egoera ezberdin behar ditugu: harreman arruntan maila nahikoa hitz egin edo idazten da euskaraz, baina maila teknikoan (Zuzenbidean, etab) nik ikusten dut jendeak gaztelaniara jotzeko joera izaten duela... Beste alde batetik, euskaldun berrientzat euskararen zailtasunak eragin handia du: eta, adibidez, testu luze elebidun baten aurrean nahiago izaten dugu gaztelaniazko bertsioa, euskarazkoa baino, batez une horretan lanak jota baldin bagaude”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

Langileen artean % 10,8 dira bilakaera oso negatiboa edo negatiboa izan dela diotenak, eta ematen dituzten arrazoien artean hauek dira azpimarratzekoak:

- Asko dira oraindik euskaraz egiteko gai ez diren langileak herri administrazioako erakundeetan; eta horrek, noski, erabilera handitzea eragozten du. Maiz nahikoa da euskal hiztuna ez den pertsona bat egotea talde edo bilera baten hizkuntza gaztelania bilakatzeko.
- Erakundeetan ez da euskara erabiltzen (euskal hiztunek ere ez dute erabiltzen), ez da baloratzen eta ez da inolako aurrerapausorik eman azken urteetan. Erakundeak ez du erabilera sustatzeko interesik eta zerbitzu hizkuntza gisa ezarritako betebeharrak ere ez dira betetzen. Herri administrazioako goi mailako ordezkariak ere ez dira eredu. Eta ordezkari politikoen lidergo falta salatzen da.
- Erakundeetan euskara sustatzeko benetako borondaterik ez dagoela eta “itxurakeria” edo “irudi” kontura mugatzen dela ere badiote, eta gaizki planifikatuta dagoela, eraginkortasunaren kalterako.
- Lanpostu askotan hizkuntza eskakizunak ez dira betetzen, eta lanpostu berrietarako eskatzen direnean ere eragozpenak ipintzen dira. Bestalde, egun, lanpostu berriei eskatzen ari zaizkien hizkuntza eskakizunak egungo langileek dituztenak baino baxuagoak dira kasuren batean baino gehiagotan, eta horrek etorkizunean euskararen ezagutza eta erabilera maila jaistea ekar dezake.
- Langilearen borondatearen esku geratzen da euskararen erabilera: bai kontratatu berrien kasuan, non ez zaien jarraibide argirik ematen hizkuntzen erabileraz, baita lehendik daudenen kasuan ere, langile askok erabaki indibidual gisa ikusten baitute beren lanean euskara gehiago ala gutxiago erabiltzea.
- Idatzien hartzaile den herri administrazioak ez du euskara hutsezko txostenik onartzen.
- Euskararen erabilera arlo edo gai jakinetarako mugatzen da; “pisuzko” gaietarako idatziak gaztelania hutsean egiten dira.
- Euskara ikasteko ahalegin handia egindako hainbatek bere frustrazioa adierazten dute ingurukoek ez erabiltzearen ondorioz trebetasuna galtzen ari direlako edo lortutako mailari eusteko prestakuntza ikastarorik jaso ez dutelako.

“Aurrera pausurik ikusten ez dudalako. Euskaraz dakien lankideekin euskaraz hitz egin eta lan egin arren, euskaraz ez dakienekin lan egin behar dugu eta, kasu horietan, gaztelaniak menderatzen du lana, bai harremanetan, idatzietan, hizketaldietan, bileretan...” (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Es inexistente el euskera”. (Araba. Foru Aldundia)

“Gure bulegoan ia inork ez daki euskera eta dakienak ez du nahi hitz egin”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Ez dagoelako inolako interesarik euskera lanean sartzeko. Euskera "pose" besterik ez da. Ez dago benetan barneratua euskararen benetako beharra eta , gainera, behar hori ez da sentiarazten.(Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Hemen ez da hitz bakar bat ere egiten euskaraz”.(Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Guztiz negatiboa ez, dekretu on bat onartu delako. Baina gero Dekretu horrek ezartzen dituenak ez dira betetzen. Adibidez, txosten ugari erdara hutsean bidaltzen da kanpora, Dekretuak ezartzen duenaren kontra. Berdin harremanak euskara hutsean nahi dituztenekin, erdaraz edo ele bietan erantzuten zaie” (Bizkaia. Foru Aldundia)

“Euskaraz egunerokoan egitea ia langileon ardua edo aukera baino ez da, edo ala ematen du. Falta da nire ustez ikaragarriko garrantzia duen elementu bat, erakundeetan ez ezik gizartearengan berarengan ere isla eta eragina baduena, ematen den irudiagatik: Jaurlaritzako goi mailako ordezkariak (gobernu-kontseiluko kideak eurak, eta hortik hasita izendapen libreko kargu asko eta asko) ez dira eredu ez euskararen ezagutza ez erabilerari dagokionez”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Ez da apenas baloratzen eta orokorrean ez da batere sustatzen. Komunikazio egoera ia guztiak gaztelania hutsean dira”.(Bizkaia. Udala)

“Ez zaio inolako garrantzirik ematen, buruek ez dakite eta horren alardea egiten dute. Oposaketan euskara maila eskatzen denenean boikoteatu eta eragozpenak ipintzen dituzte”. (Bizkaia. Foru Aldundia)

“Euskara ez da egunerokotasunean aintzat hartzen. Barneko idatzi guzti guztiak erdera hutsean bakar bakarrik daude. Euskeraz egin nahi dugunontzat oso zaila da”.(Bizkaia. Foru Aldundia)

“Abian dauden oposaketa prozesuetan, euskara mailaren eskaera gaur egungo langileek duten ezagutzaren azpitik dago, beraz, posible da etorkizunean euskararen ezagutza eta erabilera maila jaistea”.(Gipuzkoa. Foru Aldundia)

“Pertsona bakoitzaren gogoari lotuta dagoelako. Nahi duenak euskaraz egiten du eta gainontzekoak hari euskaraz zuzentzen zaizkio gaztelaniaz egiten duenari gaztelaniaz”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Arabako foru aldundiarekin ditugun ia eguneroko, dei,email... hasierako hitza behintzat gaztelera izaten da beraien aldetik eta sarritan txostenak euskara hutsean eginez gero gaztelera itzultzeko eskatzen dizkigute edo zuzenean ezin izaten ditugu euskara hutsean egin, hartzailak ez baitu euskara ulertzen.

LOTSAGARRIA ETA ONARTEZINA!!!!!!” (Araba. Udala)

“Trabajo en una biblioteca donde a los libros en euskera se les identifica con una "V" en el lomo, por estar localizados en la "Sección Vasca". Este anacronismo es buena muestra de la evolución que ha tenido el trato hacia el euskera en mi entidad” (Bizkaia. Udala).

“Hizkuntza-politika itxurakeria hutsa da. Jaurlaritzako lan-hizkuntza gaztelania da nagusiki, eta dokumentuak euskaraz ere eman beharra tratatzen hartzen dute langile batzuek. Nire iritziz, kargu publikoen aldetik ez dago benetako borondaterik Eusko Jaurlaritzan euskaraz lan egiteko toki bilakatzeko”. (Erakunde Autonomiaduna)

“Gai garrantzitsuetan erdara da nagusi, euskara harremanetarako erabiltzen da baino gai mamitsueterako erdarara jotzen da”. (Gipuzkoa. Udala)

“No se utiliza el euskera en general, ni en las reuniones entre compañer@s ni con otr@s profesionales ni con l@s usuari@s. Me preocupa porque después del esfuerzo que me supuso estudiar el idioma al no utilizarlo he perdido en fluidez, palabras,...”. (Bizkaia. Udala)

“Trabajo cara al público y de forma diaria usamos el euskera. Mi nivel de Euskera, pese a tener el Perfil requerido, al haberlo sacado hace ya años y no haberlo usado durante años, se me ha olvidado bastante, y pese a haber solicitado cursos de reciclado del euskera, no me han concedido ninguno, por lo que sigo igual o peor cada día que pasa”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

Edonola ere, balorazio negatiboa egin dutenen artean bada “ez euskaldunak” diskriminatuta daudela adierazten duenik edota hautaketa prozesuetan euskararen ezagutza baloratzearen kontra agertzen denik.

“Se penaliza al que no conoce euskera en su carrera profesional. Se exige unos niveles desmedidos a sponables PL4 que es como de traductor y todo son horas de estudio, que luego no usan para nada. Es un retroceso de cara a una sociedad donde prima el castellano e inglés y donde cada vez hay mas personas de otras culturas en el Pais Vasco y que no se piensa hacia donde va la demografía. Un despilfarro total” (Erakunde Autonomiaduna)

- Euskararen erabilerak behera egin duen hainbat kasu ere jasotzen dira, kasuren batean, euskara hutsez funtzionatzetik ele biz egitera pasa direlako eta, besteren batean, ordezkari politikoek euskara baztertu egin dutelako eta erabilera murriztu eta euskararen kalitatea txarragotu egiten dute, erabiltzeari utzi zaiolako.

“Lehen euskara zelako lan eta zerbitzu hizkuntza bakarra eta gaur egun hori aldatzen ari da. Zerbitzu hizkuntza euskara eta gaztelania bihurtzen ari da eta langile batzuk gaztelaniaz sortzen hasi dira”. (Bizkaia. Udala)

“Hemos pasado de comunicarnos con frecuencia en euskera a hacerlo puramente en castellano, aún cuando la mayoría tiene un perfil 3”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Gero eta gutxiago erabiltzen dugu euskera. Gure zuzendaritzan langile mugimendu asko dago eta momentu honetan gaztelania erabiltzeko joera handitu da euskaldunzahar gutxiago gaudelako”. (Eusko Jaurlaritzako Saila)

“Dana euskaraz egitetik, gauza batzuk elebiz egitera pasatu baitgara (bandoa, pleno deialdiak, komunikazio kanala elebiz,..)” (Bizkaia. Udala)

“Euskaldunak ez ziren eta ez diren zinegotziek euskara bigarren maila batera eraman izan dute udal barruan, eta horrek, eragin izugarria izan du erakundearen jardunean eta baita euskararen kalitatean ere”. (Gipuzkoa. Udala)

Amaitzeko, herri oso euskaldunetako hainbat solaskidek euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izatea zailtzen duten bi faktore aipatzen dituzte:

- Azken urteetan nonbait, errepikatzen ari den faktore bat: lan-poltsatik, —batik bat— udaran herrira doazen udaltzainak, maiz, herriarekin loturarik ez duten eta euskara erabiltzen ez duten profesionalak izatea. Eta udalak prestakuntza eskaintzeko prest azaldu arren, berehala beste destino bat hartzen dutenak.

“Arkauteko lan-poltsatik datozen udaltzainak perfildunak izan arren, euskara ez darabilte behin eta berriro esanagatik eta formazioa jaso bezain laster, badoaz beste herri batera ala ertzaintzara. Udaltzainen profila erabat aldatu da azken urteetan, lehen denak ziren herrikoak eta egun gehienak Bizkaitik datoz, baina, etorri baino lehen badoaz, herritarrek, udalak... zer dion ez zaie inporta”.(Gipuzkoa. Udala)

“Aipamen berezia egin nahi dugu Udaltzaingoaren kasuan. Zarautz bezalako herri batek uda garaian beste 20 udaltzain kontratatzen ditu, eta guztiak Arkauteko deialdi bateratutik datoz. Udalak 2. HE eskatzen die, baina 2.HE egiaztatuta izan arren, egoera soziolinguistiko hain desberdinetatik datozen langile horietako askok ez daukate nahiko gaitasun gure herritarrekin normaltasun osoz euskaraz jarduteko. Ez dute ez gaitasunik ez euskaraz egiteko ohiturarik ere. Arazo handia izaten da urtez urte, eta kexa ugari jasotzen ditugu, herritarrek administrazioari euskarazko zerbitzua eskatzen baitiote”.(Gipuzkoa. Udala)

“Udaltzaingoan maila asko apaldu da azken urteotan. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten eta lana euskaraz egiteko gai ez diren lankideak egokitu zaizkigu aldi baterako ordezkapenetan, horietako gehienak zerbitzu zentralizatuaren bitartez hartutakoak. Prestakuntza indartu beharko litzateke oro har: laneko ikastaroak euskaraz, maila berreskuratzeko birziklatzeko saioak, udalerrri euskaldunetara (bereziki UEMAkoetara) datozenei maila handiagoa (edo erreala) egiaztatzea eskatu, etab”. (Gipuzkoa. Udala)

- Eta udal langileen belaunaldi aldaketak langile euskaldunen pisua areagotzea ekar dezake kasu batzuetan (testuinguru ez euskaldunetan aipatu da); aldiz, euskaraz lan egiten duten erakundeetan, beste testuingurutatik udalera lanera iristen diren langile berriei erakundearen hizkuntza irizpideak eta eguneroko praktika transmititu eta beraiek inplikatzeko erronka gisa bizi da .

Udal langileei dagokienez, aipagarria da belaunaldi aldaketaren eragina azken urteetan. Izan ere, jubilazio ugari gertatzen ari da eta langile berri ugari ari dira sartzen udalean. Horrek ekarri du lehen herrikoak ziren hainbat langileren ordezkapenak hainbat langile udalean lanean hastea, eta guretzat ere erronka handia da beste errealitate soziolinguistiko batzuetatik datozen langile horiek Zarauzko euskararen egoera ezagutzea (arnasgune izateak dakartzan aukerak eta erronkak...) eta Zarauzko Udalaren hizkuntza erronkak barneratzea. (Gipuzkoa. Udala)

6. Hizkuntza adierazleen taula

6.1. ADMINISTRAZIO OROKORRA: ADIERAZLEAK OROTARA ETA ERAKUNDE ESPARRU, LURRALDE HISTORIKO ETA 86/1997 DEKRETUAK EZARTZEN DUEN DERRIGORTASUN INDIZEAREN ARABERA

ZERBITZU HIZKUNTZA																	
		Guztira	Erakunde esparrua								Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak, mankomunitateak, udalak						
			< 5 mila biztanleko udalak	>5 mila biztanleko udalak	Hiri-urak	Mankom., kuadrillak	Udaak+ mankomunitateak guztira	Foru Aldundiak	EJ+ erak. Auton.	Erak. publiko indep.	Lurralde Historikoa				86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea		
											Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	<% 45	% 45-70	>% 70
Jendaurreko ekitaldietan, euskaraz azalduko informazioaren ehunekoa	%	69,1	72,9	70,7	82,2	79,2	72,7	53,0	49,3	59,3	35,2	88,9	71,3	72,3	33,1	74,6	94,8
Erakundeak herritarri begira antolatutako ikastaroetatik, batez beste zenbat eskaintzen dira euskaraz:	%	60,2	72,0	56,6	37,2	60,0	63,2	20,6	39,4		25,2	83,3	54,5	62,9	20,6	55,8	90,1
Herritarri begira antolatutako jardueretan, euskaraz azalduko informazioaren ehunekoa	%	85,0	87,5	81,7	83,3	91,0	85,3	78,7	83,7	85,0	78,1	91,1	81,8	85,1	72,79	80,9	94,8
Telefono bidezko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen ditu herritarrek (batez besteko %)	Euskaraz	58,2	74,1	71,5	42,9	69,1	62,8	51,4	53,6	60,7	29,2	85,4	53,3	59,4	38,1	68,7	94,0
	Ele bietan	12,7	5,4	10,1	15,1	11,3	11,3	14,9	14,3	10,6	18,2	4,4	15,4	12,3	15,9	12,0	2,3
	Euskaraz eta ele bietan	70,9	79,4	81,6	57,9	80,4	74,0	66,3	67,9	71,3	47,4	89,9	68,7	71,8	54,0	80,7	96,2
	Gaztelaniaz	29,1	20,6	18,4	42,1	19,6	26,0	33,7	32,1	28,7	52,6	10,1	31,3	28,2	46,0	19,3	3,8
Behin hasierako agurra eginda, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (herritarrek hizkuntza hautua esplizitatu arte) (Batez besteko %)	Euskaraz	51,2	62,9	62,1	41,6	63,0	55,8	44,7	45,8	55,9	28,3	75,8	46,2	52,6	33,2	61,2	83,0
	Gaztelaniaz	48,8	37,1	37,9	58,4	37,0	44,2	55,3	54,2	44,1	71,7	24,2	53,8	47,4	66,8	38,8	17,0
Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)		-19,7	-16,5	-19,5	-16,4	-17,5	-18,2	-21,5	-22,1	-15,4	-19,2	-14,1	-22,5	-19,1	-20,8	-19,5	-13,3

		Guztira	Erakunde esparrua								Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak, mankomunitateak, udalak						
											Lurralde Historikoa				86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea		
			< 5 mila biztanleko udalak	>5 mila biztanleko udalak	Hiriburuak	Mankom., kuadrillak	Udalak+ mankom. guztira	Foru Aldundiak	EJ+ erak. Auton.	Erak. publiko indep.	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	<%45	%45-70	>%70
Aurrez aurreko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen ditu herritarrak (batez besteko %)	Euskaraz	55,4	69,2	68,9	40,7	69,3	60,4	43,7	53,4	45,6	27,7	83,1	49,5	55,9	34,2	64,5	94,3
	Ele bietan	11,1	4,4	7,9	14,2	8,5	9,5	15,5	11,0	20,9	12,7	6,1	13,7	11,1	12,0	13,3	2,1
	Euskaraz eta ele bietan	66,5	73,6	76,8	54,9	77,8	69,9	59,2	64,4	66,5	40,4	89,2	63,2	67,0	46,1	77,8	96,3
	Gaztelaniaz	33,5	26,4	23,2	45,1	22,2	30,1	40,8	35,6	33,5	59,6	10,8	36,8	33,0	53,9	22,2	3,7
Behin agurtuta, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (hiritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)	Euskaraz	46,6	59,9	57,4	35,3	58,6	50,8	37,9	43,0	49,7	22,9	74,3	39,7	47,4	26,6	56,1	83,4
	Gaztelaniaz	53,4	40,1	42,6	64,7	41,4	49,2	62,1	57,0	50,3	77,1	25,7	60,3	52,6	73,4	43,9	16,6
Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)		-19,9	-13,7	-19,4	-19,5	-19,2	-19,1	-21,3	-21,4	-16,8	-17,5	-14,9	-23,5	-19,6	-19,6	-21,7	-13,0
Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin, zein hizkuntza erabiltzen du langileak (batez besteko %)	Euskaraz	74,1	81,3	83,9	66,8	80,5	77,3	71,9	68,2	73,6	56,5	92,2	73,6	75,7	62,0	83,1	97,6
	Gaztelaniaz	25,7	18,7	16,1	33,2	19,5	22,7	28,1	30,6	26,4	43,5	7,8	26,4	24,3	38,0	16,9	2,4
Zerbitzu hizkuntza	Euskara %	65,5	73,7	71,3	57,4	73,8	68,6	54,0	56,9	57,7	41,7	85,6	62,4	66,8	43,5	71,3	92,0

LAN HIZKUNTZA

		Guztira	Erakunde esparrua								Lurralde Historikoa				86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea		
			< 5 mila biztanleko udalak	>5 mila biztanleko udalak	Hiriburuak	Mankom., kuadrillak	Udalak+man komun. guztira	Foru Aldundiak	EJ+erak. auton	Erak publiko indep.	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	<% 45	% 45-70	>% 70
Lanerako testu laburrak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Euskaraz	32,3	53,4	46,9	22,8	42,4	38,4	23,7	26,5	28,3	14,5	63,0	23,3	34,0	15,3	40,4	76,7
	Ele bietan	13,6	11,5	14,0	12,4	14,6	13,2	11,3	16,6	24,5	9,3	13,0	13,8	12,6	13,2	12,9	9,8
	Euskaraz eta ele bietan	45,9	64,8	60,8	35,2	57,0	51,7	35,0	43,1	52,8	23,8	76,0	37,1	46,6	28,5	53,3	86,4
	Gaztelaniaz	54,1	35,2	39,2	64,8	43,0	48,3	65,0	56,9	47,2	76,2	24,0	62,9	53,4	71,5	46,7	13,6
Lanerako testu luzeak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Euskaraz	22,3	50,8	38,4	8,7	36,6	29,9	10,5	12,6	8,3	5,7	48,5	15,4	24,7	8,4	24,9	73,9
	Ele bietan	12,4	10,2	12,3	13,9	8,1	12,5	10,7	14,5	6,4	12,5	15,4	9,6	12,0	11,0	14,4	6,3
	Euskaraz eta ele bietan	34,7	61,0	50,7	22,6	44,7	42,4	21,2	27,2	14,7	18,2	63,9	25,0	36,6	19,5	39,3	80,1
	Gaztelaniaz	65,3	39,0	49,3	77,4	55,3	57,6	78,8	72,8	85,3	81,8	36,1	75,0	63,4	80,5	60,7	19,9
Erakunde barnerako sortutako testuak, zenbatetan iristen zaizkion euskaraz hartzaileari (batez besteko %)	Euskara hutsean	27,4	47,0	42,4	17,4	36,5	33,2	19,7	21,4	20,1	9,4	55,1	20,9	29,2	12,0	33,2	75,6
	Ele bietan	26,4	23,2	26,8	21,2	25,2	24,4	26,6	30,4	46,1	21,9	24,4	26,8	25,0	24,1	28,7	14,6
	Euskaraz eta ele bietan	53,8	70,3	69,2	38,6	61,7	57,6	46,3	51,8	66,2	31,2	79,5	47,7	54,2	36,1	62,0	90,1
	Gaztelaniaz	46,2	29,7	30,8	61,4	38,3	42,4	53,7	48,2	33,8	68,8	20,5	52,3	45,8	63,9	38,0	9,9
Lan bileratan ahoz euskaraz egindakoa (batez besteko %)	Euskaraz	34,3	60,1	52,9	23,5	49,4	42,9	21,8	25,7	31,2	13,4	68,9	24,4	36,6	14,6	42,4	87,8
	Gaztelaniaz	65,7	39,9	47,1	76,5	50,6	57,1	78,2	74,1	68,8	86,6	31,1	75,6	63,4	85,4	57,6	12,2
Hizkuntzen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz (batez besteko %)	Euskaraz	41,0	61,0	55,7	30,4	54,7	47,2	32,3	34,4	40,2	19,1	73,5	31,6	42,8	21,4	50,2	87,7
	Gaztelaniaz	59,0	39,0	44,3	69,6	45,3	52,8	67,7	65,6	59,8	80,9	26,5	68,4	57,2	78,6	49,8	12,3
Hizkuntzen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: aurrez aurre (batez besteko %)	Euskaraz	38,7	57,8	54,9	26,5	53,9	44,6	29,6	33,3	38,3	17,1	71,3	30,3	40,2	19,4	48,5	84,4
	Gaztelaniaz	61,3	42,2	45,1	73,5	46,1	55,4	70,4	66,7	61,7	82,9	28,7	69,7	59,8	80,6	51,5	15,6
Beste herri erakundeetako solaskideekin ahozko harremanetan erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskaraz	49,5	60,8	62,5	37,6	60,7	54,5	41,8	42,8	46,9	28,3	78,5	40,7	51,3	30,2	58,2	87,4
	Gaztelaniaz	50,5	39,2	37,5	62,4	39,3	45,5	58,2	57,2	53,1	71,7	21,5	59,3	48,7	69,8	41,8	12,6
Erakunde pribatu eta beste entitateetako solaskideekin ahozko harremanetan erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskaraz	33,0	50,1	43,0	21,7	43,0	36,5	28,9	27,3	26,2	14,7	62,0	23,0	34,6	15,1	41,9	68,2
	Gaztelaniaz	67,0	49,9	57,0	78,3	57,0	63,5	71,1	72,7	73,8	85,3	38,0	77,0	65,4	84,9	58,1	31,8

KUDEAKETA																	
		Guztira	Erakunde esparrua				Lurralde Historikoa				86/1997 Dekretuak ezartzen duen derrigortasun indizea						
			< 5 mila biztanleko udalak	>5 mila biztanleko udalak	Hiriburuak	Mankom., kuadrillak	Udalak+mankom. guztira	Foru Aldundiak	EJ+erak. Auton.	Erak. publiko indep.	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	<% 45	% 45-70	>% 70
Lanari lotutako idazkiak sortzeko erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskara hutsean	24,7	45,2	37,9	15,7	35,9	30,1	17,2	19,6	19,9	9,0	53,0	16,8	26,2	9,8	31,2	68,7
	Ele bietan	13,8	11,6	16,2	11,1	13,2	13,8	10,4	17,4	21,5	9,8	14,9	12,7	12,8	11,5	14,0	12,8
	Euskaraz+ele bietan	38,6	56,8	54,1	26,9	49,1	43,9	27,6	37,0	41,4	18,8	67,9	29,6	39,0	21,3	45,2	81,5
	Gaztelaniaz	61,4	43,2	45,9	73,1	50,9	56,1	72,4	63,0	58,6	81,2	32,1	70,4	61,0	78,7	54,8	18,5
Erakundeak langileei begira antolatutako ikastaroetatik, zenbat eskaintzen dira euskaraz	%	52,6	72,8	53,1	21,0	55,7	58,1	25,5	33,2	43,0	14,8	77,6	47,5	57,1	8,1	54,9	86,1
Lan hizkuntza	Euskara %	42,2	61,6	55,7	28,4	53,0	47,9	31,0	35,6	40,1	19,9	71,9	33,7	43,9	21,4	49,6	84,0
Guztira	Euskara %	52,5	67,0	62,6	41,3	62,2	57,1	41,2	45,1	47,9	29,6	78,0	46,4	54,1	31,2	59,2	87,6
Bilakaerari buruzko balorazioa (%)	Oso positiboa	12,1	25,9	20,1	6,9	14,1	15,4	6,4	9,6	17,3	4,9	26,1	7,5	12,7	5,0	13,6	38,0
	Positiboa	43,4	41,5	46,4	40,9	41,3	43,7	45,1	40,5	51,3	36,9	53,0	41,7	44,1	33,4	52,5	51,9
	Ez negatibo ez positiboa	24,5	14,3	17,0	27,9	29,3	21,4	28,5	28,2	21,7	37,2	11,3	25,3	23,6	33,0	19,2	5,2
	Negatiboa	8,7	6,8	6,2	8,9	9,8	7,4	8,7	12,3	7,3	9,6	3,9	9,4	7,8	10,9	6,0	3,1
	Oso negatiboa	2,1	0,7	2,3	2,5	2,2	2,2	1,9	2,0	0,3	2,5	0,2	3,2	2,1	4,0	0,9	0,0
	Zehaztu gabe	9,2	10,9	8,1	12,8	3,3	9,9	9,4	7,4	2,0	8,9	5,4	12,8	9,7	13,7	7,9	1,8
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

6.2. ADMINISTRAZIO OROKORRA: ADIERAZLEAK OROTARA ETA LANGILEAREN GENERO, ADIN-TARTE ETA EUSKARA GAITASUNAREN ARABERA

ZERBITZU HIZKUNTZA														
		Guztira ⁴	Generoa			Adin tartea				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna				
			Emakumezkoak	Gizonezkoak	Ez bitarrak	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ezer ez	Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi
Telefono bidezko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen ditu herritarrak (batez besteko %)	Euskaraz	58,2	59,4	56,0	63,8	54,6	59,4	62,0	53,6	4,0	8,6	25,2	54,2	77,9
	Ele bietan	12,7	11,3	15,1	9,7	14,6	16,2	11,8	11,5	0,9	9,6	19,0	18,2	9,9
	Euskaraz eta ele bietan	70,9	70,7	71,1	73,5	69,2	75,6	73,8	65,1	4,9	18,2	44,2	72,4	87,7
	Gaztelaniaz	29,1	29,3	28,9	26,5	30,8	24,4	26,2	34,9	95,1	81,8	55,8	27,6	12,3
Behin hasierako agurra eginda, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)	Euskaraz	51,2	50,5	52,5	68,4	48,0	54,4	53,9	47,5	1,4	2,7	15,7	47,7	70,7
	Gaztelaniaz	48,8	49,5	47,5	31,6	52,0	45,6	46,1	52,5	98,6	97,3	84,3	52,3	29,3
Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)		-19,7	-20,3	-18,6	-5,1	-21,3	-21,2	-19,9	-17,6	-3,5	-15,6	-28,6	-24,7	-17,0
Aurrez aurreko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen ditu herritarrak (batez besteko %)	Euskaraz	55,4	56,0	54,7	42,2	58,2	57,0	58,4	50,8	1,6	11,6	23,6	51,1	75,8
	Ele bietan	11,1	9,2	14,1	30,6	9,6	16,0	10,7	8,9	0,6	6,0	16,9	12,8	10,0
	Euskaraz eta ele bietan	66,5	65,2	68,8	72,7	67,7	73,0	69,0	59,7	2,2	17,6	40,6	63,9	85,8
	Gaztelaniaz	33,5	34,8	31,2	27,3	32,3	27,0	31,0	40,3	97,8	82,4	59,4	36,1	14,2
Behin agurtuta, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)	Euskaraz	46,6	45,9	47,6	59,2	44,7	49,8	49,6	43,5	0,1	2,7	14,1	40,9	67,7
	Gaztelaniaz	53,4	54,1	52,4	40,8	55,3	50,2	50,4	56,5	99,9	97,3	85,9	59,1	32,3
Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)		-19,9	-19,3	-21,2	-13,6	-23,0	-23,2	-19,4	-16,2	-2,1	-15,0	-26,5	-23,0	-18,1
Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin, zein hizkuntza erabiltzen du langileak (batez besteko %)	Euskaraz	74,1	74,0	74,3	78,6	90,8	84,2	76,2	62,7	0,5	4,4	43,5	83,1	94,3
	Gaztelaniaz	25,7	25,8	25,5	21,4	9,2	15,7	23,6	36,9	99,5	95,0	56,1	16,6	5,5
Zerbitzu hizkuntza ⁵		%	65,5	61,3	62,9	70,5	64,1	67,4	64,5	55,7	1,9	9,1	31,6	61,6

⁵ Zerbitzu eta lan hizkuntza guztira kontuan hartuta daude irudierekin eta prestakuntza hizkuntzarekin solaskideak emandako datuak, baina horiek ez dira kontuan hartzen langileen ezaugarriei buruzko adierazleak kalkulatzeko.

		Guztira	Generoa			Adin tartea				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna				
			Emakumezkoak	Gizonezkoak	Ez bitarrak	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ezer ez	Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi
Beste herri erakundeetako solaskideekin ahozko harremanetan erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskaraz	49,5	51,2	46,3	77,6	60,2	53,8	49,7	44,2	0,0	0,2	10,5	39,0	72,1
	Gaztelaniaz	50,5	48,8	53,7	22,4	39,8	46,2	50,3	55,8	100,0	99,8	89,5	61,0	27,9
Erakunde pribatu eta beste entitateetako solaskideekin ahozko harremanetan erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskaraz	33,0	35,3	29,5	31,8	32,1	35,8	33,6	31,4	0,1	0,2	5,9	23,9	49,7
	Gaztelaniaz	67,0	64,7	70,5	68,2	67,9	64,2	66,4	68,6	99,9	99,8	94,1	76,1	50,3
KUDEAKETA														
		Guztira	Generoa			Adin tartea				Euskaraz idazteko gaitasuna				
			Emakumezkoak	Gizonezkoak	Ez bitarrak	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ezer ez	Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi
Lanari lotutako idazkiak sortzeko erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskara hutsean	24,7	24,1	25,9	31,2	20,1	27,8	24,8	24,0	0,1	1,3	4,9	18,4	40,5
	Ele bietan	13,8	14,8	11,9	20,4	14,9	13,7	15,7	11,9	5,7	1,7	8,3	16,1	16,8
	Euskaraz+ele bietan	38,6	38,9	37,8	51,7	35,0	41,4	40,5	36,0	5,8	3,1	13,1	34,5	57,3
	Gaztelaniaz	61,4	61,1	62,2	48,3	65,0	58,6	59,5	64,0	94,2	96,9	86,9	65,5	42,7
Lan hizkuntza	Euskara %	42,2	42,1	39,1	56,4	41,3	43,9	42,6	38,2	2,9	3,7	13,2	34,7	59,9
Guztira	Euskara %	52,5	48,9	47,6	61,4	49,5	52,3	50,4	44,5	2,5	5,6	19,8	44,3	67,5
		Guztira	GENEROA			ADIN TARTEA				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna				
			Emakumezkoak	Gizonezkoak	Ez bitarrak	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
Bilakaerari buruzko balorazioa (%)	Oso positiboa	12,1	12,7	10,9	12,8	14,8	13,1	12,3	11,5	17,8	8,9	4,2	4,8	5,1
	Positiboa	43,4	40,3	49,3	48,2	37,0	45,7	42,1	47,8	47,4	46,8	40,8	31,9	22,9
	Ez negatibo ez positiboa	24,5	25,0	24,0	7,7	27,8	23,1	28,2	21,8	17,8	26,7	33,9	37,1	47,1
	Negatiboa	8,7	9,3	7,8	0,0	16,2	8,6	8,3	8,6	9,7	8,4	7,9	8,6	5,7
	Oso negatiboa	2,1	1,9	2,5	0,9	0,0	3,9	2,0	1,1	2,9	1,9	0,5	1,9	0,6
	Zehaztu gabe	9,2	10,8	5,5	30,4	4,3	5,6	7,1	9,2	4,4	7,3	12,7	15,7	18,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

7. Bilakaeraren estimazioa

7.1. ARGIBIDEAK: VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioan neurtutako adierazleak eta V. Plangintzaldiaren amaierakoan neurtutakoan arteko aldea

Bi neurketetan jasotako emaitzak ez dira zuzen-zuzenean alderagarriak, kasu batzuetan galderaren formulazioa aldatu delako, eta beste batzuetan erantzuna emateko modua. Hurbilpen edo estimazio modura interpretatu behar dira. Izan ere, kontuan hartu beharko da:

- a) Zerbitzu hizkuntzan eta kanpo harremanetako ahozko harremanetan administrazioko langileak euskara zenbateraino eskaintzen duen jakitea helburua lortzeko (soilik edo gaztelaniarekin batera) erantzun aukerak birformulatu egin dira.

V. Plangintzaldiaren amaierako galdesortan, ahozko erabileraren inguruko galderak 0tik 10erako eskala batean planteatzen ziren, non 0k “erabat gaztelaniaz” adierazten zuen, 10ek “erabat euskaraz” eta 5ek “euskara gaztelania bezainbeste”.

Oraingoan, aldiz, portzentualki, agurrei dagokienez (telefonoz eta aurrez aurre), zenbatetan egiten duen euskara hutsean, zenbatetan ele bietan eta zenbatetan gaztelania hutsean galdetu zaio langileari. Eta euskarazko eskaintza euskara hutsez egindakoa eta ele bietan egindakoa izango da.

Behin agurtuta, elkarrizketa zein hizkuntzatan eskaintzen duen galderak (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte) bi aukera eskaintzen ditu: euskaraz eta gaztelaniaz.

Hori dela eta, V. Plangintzaldiaren telefonoz eta aurrez aurreko lehen hitzaren adierazleak birkalkulatu egin dira: oraingo formulazioan izango luketen balioaren estimazioa egin da. Beraz, hurbilpena da.

- b) Idatzizko erabileraren inguruko galderetan, galderaren formulazioa aldatu egin da azpimarra “hartzaileek testua zein hizkuntzatan jasotzen zuten” egiten zelako V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan, eta orain, aldiz, langileari berak “zein hizkuntzatan sortzen” duen galdetzen zaio.
- c) Erakundearen irudiaren inguruan, solaskideak betetako galdetegian, galdetu da jendaurreko ekitaldietan eta herritarrari zabalduetako jardueretan zenbat informazio unitate zabaldu diren euskaraz eta zenbat erdaraz. Hizkuntza bakoitzean azalduetako informazio kopuruaz ari gara, ez hizkuntza batean edo bestean hitz egindako denboraz. Informazioa horrela biltzeak erabilera orekatua neurtzeko aukera ematen du (informazioaren erdia euskaraz, eta beste erdia gaztelaniaz eskaintzeari deritzo HPSk erabilera orekatua).

**V. PLANGINTZALDIAREN AMAIERAKO EBALUAZIOAN BILDUTAKO ADIERAZLEEN ETA
VI. PLANGINTZALDIAREN TARTEKOAN JASOTAKOEN ARTEKO ALDEA**

			VI. Plang. Tarteko Ebaluazioaren galdetegia		V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan antzekoena zen adierazlea	Oharra
			Nori zuzentzen zaion	Galdetegi ko galdera zk.		
1. ZERBITZU-HIZKUNTZA						
1. Erakunde-aren irudia	1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak	Jendaurreko ekitaldiak	Solaskidea	2	1.2.5.	Ez dira zuzen-zuzenean konparagarriak; lehen langileei galdetu zitzairen, orain solaskideari. Eta datua eskatzeko modua ere desberdina da.
		Herritarrari begira antolatutako jarduerak (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak)	Solaskidea	5		Berria
		Herritarrari begira antolatutako ikastaroak	Solaskidea	8		Berria
2. Bezeroeekiko eta herritarrekiko harremanak	2.2.1. Harrera	Telefonoz	Langilea	2		Berria
		Aurrez aurre	Langilea	5		Berria
	2.2.2. Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	Telefonoz lehen hitza	Langilea	2	2.2.1	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./elebi/gazt.
		Aurrez aurre lehen hitza	Langilea	5	2.2.2.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./elebi/gazt.
		Telefonoz elkarriketa eskainitako hizkuntza	Langilea	3	2.2.5.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gazt.
		Aurrez aurre elkarriketa eskainitako hizkuntza	Langilea	6	2.2.6.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gazt.
	2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	Langilea	7	2.2.7.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gazt.	
2. LAN-HIZKUNTZA						
3. Barne komunikazioa eta lan tresnak	3.3.1. Erakundearen barne harremanetarako idatziak	Barne komunikaziorako testu laburren jatorrizko hizkuntza	Langilea	8b	3.1.2	Lehen azpimarra erakundeak "bidalitako hizkuntzan" egin zen; orain langileak "sortzeko" erabiliitako hizkuntzan
		Barne komunikaziorako testu luzeen jatorrizko hizkuntza	Langilea	9b	3.1.2	Lehen azpimarra erakundeak "bidalitako hizkuntzan" egin zen; orain langileak "sortzeko" erabiliitako hizkuntzan
		Hartzaileari zein hizkuntzatan iristen zaizkion testu labur eta luze horiek	Langilea	10	3.1.2.	Lehen azpimarra erakundeak "bidalitako hizkuntzan" egin zen; orain langileak "sortzeko" erabiliitako hizkuntzan
	3.3.2. Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak	Barruko lan bileretako ahozkoak	Langilea	11b	3.2.1.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gazt.
	3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	Erakundearen barruko telefonozko harremanak	Langilea	12b	3.2.2.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gazt. Ez zen bereizten telefonoz eta aurrez aurre
		Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	Langilea	13b	3.2.2.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gazt. Ez zen bereizten telefonoz eta aurrez aurre

			VI. Plang. Tarteko Ebaluazioaren galdetegia		V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan antzekoena zen adierazlea	Oharra
			Nori zuzentzen zaion	Galdetegi-ko galderazkia		
2. LAN-HIZKUNTZA						
4. Pertsonen kudeaketa	4.1. Laneko prestakuntza	Laneko prestakuntza euskaraz zenbateraino egiten da?	Solaskidea	10	4.1.3	Lehen langileari galdetu zitzaion. Orain solaskideari.
5. Kanpo harremanak	5.1. Beste herri administrazioarekin ahozko harremanak	Ahozko harremanak beste herri administrazioekin (hari zuzentzen zarenean)	Langilea	14b	5.1.5.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk/gazt
	5.2. Erakunde pribatu eta beste entitateekiko ahozko harremanak	Ahozko harremanak enpresa/entitate pribatuekin (hari zuzentzen zarenean)	Langilea	15b	5.2.5.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk/gazt
6. Kudeaketa sistema	6.1. Sortze-hizkuntza	Oro har, lanari lotutako idatziak sortutako hizkuntza	Langilea	16	6.1.1	Zuzenean konparagarriak dira

7.2. UDALAK ETA MANKOMUNITATEAK/KUADRILLAK

Adierazleak				Udalak+mankomunitateak guztira			Guztira	
				V. Plangintzaldiar en Amaierako Ebaluazioa (2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020-2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	
1. ZERBITZU HIZKUNTZA	1. Erakundearen irudia	Jendaurreko ekitaldiak	Jendaurreko ekitaldiak	Euskaraz %		72,7		69,1
			Herritarari begira antolatutako jarduerak (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak)	Euskaraz %		85,3		85,0
			Herritarari begira antolatutako ikastaroak	Euskaraz %		63,2		60,2
	2.- Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	Telefonoz lehen hitza		Euskara hutsean %		62,8		58,2
				Ele bietan %		11,3		12,7
				Euskara+ele bietan %	78,9	74,0	-4,9	70,7
		Aurrez aurre lehen hitza		Euskara hutsean %		60,4		55,4
				Ele bietan %		9,5		11,1
				Euskara+ele bietan %	71,2	69,9	-1,3	66,5
		Telefonoz elkarriketa eskainitako hizkuntza		Euskaraz %		55,8		51,2
		Aurrez aurre elkarriketa eskainitako hizkuntza		Euskaraz %		50,8		46,6
	Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak		Euskaraz %	75,0	77,3	2,3	74,1	
	Zerbitzu hizkuntza		Euskaraz %		68,6		65,5	
	2. LAN HIZKUNTZA	3. Barne komunikazioa	Erakundearen barne harremanetarako idatziak	Barne komunikaziorako testu laburren jatorrizko hizkuntza	Euskara hutsean %		38,4	
Ele bietan %						13,2		13,6
Euskara+ele bietan %						51,7		45,9
Hartzaileari zein hizkuntzatan iristen testu labur eta luze horiek				Euskara hutsean %		29,9		22,3
				Ele bietan %		12,5		12,4
				Euskara+ele bietan %		42,4		34,7
				Euskara hutsean %	27,3	33,2	5,9	27,4
Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak				Ele bietan %	31,0	24,4	-6,6	26,4
				Euskara+ele bietan %	58,3	57,6	-7	53,8
				Euskaraz %	37,4	42,9	5,5	34,3
Erakundearen barruko harremanak		Telefonozko harremanak	Euskaraz %		47,2		41,0	
		Aurrez aurreko harremanak	Euskaraz %	41,0	44,6	3,6	38,7	
4. Pertsonen kudeaketa	Laneko prestakuntza		Euskaraz zenbateraino egiten da?	Euskaraz %		58,1		52,6

Adierazleak				Udalak+mankomunitateak guztira			Guztira	
				V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020-2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	
2. LAN HIZKUNTZA	5. Kanpo harremanak	Beste herri administrazioar ekin ahozko harremanak	Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz %	50,8	54,5	3,7	49,5
		Erakunde pribatu eta beste entitateekiko ahozko harremanak	Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz %	35,4	36,5	1,1	33,0
	6. Kudeaketa sistema	Sortze hizkuntza	Oro har, lanari lotutako idatziak sortutako hizkuntza	Euskara hutsean %	26,9	30,1	3,2	24,7
				Ele bietan %	16,3	13,8	-2,5	13,8
				Euskara+ele bietan %	43,2	43,9	,7	38,6
	Lan hizkuntza				Euskaraz %		47,9	42,2
	Guztira				Euskaraz%		57,1	52,5
Euskara gaitasuna		Euskaraz hitz egin	Nahiko ongi+ongi %	68,1	73,6	5,5	71,2	
		Euskaraz idatzi	Nahiko ongi+ongi %	63,6	72,3	8,7	70,6	
Erakunde euskararen erabilera duen bilakaerari buruzko balorazioa		Positiboa	Oso positiboa+positiboa %	55,2	59,1	3,9	55,5	
		Negatiboa	Oso negatiboa+negatiboa %	9,4	9,6	,2	10,8	

7.3. FORU ALDUNDIAK

Adierazleak				Foru aldundiak			Guztira	
				V. plangintzaldia-aren amaierako ebaluazioa (2018)	VI. plangintzaldia-aren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020-2018)	VI. Plangintzaldia-aren Tarteko Ebaluazioa (2020)	
1. ZERBITZU HIZKUNTZA	1. Erakundearen irudia	Jendaurreko ekitaldiak	Jendaurreko ekitaldiak	Euskaraz %		53,0	69,1	
			Herriarrari begira antolatutako jarduerak (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak)	Euskaraz %		78,7	85,0	
			Herriarrari begira antolatutako ikastaroak	Euskaraz %		20,6	60,2	
	2.- Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	Telefonoz lehen hitza		Euskara hutsean%		51,4	58,2	
				Ele bietan%		14,9	12,7	
				Euskara+ele bietan %	68,1	66,3	-1,8	70,7
		Aurrez aurre lehen hitza		Euskara hutsean%		43,7	55,4	
				Ele bietan%		15,5	11,1	
				Euskara+ele bietan %	64,6	59,2	-5,4	66,5
		Telefonoz elkarrizketa eskainitako hizkuntza		Euskaraz%		44,7	51,2	
Aurrez aurre elkarrizketa eskainitako hizkuntza		Euskaraz%		37,9	46,6			
Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak		Euskaraz%	70,9	71,9	1,0	74,1		
Zerbitzu hizkuntza				Euskaraz%		54,0	65,5	
2. LAN HIZKUNTZA	3. Barne komunikazioa	Erakundearen barne harremanetarako idatziak	Barne komunikaziorako testu laburren jatorrizko hizkuntza	Euskara hutsean %		23,7	32,3	
				Ele bietan %		11,3	13,6	
				Euskara+ele bietan %		35,0	45,9	
			Barne komunikaziorako testu luzeen jatorrizko hizkuntza	Euskara hutsean %		10,5	22,3	
				Ele bietan %		10,7	12,4	
				Euskara+ele bietan %		21,2	34,7	
			Hartzaileari zein hizkuntzatan iristen testu labur eta luze horiek	Euskara hutsean %	11,1	19,7	8,6	27,4
				Ele bietan %	31,2	26,6	-4,6	26,4
		Euskara+ele bietan %	42,3	46,3	4,0	53,8		
	Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak		Euskaraz %	24,5	21,8	-2,7	34,3	
	Erakundearen barruko harremanak	Telefonozko harremanak		Euskaraz %		32,3	41,0	
			Aurrez aurreko harremanak	Euskaraz %	33,6	29,6	-4,0	38,7
	4. Pertsonen kudeaketa	Laneko prestakuntza		Euskaraz zenbateraino egiten da?	Euskaraz %		25,5	52,6
5. Kanpo harremanak	Beste herri administrazioarekin ahozko harremanak		Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz %	40,7	41,8	1,1	49,5
	Erakunde pribatu eta beste entitateekiko ahozko harremanak		Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz %	27,3	28,9	1,6	33,0

				Foru aldundiak			Guzfira	
				V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020- 2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	
2. LAN HIZKUNTZA	6. Kudeaketa sistema	Sortze hizkuntza	Oro har, lanari lotutako idatziak sortutako hizkuntza	Euskara hutsean %	19,4	17,2	-2,2	24,7
				Ele bietan %	18,0	10,4	-7,6	13,8
				Euskara+ele bietan %	37,4	27,6	-9,8	38,6
Lan hizkuntza				Euskaraz %		31,0		42,2
Guzfira				Euskaraz %		41,2		52,5
Euskara gaitasuna		Euskaraz hitz egin		Nahiko ongi + ongi %	66,3	70,4	4,1	71,2
		Euskaraz idatzi		Nahiko ongi + ongi %	65,7	71,6	5,9	70,6
Erakundearen euskararen erabilerak duen bilakaerari buruzko balorazioa		Positiboa		Oso positiboa+ positiboa %	44,6	51,4	6,8	55,5
		Negatiboa		Oso negatiboa+ negatiboa %	12,0	10,6	-1,4	10,8

7.4. EUSKO JAURLARITZAKO SAIL ETA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAK

Adierazleak				Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunak			Guztira	
				V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020-2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	
1. ZERBITZU HIZKUNTZA	1. Erakundearen irudia	Jendaurreko ekitaldiak	Jendaurreko ekitaldiak	Euskaraz %		49,3		69,1
			Herritarrari begira antolatutako jarduerak (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak)	Euskaraz %		79,5		85,0
			Herritarrari begira antolatutako ikastaroak	Euskaraz %		37,4		60,2
	2. Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	Telefonoz lehen hitza		Euskara hutsean %		53,6		58,2
				Ele bietan %		14,3		12,7
				Euskara+ele bietan %	74,5	67,9	-6,6	70,7
		Aurrez aurre lehen hitza		Euskara hutsean %		53,4		55,4
				Ele bietan %		11,0		11,1
				Euskara+ele bietan %	66,7	64,4	-2,3	66,5
		Telefonoz elkarrizketa eskainitako hizkuntza		Euskaraz %		45,8		51,2
Aurrez aurre elkarrizketa eskainitako hizkuntza		Euskaraz %		43,0		46,6		
Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak		Euskaraz %	70,2	68,2	-2,0	74,1		
Zerbitzu hizkuntza			Euskaraz %		56,9		65,5	
2. LAN HIZKUNTZA	3. Barne komunikazioa	Erakundearen barne harremanetarako idatziak	Barne komunikaziorako testu laburren jatorrizko hizkuntza	Euskara hutsean %		26,5		32,3
				Ele bietan %		16,6		13,6
				Euskara+ele bietan %		43,1		45,9
			Barne komunikaziorako testu luzeen jatorrizko hizkuntza	Euskara hutsean %		12,6		22,3
				Ele bietan %		14,5		12,4
				Euskara+ele bietan %		27,2		34,7
			Hartzaileari zein hizkuntzatan iristen testu labur eta luze horiek	Euskara hutsean %	18,6	21,4	2,8	27,4
				Ele bietan %	32,9	30,4	-2,5	26,4
				Euskara+ele bietan %	51,5	51,8	,3	53,8
		Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak		Euskaraz %	25,8	25,7	-,1	34,3
Erakundearen barruko harremanak		Telefonozko harremanak	Euskaraz %		34,4		41,0	
		Aurrez aurreko harremanak	Euskaraz %	35,4	33,3	-2,1	38,7	
4. Pertsonen kudeaketa	Laneko prestakuntza		Euskaraz zenbateraino egiten da?	Euskaraz %		33,2		52,6
5. Kanpo harremanak	Beste herri administrazioarekiko ahozko harremanak		Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz %	42,7	42,8	,1	49,5

Adierazleak	Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunak	Guztira
-------------	--	---------

				V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020-2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	
2. LAN HIZKUNTZA	5. Kanpo harremanak	Erakunde pribatu eta beste entitateekiko ahozko harremanak	Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz%	26,5	27,3	,8	33,0
	6. Kudeaketa sistema	Sortze hizkuntza	Oro har, lanari lotutako idatziak sortutako hizkuntza	Euskara hutsean %	20,4	19,6	-,8	24,7
				Ele bietan %	20,9	17,4	-3,5	13,8
				Euskara+ ele bietan %	41,3	37,0	-4,3	38,6
Lan hizkuntza				Euskaraz %	35,6		42,2	
Guztira				Euskaraz %		45,1		52,5
Euskara gaitasuna			Euskaraz hitz egin	Nahiko ongi+ongi %	61,5	65,6	4,1	71,2
			Euskaraz idatzi	Nahiko ongi+ongi %	59,5	64,9	5,4	70,6
Erakunde euskararen erabilerak duen bilakaerari buruzko balorazioa			Positiboa	Oso positiboa+positiboa %	44,8	50,1	5,3	55,5
			Negatiboa	Oso negatiboa+negatiboa %	13,3	14,3	1,0	10,8

7.5. GUZTIRA HERRI ADMINISTRAZIO OROKORRA

Adierazleak				Guztira herri administrazio orokorra			
				V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2018)	VI. plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020-2018)	
1. ZERBITZU HIZKUNTZA	1. Erakundearen irudia	Jendau-reko ekital-diak	Jendaurreko ekitaldiak	Euskaraz %		69,1	
			Herritarari begira antolatutako jarduerak (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak)	Euskaraz %		85,0	
			Herritarari begira antolatutako ikastaroak	Euskaraz %		60,2	
	2. Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	Telefonoz lehen hitza		Euskara hutsean %		58,2	
				Ele bietan %		12,7	
				Euskara+ele bietan %	76,8	70,7	-6,1
		Aurrez aurre lehen hitza		Euskara hutsean %		55,4	
				Ele bietan %		11,1	
				Euskara+ele bietan %	69,9	66,5	-3,4
		Telefonoz elkarrizketa eskainitako hizkuntza	Euskaraz %		51,2		
	Aurrez aurre elkarrizketa eskainitako hizkuntza	Euskaraz %		46,6			
	Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	Euskaraz %	72,4	74,1	1,7		
	Zerbitzu hizkuntza				Euskaraz %		65,5
2. LAN HIZKUNTZA	3. Barne komunikazioa	Erakundearen barne harremanetarako idatziak	Barne komunikaziorako testu laburen jatorrizko hizkuntza	Euskara hutsean %		32,3	
				Ele bietan %		13,6	
				Euskara+ele bietan %		45,9	
		Barne komunikaziorako testu luzeen jatorrizko hizkuntza	Euskara hutsean %		22,3		
			Ele bietan %		12,4		
			Euskara+ele bietan %		34,7		
		Hartzaileari zein hizkuntzatan iristen testu labur eta luze horiek	Euskara hutsean %	23,7	27,4	3,7	
			Ele bietan %	31,6	26,4	-5,2	
			Euskara+ele bietan %	55,3	53,8	-1,5	
	Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak	Euskaraz %	33,5	34,3	,8		
	4. Pertsonen kudeaketa	Erakundearen barruko harremanak	Telefonozko harremanak	Euskaraz %		41,0	
			Aurrez aurreko harremanak	Euskaraz %	39,4	38,7	-,7
	5. Kanpo harremanak	Laneko prestakuntza	Euskaraz zenbateraino egiten da?	Euskaraz %		52,6	
			Beste herri administrazioar ekin ahozko harremanak	Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz %	48,1	49,5
	6. Kudeaketa sistema	Erakunde pribatu eta beste entitateekiko ahozko harremanak	Zer hizkuntzatan zuzentzen zara?	Euskaraz %	32,4	33,0	,6
Sortze hizkuntza			Oro har, lanari lotutako idatziak sortutako hizkuntza	Euskara hutsean %	25,0	24,7	-,3
	Ele bietan %	23,4		13,8	-9,6		
	Euskara+ele bietan %	48,4		38,6	-9,8		
Lan hizkuntza				Euskaraz %		42,2	
Guztira				Euskaraz %		52,5	

Adierazleak			Guztira herri administrazio orokorra		
			V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa (2018)	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa (2020)	Bilakaera (2020-2018)
Euskara gaitasuna	Euskaraz hitz egin	Nahiko ongi+ongi %	67,4	71,2	3,8
	Euskaraz idatzi	Nahiko ongi+ongi %	64,8	70,6	5,8
Erakundearen euskararen erabilerak duen bilakaerari buruzko balorazioa	Positiboa	Oso positiboa+positiboa %	52,3	55,5	3,2
	Negatiboa	Oso negatiboa+negatiboa %	10,7	10,8	,1

8. Ondorioak

Herri erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa eginik, hona eskuratutako datuetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak:

- **Hizkuntza gaitasuna:** Herri administrazioiko langileei galdetu zaie nolako gaitasuna duten lau trebetasunetan (ulermena, irakurmena, idazmena eta mintzamina); erantzundakoaren arabera, hamarretik zortzik ondo edo nahiko ondo ulertzen eta irakurtzen dute; eta hamarretik zazpik hitz egiten eta idazten ondo eta nahiko ondo. Adina faktore erabakigarria da, gaitasunari dagokionez. Zenbat eta adin talde gazteagoa, orduan eta euskara gaitasun handiagoa: 35 urtez beherako ia guztiek adierazi dute gai direla euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko; 55 urtetik gorakoen artean, hamarretik seik. Euskararen erabilera aurrera egiteko urrats sendoa da, zalantzarik gabe. Arazoa da oraindik oso mugatua dagoela gazteen sarbidea: batez besteko adina 51 urtekoa da erakunde esparru osoa hartuta, eta 35 urtez beherakoak % 5 dira. Dena dela, erabilera adierazle askotan adin horretako pertsonen euskararen erabilera portzentajerik txikienak dituzte herri administrazioetan.
- **Irudia:** Herri erakundeek jendaurrean eskaintako ekitaldietan, batez beste, ahoz azalduetako informazioaren % 69,1 eskaintzen dute euskaraz; zertxobait gehiago udal eta mankomunitate/kuadrillak, eta gutxiago aldir erakunde publiko independenteek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak. Herritarrentzat antolatutako ikastaroetatik, batez beste, % 60,2 eskaintzen dira euskaraz; aldir, altuagoa da euskararen presentzia herritarrentzat antolatutako jardueretan (% 85), non, ahozko jardunaz gain, idatzizkoa ere kontuan hartu den.
- **Herritarrekiko ahozko harremanak:** Telefono bidezko harreran, langileek, batez beste, % 70,9tan agurtzen dituzte herritarrak euskaraz (soilik edo ele bietan); aurrez aurreko harreran, zertxobait gutxiagotan: % 66,5. Baina behin agurtuta —eta herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte—, elkarrizketa euskaraz nabarmen gutxiagotan eskaintzen dute (% 51,2tan telefonoz, eta % 46,6tan aurrez aurre). Oro har, udaletan (hiriburuetan izan ezik), mankomunitate/kuadrilletan eta erakunde publiko independenteetan zertxobait gehiago erabiltzen da euskara; foru aldundietan eta Eusko Jaurlaritzan, apur bat gutxiago. Langileen ezaugarriekin lotuta, bi arrakala izan daitezkeenak sumatzen dira: euskaraz ondo dakitenen eta nahiko ondo dakitenen artean dagoen beheranzko jauzia. Eta 35 urtetik beherakoetan, euskara ezagutzetik erabiltzera dagoen jauzia ere aipatzeko modukoa.
- **Euskarazko eskaerari emandako erantzuna.** Zehazki aztertu da ahoz zerbitzua euskaraz eskatu duten herritarrei nola erantzuten dieten erakundeek. Langileek azaldu dutenez, % 74,1ean ematen zaie zerbitzua euskaraz: lautik batean, beraz, erdaraz. Kasu honetan, bai ondo hitz egiten dutenek, baita nahiko ondo egiten dutenek ere euskaraz erantzuten diote herritarraren eskariari eta baita 35 urtez azpiko langileek ere.

- **Lan harremanak, ahozko barne harremanak:** Lankideekiko ahozko harremanetan, telefonoz eta aurrez aurre, euskararen batez besteko erabilera % 40 ingurukoa da. Kasu honetan ez gara lankideak agurtzeaz ari, herritarrekiko harremanetan bezala, beraiekin izandako elkarrizketez baizik. Lan bileretan baxuagoa da erabilera (% 34,3). Udaletan (hiriburuetan izan ezik) eta mankomunitate/kuadrilletan erabiltzen da gehien, erakunde publiko independenteetan ondoren, eta atzetik Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta hiriburuak daude. Euskaraz ondo hitz egiten dutenen artean, lankideekiko harremanean, batez beste, % 61etan egiten dute euskaraz; nahiko ongi egiten dutenen artean portzentajea % 30-% 34 artean dago.
- **Idatzizko barne harremanak:** Lanerako langileek sortutako testu laburrak, batez beste, % 45,9tan sortzen dira euskaraz (soilik edo ele bietan); beraz, erdia baino gehiago erdara hutsean. Testu luzeak euskaraz gutxiago sortzen dira euskaraz (% 34,7tan). Orain ere, udaletan (hiriburuetan izan ezik) eta mankomunitate/kuadrilletan altuagoa da euskaraz sortutako testuen portzentajea eta baxuena foru aldundi eta hiriburuetan. 35 urtez azpikoetan ematen da ezagutza eta erabileraren arteko saltorik handiena: euskaraz ondo/nahiko ondo idazteko gai diren langileen (% 96,1) eta, batez beste, euskaraz sortutako testuen artean (% 46,7 testu laburrak eta % 28,4 testu luzeak). Barne harremanetarako erdaraz sortutako hainbat testu euskaratu egiten dira, eta, oro har, erakunde barnerako sortutako testuen ia % 54 euskaraz iristen zaizkio hartzaileari.
- **Kanpo harremanak: erakundeak vs. enpresak.** Kanpo harremanen arloan, gainerako herri erakundeekin eta harremana duten enpresekin erakundeen ahozko erlazioak nolakoak diren aztertu da. Erakundeekin, % 49,5ekoa da euskararen batez besteko erabilera eta enpresekin, ordea, % 33koa. Hau da, beste herri erakundeetako solaskideekin, euskara batez beste gehiago erabiltzen da lankideekin baino, eta bestelako enpresekin gutxien.
- **Sortze hizkuntza:** Langileen % 70 inguruk diote euskaraz ondo edo nahiko ondo idazteko gai direla; baina sortze hizkuntzan euskaraz askoz pisu gutxiago du: % 38,6koa, euskara hutsez idatzitakoak eta ele biz idatzitakoak kontuan hartuta. Hizkuntza gaitasunak, noski, badu eragina sortze hizkuntzan, euskarazko eta ele bietako produkzioa euskara maila egokia dutenen artean baitago. Ondo idazten dutela diotenetan, bai, gehiago dira euskaraz sortzen dutenak soilik gaztelaniaz aritzen direnak baino: % 57,3 euskaraz edo ele bietan, eta % 42,7 gaztelaniaz. Adinari dagokionez, 36-55 urte artekoek, gaitasun maila apalagoa izan arren, 35 urtez beherakoek baino gehiago sortzen dute euskaraz.
- **Erabileraren bilakaeraren balorazioa:** Langileen erdiak baino gehiagok (% 55,5), bere erakunde euskaraz erabilera positiboa izan duela diote; % 10,8k aldiz, negatiboa; eta % 24,5ek ez positibo, ez negatibo. Balorazio positiboena euskararen erabilera altuagoa den erakunde esparruetan ematen da. Ideia horiek argudiatzeko eskatu zaienean, hona hemen negatiboa eman dutenek adierazitakoa: erabilera eskasari begiratu diote batez ere, bai langileen artean ezagutza zabaldu ez delako, bai erabilera sustatzeko benetako borondaterik ez dagoelako. Baina badira ere beren erakunde euskaraz behera egin duela dioten langileak.

- Aztertutako ebaluazioan zehar landutako adierazle guztien batez bestekoekin, euskarazko zerbitzu hizkuntza, lan hizkuntza eta orotara euskararen adierazle orokorra kalkulatuta, administrazio orokorrean %65,5koa da zerbitzu hizkuntza, %42,2koa lan hizkuntza eta, orotara, euskararen adierazlea %52,5koa da. Erakunde motaren arabera, udal eta mankomunitate/kuadrilletan zertxobait altuagoa da erabilera (5 puntu inguru), eta baxuagoa, aldiz, foru aldundietan (10 puntuz baxuagoa), eta Eusko Jaurlaritzan (6-8 puntu baxuagoa adierazlearen arabera).



B. GAINERAKO SEKTORE PUBLIKOA

1. Metodologia

1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa

Gainerako sektore publikoko erakundeetan, herri administrazio eta erakundeetan erabilitako prozesu eta metodologia oso antzekoa erabili da VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazio egiteko, baina ez iguala.

Batetik, erakunde publikoen unibertsoa bai (HPSk emandakoa), baina erakunde horietan ari ziren langile kopuruaz informazio zehatzik ez genuelako, eta noski, ezta langileak identifikatzeko modurik ere (eta beraz, lagin zehatza kalkulatzeko modurik ez). Unibertsoari dagokionez, 219 erakunde publikoz osatutako unibertsoa dugu⁶. Erakunde horietako gehienak, hirutik bi (% 68,5) merkataritza-sozietateak dira, eta beste % 14,6 fundazioak. Gainerakoak zuzenbide pribatuko erakunde publikoak (% 7,3), irabazi-asmorik gabeko beste erakundeak (% 5,9) edo partzuergoak (% 3,7) dira.

Eta bestetik, lagina diseinatzeko, sektore publikoko erakunde horiei buruz genuen informazioa baliatuz, lagina erakundearen langile kopurua eta eragin eremua hartzen direlako abiapuntu, eta sailkapen horretan oinarrituta banatzen dira elkarriketatuta beharreko erakundeak eta horietako bakoitzean inkestatu beharreko langileak. 800 laguneko lagina osatu da oraingoan, —V. Plangintzaldiaren amaierakoan 400 izan ziren—. Behin lagina estratifikatuta, ausaz hautatutako 65 erakunde publikok osatu dute “lagin titularra”.

Landa lan luze eta konplikatuaren ondoren, 59 erakundetako 800 langileren inkestak bildu dira (errore marjina \pm % 3,4 izanik), eta 61 erakundetako ordezkariena (errore marjina \pm % 10,7)⁷. Laginketa erakundearen eragin esparruaren (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa edo Euskal Autonomia Erkidegoa) eta erakundearen gutxi gorabeherako langile kopuruaren arabera estratifikatzen denez (10 baino gutxiago, 11-30, 31-100 eta 100 baino gehiago), langileen artean egindako inkestak haztatu egiten dira errealitatean duten proportzioak mantentzeko.

Solaskideenak, aldiz, ez dira haztatu, administrazio orokorreko erakundeen azterketan esan bezala, jasotako adierazleen irakurketa egokiagoa ematen duelakoan.

Bestalde, herri administrazio orokorrean erabilitako datu-iturri berak erabili ditugu:

- Erakundeetako ordezkari edo “solaskidearena”: euskara teknikariak, idazkariak...
- Gainerako sektore publikoko erakundeetako langileak.

Bietan jasotako informazioa aztertu eta landu da eta bietatik jasotako emaitzak dira txosten honetan aurkeztutakoak.

⁶ V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan, 164 erakundek osatu zuten unibertsoa. Orduan baino 55 erakunde publiko hartu dira kontuan oraingoan, % 33,5 gehiago.

⁷ Parte hartu duten erakundeen zerrenda ikusgai eranskinetan.

1.2. Fitxa teknikoa

Azaldu berri duguna kontuan hartuz, jarraian egindako landa-lanaren fitxa teknikoa:

a. Unibertsoa

- Gainerako sektore publikoko erakundeak (219, HPSk emandako informazioaren arabera).
- Erakunde horietako langileak (gure estimazioaren arabera, 13.400 langile inguru).

b. Teknika

- Galde-sorta egituratua erabili da, bai erakundeetako ordezkarietako erakundearen beraren informazioa eskatzeko, baita langileak inkestatzeko ere.
- On-line betetzeko inkesta bidali zaie, bai erakundeetako ordezkarietako, baita langileetako ere; baina, on-line betetzeko zailtasunak izan direnean, telefono bidez erantzun dira edo paperean inprimatuta.

c. Inkesta

- Siadecok ikerlan honetarako zehazki diseinaturiko bi galde-sorta egituratu erabili dira, bat, erakundeetako ordezkariak edo "solaskideak" betetzeko, eta bigarrena, langileak betetzeko. HPSko teknikariek adostu dira galdetegiaren galderak eta erantzun modalitateak.

d. Laginketa mota

- Lagina diseinatzeko, erakunde publikoaren eragin esparrua (lurraldea edo EAE) eta langile kopuru estimatua hartu dira kontuan laginketa zehazteko (10 langile baino gutxiago, 11-30 langile, 31-100 langile eta 100 langile baino gehiago).
- Aldagai horien arabera geruzak osatu, eta bakoitzean egin beharreko inkesta kopurua, estrategikoki hautatu da, adierazgarritasun orokorra bermatze aldera.
- Behin geruza bakoitzean egin beharreko inkesta kopurua zehaztuta, eta sozietate publiko bakoitzak zituen gutxi gorabeherako langile kopuruaren arabera, finkatu da erakunde publiko bakoitzean inkestatu beharreko langile kopurua.
- Esleipen interesatua (ez proportzionala) izan duen laginketa geruzatua egin denez, langileen erantzunen azterketa orokorra egiteko datuak haztatu egin dira.

e. Laginaren tamaina eta errore-marjina estatistikoa

- Guztira 61 erakunde eta 59 erakundetako 800 langile inkestatu dira.
- Errore-marjina estatistikoa orokorra, langileen inkestarako % $\pm 3,4$ da, % 95eko konfiantza tarterako ($p=q=0.5$ izanik ausazko laginketa sinplerako). Erakundeen kasuan, errore marjina orokorra % $\pm 10,7$ da.

f. Egin den garaia

- Landa-lana 2020ko azaroan hasi eta 2021eko martxoan amaitu da.

g. Prozedura metodologikoaren urratsak

- Metodologia dosierraren diseinu eta baliozkotzea: laginketa diseinua, bi galdekizunak, landa laneko arduradunen trebakuntza.
- Laginean egokitutako erakunde publikoekin harremanetan jarri eta solaskideari:
 - Berak bete beharreko galdetegia bidali zaio.
 - Erakunde bakoitzean zenbat inkesta behar ziren azaldu, eta inkesta bete beharreko langile horiek ausaz hautatuak izan zitezten bermatzeko irizpide argiak emanez, egokitutako langileekin harremanetan jartzeko posta elektronikoa (eta telefonoa) eskatu.
- Behin posta elektronikoa eskuratuta, langilearekin harremanetan jartzeko, galde-sorta bidali eta bere jarraipena egiteko prozedura, herri administrazioan erabilitako bera izan da.
- Posta elektronikoa eskuratzerik izan ez den kasuetan, telefono bidez egin da inkesta, edo pdf formatuan bidali, paperean bete zezaten.
- Landa lanaren garapen, jarraipen eta kontrol zehatza.
- Telefono bidez eta paperean eskuratutako galde-sorten grabazioa oinarri informatikodun euskarrian (ACCESS), eta horien nahiz on line bidez jasotako galdekizunen datuen kontsistentzia bermatzeko, aldagai barneko eta aldagaien arteko kontrol arauen ezarpena.
- Grabatutako informazioaren azterketa: arazketa, birkodifikazioak eta ustiaketa estatistikoa (SPSS).
- Datuen haztapena: langileen kasuan, erakundearen eragin esparruaren (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa edo EAE) eta estimatutako langile kopuruaren arabera haztatu dira datuak, horien arabera langileek duten pisu errealeria egokitzeko. Erakundeko solaskideari egindako galdetegiaren emaitzak aldiz, ez dira haztatu.
- Informazioaren ustiaketa, azterketa eta interpretazioa.

1.3. Inkestatutako langileen soslai: generoa eta adina

Emakumeak dira inkestatutako hamar beharginetik sei, eta batez beste ia 47 urte dauzkate (45,8 urte emakumezkoek eta 48,6 gizonetzkoek).

Generoari eta adinari dagokienez, esan behar da emakumezkoak nagusiak direla 55 urte arteko pertsonen artean. 55 urtetik gorakoan artean, gizonetzkoak dira nagusi.


Hamar beharginetik 7k 36-55 urte artean dituzte, eta gutxiago dira, bai 55 urtez gorakoak (% 16,1), baita 35 urtez azpikoak ere (% 10,0).

36. taula: Inkestatutako langileak generoaren eta adin tartearen arabera (haztatu gabe)

		Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	Guztira
<=35 urte	Kop	54	26	0	80
	%	% 11,2	% 8,3	% 0,0	% 10,0
36-45 urte	Kop	164	80	2	246
	%	% 34,0	% 25,4	% 66,7	% 30,8
46-55 urte	Kop	192	130	1	323
	%	% 39,8	% 41,3	% 33,3	% 40,4
>55 urte	Kop	60	69	0	129
	%	% 12,4	% 21,9	% 0,0	% 16,1
Zehaztu gabe	Kop	12	10	0	22
	%	% 2,5	% 3,2	% 0,0	% 2,8
Guztira	Kop	482	315	3	800
	%	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0
Batez besteko adina		45,76	48,56	43,33	46,85

Iturria: Siadeco, 2020

38. grafikoa: Langileak generoaren eta adin-taldearen arabera (inkestatuak, haztatu gabe) (%)



Iturria: Siadeco, 2020

V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan parte hartu zuten langileen genero/adin-tartea eta orain parte hartu dutenena alderatuz gero, aipatu behar da gora egin duela emakumezkoen pisuak, eta batez besteko adinak urte eta erdi gora egin duela.

Datu hauek erreferentzia gisa ematen dira, bi edizioetan parte hartu duten erakundeak ez direlako berberak. Emaitzak, beraz, ez dira zuzenean alderagarriak.

37. taula: Azterketan parte hartutako langileen generoan eta adinean izandako bilakaera. V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa eta VI. Plangintzaldiaren Tartekoa

		V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa	VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa
		%	%
ADIN TARTEA	<=35 urte	12,2	10,0
	36-45 urte	38,1	30,8
	46-55 urte	35,6	40,4
	>55 urte	13,1	16,1
	Zehaztu gabe	1,1	2,8
	Guztira	100,0	100,0
Batez besteko adina		45,4	46,8
GENEROA	Emakumezkoa	54,2	60,3
	Gizonezkoa	45,8	39,4
	Ez bitarra	0,0	0,3
	Zehaztu gabe	0,0	0,0
	Guztira	100,0	100,0

Oharra: Datuak ponderatu gabe

1.4. Jendaurreko lanpostuak

Azterketan parte hartutako 10etik 4k jendaurrekotzat jotzen du bere lanpostua: bere zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, herritarrekiko harremanetan oinarritzen dela adierazi dute.

Emakumezkoen artean eta 36-45 urte bitartekoen artean altuagoa da jendaurreko lanpostuetan lan egiten dutenen portzentajea (% 44,4 eta % 47,6 hurrenez hurren).

Baxuena 35 urtetik beherakoen artean ematen da (% 32,5)

38. taula: Zeregin nagusia herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremanetan oinarritzen diren lanpostuak (%) (haztatu gabe)

		JENDAURREKO LANPOSTUA
		Bai %
GENEROA	Emakumezkoa	44,4
	Gizonezkoa	36,2
	Ez bitarra	66,7
	Guztira	41,3


ADIN TARTEA	<=35 urte	32,5
	36-45 urte	47,6
	46-55 urte	39,6
	>55 urte	41,1
	Guztira	41,3

Iturria: Siadeco, 2020

2. Langileen euskara gaitasuna

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, langileei galdetu zaie nola moldatzen diren euskaraz ulertzeko, irakurtzeko, hitz egiteko eta idazteko. Datu aitortua jaso da, beraz: langileen autopertzepzioa. Maila handiena ulermenean eta irakurmenean dago: hamarretik zazpi diote maila *ona* edo *nahiko ona* dutela. Hizketan eta idazten, hamarretik seik adierazi dute hori.

39. grafikoa: Gainerako sektore publikoko erakundeetako langileen euskara gaitasun aitortua, trebetasunaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Langilearen generoa eta adin-tartea aintzat hartuta aztertu dira datuak, eta hona ekarri dira hitz egiteko eta idazteko gaitasunari buruzkoak.

Hitz egiteko gaitasuna eta idaztekoa hartuta, bietan ageri da emakumezkoek gizonezkoek baino gaitasun hobeak aitortzen dutela. Emakumezkoen % 66-% 67 dira ongi/nahiko ongi hitz egin edota idazteko gai, eta gizonezkoen % 55,3-% 53,4.

Adina eta hizkuntza gaitasuna lotuta, badago aldea hizkuntza gaitasunean. Joera argia da: zenbat eta gazteago, orduan eta gaitasun handiagoa. Baina kontuan izatekoa da adin talde guztien pisua ez dela berbera: 35 urte edo gutxiagoko beharginek dute gaitasun maila handiena, baina langile guztien % 10 baino ez dira.

35 urtez azpiko hamar langiletik 8k ongi edo nahiko ongi hitz egin eta idazten dute; 55 urtetik gorakoen langileen artean, aldiz, hamarretik 4k ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute, eta zertxobait gutxiagok idatzi. Tartean geratzen dira 36-45 urte artekoak (% 75,1), eta 46-55 urtekoak, (% 59,0).

Bestetik, 45 urtez azpikoaren artean, zertxobait gehiago dira ongi/nahiko ongi idazten dutenak, eta aldiz, 46 urtez gorakoaren artean, ongi/nahiko ongi hitz egiten dutenak. Hala ere, aldea, esan bezala, oso txikia da.

39. taula: Langileen euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna, langilearen genero eta adin-tartearen arabera (%)


	Hitz egin							Idatzi						
	Ongi	Nahiko ongi	Zertxo-bait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira	Ongi	Nahiko ongi	Zertxo-bait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira
GENEROA														
Emakumezkoa	52,9	13,2	13,7	11,5	8,2	0,5	100,0	50,5	16,7	12,6	9,5	9,7	1,0	100,0
Gizonezkoa	38,5	16,8	18,5	14,4	11,2	0,6	100,0	34,6	18,8	21,4	10,1	14,5	0,6	100,0
Ez bitarra	0,0	18,4	11,6	70,0	0,0	0,0	100,0	0,0	18,4	11,6	70,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	46,5	14,8	15,7	12,9	9,5	0,5	100,0	43,5	17,6	16,4	9,9	11,8	0,8	100,0
ADIN TARTEA														
<=35 urte	77,8	3,5	6,4	8,2	4,2	0,0	100,0	75,3	6,8	5,5	6,4	6,0	0,0	100,0
36-45 urte	57,5	17,6	13,9	6,6	3,6	0,7	100,0	56,4	21,8	14,7	2,8	2,9	1,4	100,0
46-55 urte	40,4	18,6	16,9	18,5	5,0	0,6	100,0	37,2	19,8	20,3	12,9	8,9	0,9	100,0
>55 urte	27,0	12,0	15,5	14,0	31,5	0,0	100,0	20,9	15,6	14,6	14,2	34,7	0,0	100,0
Guztira	46,5	14,8	15,7	12,9	9,5	0,5	100,0	43,5	17,6	16,4	9,9	11,8	0,8	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Jendaurreko lanpostuetako langileen euskara gaitasuna altuagoa da trebetasun guztietan. 10etik 8 gai dira euskaraz ongi edo nahiko ongi ulertu edo irakurtzeko, eta zertxobait gutxiago (% 75 inguru) hitz egin edo idazteko.

Jendaurreko lanpostua ez dutenen artean, euskaraz ongi/nahikoa ongi hitz egiteko edota idazteko gai direnak % 50aren inguruan kokatzen dira.

40. grafikoa: Jendaurreko lanpostua duten langileen (Bai) eta ez dutenen (Ez) euskara gaitasuna (%)



Iturria: Siadeco, 2020

VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa egiteko unibertsoa osatu duten erakunde publikoen eta V. Plangintzaldiaren Amaierakoa egiteko osatu zutenen artean alde handia dago: 164 izatetik 219 izatera pasa dira. Beraz emaitzak ez dira erabat alderagarriak.

Hala ere, erreferentzia modura, amaierako ebaluazioko langileen eta oraingoan euskara gaitasuna alderatuta, oraingoek 10 puntuz egin dute gora trebetasun bakoitzean.

40. taula: Sektore publikoko langileen euskara gaitasuna. Bilakaera. (%)

V. Plang. Amaierako Ebaluazioa	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira
Ulertu	44,5	19,8	10,1	15,6	9,9	0,0	100,0
Hitz egin	39,0	13,2	16,4	16,9	14,4	0,0	100,0
Irakurri	41,9	19,7	10,7	12,9	14,7	0,0	100,0
Idatzi	34,5	16,7	17,4	12,2	19,1	0,0	100,0
VI. Plang. Tarteko Ebaluazioa	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez	Zehaztu gabe	Guztira
Ulertu	57,3	16,8	11,3	9,1	5,0	0,5	100,0
Hitz egin	46,5	14,8	15,7	12,9	9,5	0,5	100,0
Irakurri	54,0	15,2	14,7	5,4	10,0	0,7	100,0
Idatzi	43,5	17,6	16,4	9,9	11,8	0,8	100,0

Iturria: Siadeco, 2017 eta 2020

3. Zerbitzu hizkuntza

Erakunde publikoetan euskara zertan den aztertzeko, zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiari heldu zaio lehenik. Zein hizkuntza eskaintzen dien erakundeak bere zerbitzuak jasotzen dituzten herritarrei.

Bi atal landu ditu zerbitzu hizkuntzari buruzko azterketak: *irudia* eta *herritarrekiko ahozko harremanak*.

Erakundeko solaskideari erakundearen irudiaz galdetu zaio. Zehazki galdetu zaio zein den erakundeak eskainitako jendaurreko ekitaldietan eta herritarrari eskainitako bestelako jardueretan -erakusketak, kanpainak, ikastaroak, bestelako egitasmoak...- erakundeak erabilitako hizkuntza; bestetik, langileari berari galdetu zaio ahozko harremanetan zein hizkuntzatan zuzentzen zaion herritarrari eta euskarazko eskaerari zein hizkuntzatan erantzuten dion.

3.1. Irudia

Erakundeak herritarrei begira dituen hainbat alderdiri buruzko informazioa eskatu zaio erakundeko solaskide edo ordezkariari:

- (a) Erakundeak herritarrarekin (hitzaren zentzu zabalean: herritarrarekin, bezeroekin, elkarrekin, beste erakundeetako ordezkariekin, etab.) egiten diren ekitaldi eta jardunaldietan zein den, ahozko harremanean, erakundeak egiten duen eskaintzan euskararen eta beste hizkuntzen presentzia maila.
- (b) Erakundeak herritarrari eskainitako ikastaroetatik euskaraz zenbat eskaintzen diren eta zenbat erdaraz.
- (c) Herritarrari eskainitako bestelako jardueratan (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...) erakundeak egiten duen hizkuntzen erabilera.

Atal metodologikoan esan bezala, solaskideari egindako galdetegiko erantzunak ez dira haztatu; jaso bezala agertzen dira taula eta grafikoetan.

3.1.1. Jendaurreko ekitaldiak

Erakundeak antolatutako jendaurreko ekitaldietan (esan bezala, hitzaren zentzu zabalean: herritarrarekin, bezeroekin, elkarrekin, beste erakundeetako ordezkariekin, etab.) jardueran zehar azaldutako informazio unitateetatik, euskaraz zenbat eskaini diren eta erdaraz zenbat galdetu da. Hizkuntza batean eta bestean azaldutako informazio kopuruaz galdetu da, ez hizkuntza batean edo bestean hitz egindako denboraz.

Honela, adibidez, ekitaldi batean informazio guztia euskaraz eta erdaraz eskaini bada, informazio bera errepikatuz, euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa % 100 litzateke, eta erdaraz eskainitakoa, % 100.

Baina ekitaldian azaldutako 10 informazio unitatetik 2 euskaraz eman badira, eta erdaraz 10ak (euskaraz azaldutakoak, erdaraz ere errepikatuz), euskararen ehunekoak % 20 litzateke, eta erdararena % 100. Solaskideei helarazitako galdetegian adibide hauek eta beste batzuk ere ipini ziren, galdetegiaren betetzeko argibideekin batera.

Horrela galdetzearen helburua, Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jasotakoarekin alderagarri egitea da, eta baita “erabilera orekatua” deiturikoa antzematea (hots, azaldutako informazioaren % 50 euskaraz eta % 50 erdaraz emateari deitzen zaio “erabilera orekatua”).

Baina ekitaldian erabilitako hizkuntza aztertu aurretik, eta gainerako sektore publikoko erakundeetan era honetako jarduerak duten pisua ezagutzeko, jendaurreko ekitaldiak zein maiztasunez egiten diren galdetu zaie.

Erakunde gehienek jendaurreko ekitaldiak eskaintzen badituzte ere (5etik 1ek ez ditu inoiz eskaintzen), multzorik handienak hilean behin baino gutxiagotan eskaintzen ditu (% 36,1ek).


41. taula: Jendaurreko ekitaldiak antolatzeko maiztasuna (%)

	Egunero	Astero	Hama-bostean behin	Hilean behin	Hilean behin baino gutxiagotan	Inoiz ez	Guztira
Jendaurreko ekitaldien maiztasuna, (%)	0,0	14,8	13,1	16,4	36,1	19,7	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Jendaurreko ekitaldietan, batez beste, ahoz azaldutako informazioaren % 59,1 euskaraz eskaintzen da; hau da, ekitaldi horietan azaldutako informazioaren % 40 ez da euskaraz eskaintzen.

41. grafikoa: Jendaurreko ekitaldietan, euskaraz azaldutako informazioaren ehunekoak (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Herritarrekin (hitzaren zentzu zabalean: herritarrekin, bezeroekin, elkarteekin, beste erakundeetako solaskideekin, etab..) egiten diren ekitaldi eta jardunaldietan euskararen presentzia sustatzeko beharrik ikusten al duten galdetu zaie erakunde publikoetako ordezkariari. Eta hala bada, zein den hutsunerik handiena, eta zein bultzatu beharreko alderdia.

Eskainitako informazioaren erdia edo gutxiago euskaraz eskaintzen duten erakundeetan, orokorrean, euskarazko eskaintza sustatu beharra dagoela adierazten dute solaskideek, baina honako oztopo edo zailtasunekin egiten dute topo:

- Ekitaldiko aurkezle/hizlariak saioa euskaraz egiteko gai ez izatea. Ikerketa zentroetan eta gune espezializatuetan bereziki aipatzen den arrazoia da. Baina baita izaera orokorragoa dutenetan ere.
- Ekitaldia ele bietan eskaintzeak lana bikoiztea dakar.
- Ekitaldietara hartzaile gutxiago erakartzen ditu euskarazko eskaintzak (gune soziolinguistiko erdaldunagoetan batez ere).
- Langileek ez dute barneratuta saioa ele bietan egitea.
- Saioa euskaraz eskaintzeak dakarren gainkostua: itzulpen zerbitzua, bozeramaileen euskara prestakuntza,...

“Gure jardueran izaeragatik (goi mailako musika hezkuntza), bertan egiten diren jendaurreko ekitaldiak, hau da, entzunaldiak, masterclassak eta kontzertu emanaldiak, gazteleraz ez ezik ingelesez eta frantsesez ere izaten dira. Gure ekitaldien hartzaileak (ikasle eta irakasleak) EAEtik kanpokoak dira ehuneko handi batean.”

“Hutsunerik handiena hizlariak euskara ez ezagutzea edo ez menderatzea da. Jorratzen diren gaiak zientifikoak izanik, gaztelania edo ingeleza erabiltzen da gehienetan.”

“Entitateak antolatutako ekitaldi publikoetan bultzatu behar da euskera hizkuntzaren erabilpena. Gertatzen dena da askotan ekitaldi horietara joan ohi den jendeak ez du hizkuntzarik menderatzen eta horregatik eta batez ere eskualde honetan ematen den egoera soziolinguistikoagatik non biztanle gehienek erderaz hitz egiten duten, arrazoi horiek guztietatik ez da existitzen eskualdean euskeraz ekitaldi publikoen eskaerarik. Bestaldetik, entitatearen teknikari eta arduradun politiko askok ez dute hitz egiten ondo euskeraz eta horregatik ezin dute ekitaldi publiko bat euskeraz zuzendu. Bakarrik egin dezakete aurkezpen bat euskeraz, baina hori baino gehiagorik ez.”

“Sustatu beharra dago bai. Jende askok euskeraz ez dakienez gure hirian, zaila da baina, gero eta presentzia handiagoa behar genuke bilatu.”

“Aunque se realizan actos en euskera, mayoritariamente la oferta es en castellano (conferencias, charlas...). También la demanda y la asistencia es mayor en las actividades en castellano en comparación con las de euskera. Habría que realizar esfuerzos en la línea de fomentar actividades en euskera, y también la asistencia. También a que el euskera tuviera presencia en las actividades

en castellano (presentaciones...)”

Kasu batzuetan, erakundeko ordezkari bakoitzak bere aurkezpena zein hizkuntzatan egin erabakitzen du, euskaraz saio guztia aurkeztuz edo sarrera/agurretarara mugatuz.

Ekitaldia euskaraz (ere) eskaintzen dutenen artean, hartzaileen artean euskaraz ulertzeko gai ez diren herritarrak egoteak zaildu egiten du euskararen erabilera orokortzea.

Oso gutxi izan dira bultzatu beharreko alderdiak propio aipatu dituztenak, eta horien artean, profesionalen euskarazko trebakuntza, langileak sentsibilizatzea edo saioa eskainiko duten hizlariei euskara gaitasuna eskatzeko aukera aztertzea.

3.1.2. Herritarrari eskainitako ikastaroak

Herritarrari ikastaroak eskaintzea ez da ohiko jarduera erakunde publiko hauetan, eta erdiak baino gehiagok ez ditu inoiz horrelakorik antolatzen. Hala ere, badira eskaintza hori badutenak eta 50 ikastaro baino gehiago eskaintzen dituztenak (% 11,5), edo urtean 20-50 artean (% 4,9).


42. taula: Herritarrari begira ikastaroak antolatzeko maiztasuna (%)

	Urtean 50 baino gehiago	Urtean 20-50 artean	Urtean 10-20 artean	Urtean 10 baino gutxiago	Ez, inoiz ez	Guztira
Herritarrari begira ikastaroak zein maiztasunez antolatzen diren (%)	11,5	4,9	11,5	16,4	55,7	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Herritarrari eskainitako ikastaroen artean, batez beste, % 30 euskaraz eskaintzen dituzte erakunde publiko hauek.

42. grafikoa: Herritarrari begira antolatutako ikastaroetan, euskaraz eskaintzen diren ikastaroen ehunekoa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Solaskideei galdetuta ea zein den eskaintza euskaraz sustatzeko hutsunerik handiena, honakoak aipatzen dituzte:

- Prestakuntza euskaraz eskainiko duten pertsonak topatzeko zailtasunak.
- Euskarazko taldeak sortzeko zailtasunak: taldeak bikoizteak kostua bikoiztuko luke, izena-emateko epeak asko luzatzen dira gutxienerako kopuruak lortzeko...
- Ikastaroak euskaraz eskaintzeko gai eta prest dauden erakundeei ez zaie euskarazko eskaerarik iristen.

“La oferta de este tipo de cursos es reducida. Son muy especializados y generalmente los ponentes se expresan en castellano.”

“Herriarrei eskainitako ikastaro-hitzaldiak gaztelaniaz izan ohi dira. Horren ardura duen teknikariak ez daki-eta euskaraz”.

“Euskarazko taldeak osatzeko saiakerak egin izan ditugu, baina ikastaroen hartzaileek ez dute nahi izan edo beharrezkotzat ikusi euskarazko ikastaroa eskaintzea”.

“Euskara hutsean ikastaroak antolatzeko epeak askoz luzeagoak egiten dira, gutxiengo taldea osatzeko behar adina ikasle lortzeko denbora gehiago behar izaten dugu.”

“Nahiz eta askotan trebakuntza ikastaroak euskeraz eskaintzen ditugun, gero ez dugu lortzen talde gutxienezko taldea osatu ikastaroa aurrera eramateko”.

“Fundazioari euskeraz emateko eskatzen zaizkion ikastaroak oso gutxi dira. Ikastaroan zehar, ikasle denak euskaldunak direla konturatzen bagara, ikastaroaren ahozko atalak euskeraz ematen ditugu”

Kasuren batean euskaraz aritzen direla zehazten da, ikastaroa bera gaztelaniaz izan arren euskal hiztunekin bakarka ari direnean.

Erakunde batek ikastaroetako izen-emateetan hizkuntza lehenesteko aukera eskaintzea proposatzen du, egun erabiltzen den irizpideak euskal eta erdal hiztunak nahastea baitakar; eta ondorioz, praktikan, horrek ikastaroa gaztelaniaz eskaintzea dakar.

3.1.3. Herriarri zuzendutako bestelako jarduerak

Erakundearen irudiaren atalarekin amaitzeko, erakundeak, herriarri zuzendutako bestelako jardueretan (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...) azaldutako eduki edo informazio unitateetatik, euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoia landuko da jarraian.

Erakundeen % 75 inguruk eskaintzen dituzte horrelako jarduerak, baina multzorik handienak (% 39k), urtean 10 baino gutxiagotan eskaintzen ditu. Urtean 50 baino gehiagotan jarduerok eskaintzen dituztenak ez dira % 10era iristen.

43. taula: Herritarrari begira antolatutako jardueren maiztasuna (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...)(%)


	Urtean 50 baino gehiago	Urten 20-50 artean	Urtean 10-20 artean	Urtean 10 baino gutxiago	Ez, inoiz ez	Guztira
Herritarrari begira antolatutako jardueren maiztasuna (%)	9,8	11,5	14,8	39,3	24,6	100,0

Iturria: Siadeco, 2020

Herritarrentzat antolatutako jarduera horietan azaldutako eduki edo informaziotik, batez beste, % 80,9 euskaraz eskaintzen da.

Hala ere, kontuan hartu behar da, jendaurreko ekitaldietan ez bezala, kasu honetan, ahozko eta idatzizko elementuak hartu direla kontuan; eta idatzizko elementuetan, oro har, altuagoa dela euskararen presentzia.

43. grafikoa: Herritarrari begira antolatutako jardueretan, euskaraz azaldutako informazioaren ehunekoa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Lau erakunde publikotik hiruk badituzte herritarrari begira eskainitako bestelako jarduerak; eta euskararen batez besteko erabilera jarduera horietan altuagoa da jendaurreko ekitaldi formaletan eta ikastaroetan baino.

Izan ere, esan bezala, arlo honetan kontuan hartu dira bai ahozko jarduna, baita idatzizkoa ere. Eta idatzizko elementuetan, oro har, altuagoa da euskararen presentzia.

Honela, solaskideen artean, bada, ahozkoan, bere erakunde euskararen erabilera “folklore”-ra mugatzen dela dioenik (hartzaileen artean euskaldunik ez dagoela adierazi ondoren).

Sustatu behar dela diotenen artean, “eroso gertatuko den elebitasuna” proposatzen da.

“Idatzizko informazio guztia elebitan eskaintzen da, deialdi, foileto eta antzekoetan. Jendaurreko aurkezpenak elebidunak egiten saiatzen gara, baina ez dugu beti lortzen. Edukiak euskaraz sortzeko

ohitura sortzea da gure erronka. Lankideen euskara ohitura falta, eta ziurtasun falta zailtasun bat dira gure erronkei aurre egiteko.”

“Alde handia dago ahoz eta idatziz eskainitako informazioaren artean”

“Egiten ditugun jarduerak gure langileen gurasoei zuzenduak izaten dira eta ez dago euskeraz dakien guraso bat bera ere ez. Euskera folklore hutserako baino ez da erabiltzen: Egun on, Eskerrik asko denoi eta Agur. Banatzen ditugun inprimaki eta abarretan euskararen presentzia ez da erdira iristen, hauek egiteaz arduratzen diren pertsonak ez dute euskerarekiko sentsibilitaterik. Beste alde batetik ez daukagu itzulpengintza sailik eta kasu gehienetan niri egokitzen zait itzulpen guztien zama eramatea (eta nahikoa lan daukat).”

“Kolektiboaren arabera egin behar da eta denak ez dakit euskeraz. Bultzatu beharra: Ele bietan egitea modu "eroso" batean.”

3.2. Herritarrekiko ahozko harremanak

Erakunde publiko hauek zein hizkuntza erabili ohi duten herritarrekiko harremanetan aztertu da, hots, zein den langileek herritarrak agurtzeko eta elkarrizketa hasteko darabilten hizkuntza.

Horretarako, langileari berari galdetu zaio herritarrekiko ahozko harremanetan harrerako lehen hitza — agurra— zein hizkuntzatan egiten duen eta, behin agurtuta, zerbitzua euskaraz izan dadin langileak bere arreta zein hizkuntzatan eskaintzen duen telefonoz eta aurrez aurre. Euskaraz nahiago duten herritarrekin zein hizkuntza erabiltzen duen ere galdetu zaio langileari. Langileak herritarrari eskainitako hizkuntzaz galdetu da, ez zein hizkuntzatan garatzen den gero bien arteko elkarrizketa. Kasu guztietan, ehunekoetan adieraztea eskatu zaie zenbatetan egiten duten hizkuntza batean edo bestean.

3.2.1. Telefono bidezko harremanak

(a) Agurra

Erakunde publiko hauetako langileen % 83,1ek eman dute telefono bidezko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzari buruzko informazioa, harreman-mota hori badutela diotenenek, alegia.


Herritarrei harrera egiten dietenean, batez beste, % 54,7tan agurtzen dituzte euskaraz eta % 9,2tan ele bietan. % 36,1etan gaztelaniaz soilik agurtzen dituzte. Hau da, batez beste, 10etik 6tan euskaraz agurtzen dituzte herritarrak telefonoz; eta 10etik ia 4tan gaztelania hutsez.

Espero zitekeen bezala, langilearen euskara gaitasunak eragin nabarmena du herritarrak agurtzeko erabilitako hizkuntzan. Ongi hitz egiten dutela adierazten dutenen artean, euskararen erabilera % 83,9koa da; hau da, 10etik 8tan euskaraz agurtzen dituzte herritarrak (euskaraz soilik edo ele bietan). Euskararen

ezagutza maila jaitsi ahala, joera apaldu egiten da. Euskaraz nahiko ongi mintzo direnetan, % 68,1ek hartzen dute telefonoa euskaraz, eta zertxobait badakitenen artean, % 46,1ek.

45 urtez azpikoen artean, euskaraz agurtzea zabalduagoa dago (% 72 inguru), eta jaitsi egiten da adinak gora egin ahala. Emakumezkoetan ere zertxobait altuagoa da (% 65,4) gizonezkoetan baino (% 61,9).

44. grafikoa: Telefono bidezko harreraren, langileak zenbatetan egiten duen euskaraz eta ele bietan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

(b) Elkarrizketa jarraitzeko aukera

Agurra bera euskaraz (soilik edo ele bietan) egin ondoren, tarteka, erakunde publiko hauetako langileak, gaztelaniaz osatzen du esaldia, herritarrak bere hizkuntza hautua esplizitatu baino lehen, eta gaztelaniaz abiatzen du elkarrizketa.

Hori zenbateraino gertatzen den jakiteko, langileari galdetu zaio berak elkarrizketa zein hizkuntzatan abiatzen duen. Ehunekoetan adierazteko zenbatetan jarraitzen duen euskaraz eta zenbatetan erdaraz.


Langileak berak adierazitakoaren arabera, batez beste, 10etik 4tan ematen diote herritarrari elkarrizketa euskaraz jarraitzeko aukera (% 40,3). Hots, 10etik 6tan, gaztelaniaz abiatzen du elkarrizketa langileak. Bestetik, 10etik 6tan euskaraz agurtzetik, 10etik 4tan euskaraz jarraitzeko aukera ematera pasa gara.

Zein perfileko langileen artean da elkarrizketa euskaraz jarraitzeko aukera ohikoagoa, joerak errepikatu egiten dira: euskaraz ongi hitz egiten dutenen artean, batez beste, % 61,1ean jarraitzen da euskaraz; eta beraz 10etik ia 4tan gaztelaniaz. Nahiko ongi hitz egiten dutenen artean, berriz, % 45,5ean.

35 urtez azpikoen artean ere altuagoa da erabilera (% 52,9), eta jaisten doa hurrengo tarteetan.

Emakumezkoen artean erabilera altuagoa da (% 44) gizonezkoen artean baino.

45. grafikoa: Behin hasierako agurra eginda, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

Hasierako agurrean euskararen erabilera % 63,9 izatetik, elkarriketa euskaraz jarraitzeko gonbitea % 40,3 izatera pasa da. Hau da, ia 24 puntuz baxuagoa.

Aztertutako balio ia guztietan gertatzen da jauzi handia, baina nabarmenena euskara “zertxobait” dakitela diotenen artean ematen da (% 46,1ean euskaraz agurtu eta % 11,7an elkarriketa abiatu); hau da, motibazioak edo irizpideak markatuta, euskaraz agurtu bai, baina gero elkarriketa euskaraz jarraitzeko segurtasun nahikorik ez dutenak, ziur aski.

Gizonezkoen artean eta 36-55 urte artekoen artean, agurrean erabilitako hizkuntzatik, elkarriketa abiatzeko erabilitako hizkuntzaren arteko jauzia, balio orokorretan baino altuagoa da.

3.2.2. Aurrez aurreko harremanak

Gainerako erakunde publiko hauetako langileen % 76,0k eman dute aurrez aurreko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzari buruzko informazioa, harreman-mota hori badutela diotenak, alegia.

(a) Agurra

Herritarrei aurrez aurre harrera egiten dietenean, batez beste, % 52,4tan agurtzen dituzte euskaraz, eta % 12,7tan ele bietan. % 34,9tan gaztelaniaz soilik agurtzen dituzte. Hau da, batez beste, 3tik ia bitan (% 65,1) euskaraz agurtzen dira herritarrak aurrez aurre, eta 3tik 1ean gaztelania hutsez. Telefonozko harreran ikusitako datuen oso antzerakoak, beraz.


Euskaraz ongi hitz egiten dutela adierazten dutenen artean, euskararen batez besteko erabilera % 84,7koa da; 10etik 8tan euskaraz agurtzen dituzte herritarrak. Nahiko ongi egiten dutenen artean berriz, % 69,3koa. Hau da, berriro ere alde handia ongi eta nahiko ongi hitz egiten dutela dioten artean.

45 urtez azpikoek, batez beste, 10etik 7tan agurtzen dituzte herritarrak euskaraz (soilik edo ele bietan), eta hortik behera egiten du 46-55 urte artekoen artean, (% 67,6), eta batik bat 55 urtetik gorakoen artean (% 44,7).

Emakumezkoen artean, erabilera zertxobait altuagoa da gizonezkoen artean baino (% 67,5 eta % 61,6 hurrenez hurren).

Herritarrekin aurrez aurreko harremana egunero duten langileen artean altuagoa da agurrean euskaraz erabiltzeko joera (% 70), harremana tarteka dutenen artean baino (% 61,3).

46. grafikoa: Aurrez aurreko harreran, langileak zenbatetan erabiltzen duen euskara (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2020

(b) Elkarrizketa jarraitzeko aukera

Telefonozko harremanetan egin bezala, aurrez aurrekoetan ere langileari galdetu zaio zein hizkuntzatan eskaintzen duen elkarrizketa, behin agurtuta. Eta aurrez aurrekoetan ere aldea dago agurtzeko erabilitako hizkuntzaren eta elkarrizketa abiatzeko eskainitako hizkuntzaren artean.

Izan ere, langileek adierazitakoaren arabera, batez beste % 38,1ean eskaintzen dute elkarrizketa euskaraz jarraitzeko aukera. Beraz, aurrez aurreko elkarrizketa gatzelaniaz abiatzen da 10etik 6tan.

47. grafikoa: Behin hasierako agurra eginda, zenbatetan eskaintzen duen euskaraz jarraitzeko aukera (herritarrek hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

Lehen agurretik elkarrizketara, aurrez aurreko harreran, 27 puntuz egiten du behera euskararen eskaintzak.

Alderik handiena, telefono bidezko harremanean bezala, langilearen euskara gaitasuna “zertxobait” denean ematen da (batez beste % 49 euskaraz agurtzetik, elkarrizketa euskaraz % 11,7an jarraitzera pasatzen dira); hau da, motibazioak edo irizpideak markatuta, euskaraz agurtu bai, baina gero elkarrizketa euskaraz jarraitzeko segurtasun nahikorik ez dutenen artean, ziur aski.

Eta berriro ere, aldea batez bestekoan baino zertxobait altuagoa da 36-55 urte artekoen artean, gizonezkoetan eta herritarrekiko harremana egunerokoa ez dutenen artean.

3.2.3. Euskarazko eskariari emandako erantzuna

Zerbitzu hizkuntzarekin lotuta, langileari egin zaion azken galderan, telefono bidezko zein aurrez aurreko ahozko harremana euskaraz nahiago duten herritarrekin, zein hizkuntza erabiltzen duen galdetu zaio.


Eta batez beste, euskararen erabilera % 61,1ekoa da kasu horretan. Aurreko adierazleetan baino altuagoa da kasu horretan euskararen erabilera; baina hala ere, euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin harremana gaztelaniaz gertatzen da 10etik 4tan.

Euskaraz ongi egiten dutenen artean % 95ekoa da batez besteko erabilera; eta % 74,5ekoa nahiko ongi egiten dutenen artean.

Adin-tartearen arabera, gazteenen artean ematen da erabilerarik altuena (% 82,9), eta jaisten doa, 55 urtetik gorakoen artean % 38,2 izateraino.

Emakumezkoen artean altuagoa da (% 67,3) gizonezkoen artean baino (% 52,7).

48. grafikoa: Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin euskaraz egindakoa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

3.2.4. Laburpena

44. taula: Euskaraz ongi/nahiko ongi egiteko gai direla dioten langileak eta euskara zerbitzu hizkuntzaren adierazleak (%)

	Euskaraz hitz egiteko gaitasuna			Telefono bidezko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen ditu herritarrak (batez besteko %)	Behin hasierako agurra eginda, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (hemitarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)	Aldea (jarraitzeko aukera - agurra) %	Aurrez aurreko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen ditu herritarrak (batez besteko %)	Behin agurtuta, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (hemitarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)	Aldea (jarraitzeko aukera - agurra) %	Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin, zein hizkuntza erabiltzen du langileak (batez besteko %)
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi+Nahiko ongi	Euskaraz eta ele bietan	Euskaraz		Euskaraz eta ele bietan	Euskaraz		Euskaraz
GENEROA										
Emakumezkoa	52,9	13,2	66,1	65,4	44,0	-21,4	67,5	42,6	-24,9	67,3
Gizonezkoa	38,5	16,8	55,3	61,9	35,1	-26,8	61,6	31,1	-30,5	53,2
Ez bitarra	0	18,4	18,4	40,7	40,5	-0,2	60,2	49,8	-10,4	52,7
Guztira	46,5	14,8	61,3	63,9	40,3	-23,6	65,1	38,1	-27,0	61,1
ADIN-TARTEA										
<=35 urte	77,8	3,5	81,3	72,1	52,9	-19,1	74,3	52,8	-21,5	82,9
36-45 urte	57,5	17,6	75,1	73,3	47,2	-26,1	73,2	43,3	-29,9	74,0
46-55 urte	40,4	18,6	59	63,5	39,2	-24,2	67,6	37,9	-29,6	59,2
>55 urte	27	12	39	49,4	28,9	-20,5	44,7	24,9	-19,8	38,2
EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA										
Ongi	100		100	83,9	61,1	-22,8	84,7	58,9	-25,8	95,1
Nahiko ongi		100	100	68,1	45,5	-22,6	69,3	38,0	-31,3	74,5
Zerxobait			0	46,1	11,7	-34,4	49,0	11,7	-37,2	28,6
Hitz batzuk			0	26,6	4,2	-22,4	31,6	2,0	-29,6	3,0
Ezer ez				11,4	0,8	-10,6	5,5	0,0	-5,5	1,8
HARREMANAREN MAIITASUNA										
Egunero				64,3	40,5	-23,8	70,0	45,6	-24,5	
Gutxiagotan				63,3	40,1	-23,2	61,3	32,3	-29,0	

4. Lan hizkuntza

Erakundearen irudia eta zerbitzu hizkuntza azterturik, gainerako sektore publikoko erakundeen barruko jardunari erreparatu zaio, lan jardunari, alegia. Eta honetarako, langileei, barne eta kanpo komunikazioan erabilitako hizkuntzaz galdetu zaie.

Barne komunikazioan, ahoz eta idatziz darabilten hizkuntzaz; eta kanpo komunikazioan, ahozkoaz.

4.1. Barne komunikazioa

4.1.1. Erakundearen barne harremanetarako idatziak

Erakunde barnerako sortutako testu labur eta luzeak idazten ote dituen eta, hala bada, zein hizkuntzatan sortzen dituen galdetu zaio langileari.

Langilearen sortze hizkuntza neurtu da. Jatorrizko testua gaztelaniatik sortu eta itzultzaile automatikoaren bidez egin badu euskarazko bertsioa eta testu hori berak birpasatu, zuzendu eta egokitu badu, ele bietan sortutakoa dela kontsideratu da. Euskarazko bertsioa ere norberak lantzen badu edo itzultzailea erabili ez bada eta lehenago erabilitako euskarazko testu ereduak (txantilioiak) erabili badira, sortze hizkuntza euskara dela kontsideratu da.

(a) Testu laburrak

Langileen % 98,1ek idazten dituzte, gehiagotan ala gutxiagotan, testu laburrak erakunde barneko lanetarako (e-mailak, oharra, jakinarazpenak, egiaztagirak, inprimakiak...).


Batez beste, % 37,5etan sortzen dira euskaraz erakunde barnerako testu laburrak, % 24,5etan euskara hutsez eta % 13tan ele bietan. Hots, batez beste, gaztelania hutsez sortzen dira 10 testu laburretik 6 (% 62,5).

Euskaraz ongi idazten dutenek, batez beste, sortutako testuen % 60,9 sortzen dituzte euskaraz (euskara hutsean edo ele bietan). Euskaraz nahiko ongi idazten dutek, berriz, ia 20 puntu gutxiagotan sortzen dute euskaraz (%43,0).

45 urtez azpikoen artean, euskararen erabilera maila altuagoa da —% 50,5ekoa 35 urtez azpikoen artean, eta % 45,2 36-45 urtekoen artean—, eta aldiz, nabarmen baxuagoa 55 urtez gorakoen artean (% 22,9).

Emakumezkoen artean (% 42,5) altuagoa da gizonezkoen artean baino (% 30,8).

49. grafikoa: Lanerako testu laburrak langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

(b) Testu luzeak

Langileen % 70,5ek idazten dituzte, gehiagotan ala gutxiagotan, testu luzeak erakunde barneko lanetarako (memoriak, txostenak, proiektuak...).


Eta, batez beste, erakunde barnerako testu luzeen % 25,4 sortzen dira euskaraz: % 16,1 euskara hutsez eta % 9,3 ele bietan. Hau da, gaztelania hutsez sortzen dira lautik hiru.

Euskaraz ongi idazten dutenek, batez beste, sortutako testuen % 50,1 sortzen dituzte euskaraz (euskara hutsean edo ele bietan). Euskaraz nahiko ongi idazten dutenen artean, berriz, ia 30 puntu gutxiago (% 21,2).

Adin-tarteetan eta generoan ohiko joerak agertzen dira: 45 urtetik beherakoen artean eta emakumezkoen artean altuagoa da euskararen erabilera maila.

Bestalde, txosten luzeak maiz idazten dituztenen artean zertxobait baxuagoa da euskararen erabilera maila (% 21,6) gutxiagotan idazten dituztenen artean baino (% 27,6).

50. grafikoa: Lanerako testu luzeak langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020


(c) Hartzaileari testua iristen zaion hizkuntza

Erakunde barnerako sortutako testu labur eta luzeak zein hizkuntzatan sortzen dituen galdetu ondoren, langileari (hartzaileari, kasu honetan) zein hizkuntzatan iristen zaizkion galdetu zaio.

Eta batez beste % 43,0tan iristen zaizkio euskaraz; % 19,8tan euskara hutsez, eta zertxobait gehiago —%23,2tan— ele bietan.

Horrenbestez, batez beste, langileek sortutako testu laburren % 37,5 euskaraz sortzen dira eta testu luzeen % 25,4; baina, orotara, euren sortutako testuen % 43 euskaraz iristen zaiola hartzaileari diote langileek. Gainerako % 57an gaztelania hutsez.

51. grafikoa: Erakunde barnerako sortutako testuak, zenbatetan iristen zaizkion euskaraz hartzaileari (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

(d) Idatzizko elementuen laburpena

45. taula: Euskaraz ongi/nahiko ongi idazteko gai direla dioten langileak eta euskara barneko idatzizko lan hizkuntzaren adierazleak

	Euskaraz idazteko gaitasuna			Lanerako testu laburrak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Lanerako testu luzeak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Erakunde barnerako sortutako testuak, zenbatetan iristen zaizkion euskaraz hartzaileari (batez besteko %)
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi+Nahiko ongi	Euskaraz eta ele bietan	Euskaraz eta ele bietan	Euskaraz eta ele bietan
GENEROA						
Emakumezkoa	50,5	16,7	67,2	42,5	30,1	48,0
Gizonezkoa	34,6	18,8	53,4	30,8	20,2	36,6
Ez bitarra	0	18,4	18,4	35,7	1,8	36,8
Guztira	43,5	17,6	61,1	37,5	25,4	43,0
ADIN-TARTEA						
<=35 urte	75,3	6,8	82,1	50,5	33,5	51,2
36-45 urte	56,4	21,8	78,2	45,2	31,4	46,0
46-55 urte	37,2	19,8	57	36,8	28,4	47,2
>55 urte	20,9	15,6	36,5	22,9	11,6	29,8
EUSKARAZ IDAZTEKO GAITASUNA						
Ongi	100		100	60,6	50,1	63,5
Nahiko ongi		100	100	43,0	21,2	44,3
Zertxobait				11,6	1,9	25,2
Hitz batzuk				11,6	2,1	25,0
Ezer ez				1,6	0,0	8,7
HARREMANEN MAIZTASUNA						
Egunero (egunero/astero testu luzeetan)				36,2	21,6	
Gutxiagotan				42,3	27,6	


4.1.2. Erakundearen barneko lan-bileratako ahozkoak

Langileen % 93,9k adierazi dute badituztela lan bilerak, eta bilera horietan euskaraz egindakoa, batez beste, %25,5 da; hau da, 4tik 1 inguru. Lautik hiru, gaztelaniaz egiten da.

Euskaraz ongi mintzatzten direnen artean erabilera altuagoa da (% 43,5); jaitsi egiten da nabarmen nahiko ongi egiten dutenen artean (% 25,0), eta erabilera oso eskasa gertatzen da hortik behera dakitenen artean.

Emakumezkoen artean altuagoa da erabilera (% 30,9) gizonezkoen artean baino (% 18,8).

52. grafikoa: Lan bileretan ahoz euskaraz egindakoa (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2020

4.1.3. Erakundearen barneko ahozko harremanak: Telefono bidez eta aurrez aurre

Langileen % 96,2k adierazi dute badituztela telefono bidezko harremanak lankideekin eta ia denek —% 99,1ek— aurrez aurrekoak. Beraiei dagozkie erantzunak.

Telefono bidezko harremanetan eta aurrez aurrekoetan gaztelania da nagusi langileen arteko harremanetan; izan ere, euskararen erabilera % 32koa da. Oro har, 10etik 7 kasutan, gaztelaniaz bideratzen da harremana.

53. grafikoa: Euskararen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz eta aurrez aurre (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020


4.2. Kanpo komunikazioa: beste administrazioekin eta erakunde pribatuekin eta bestelakoekin ahoz

Langileen % 68k diote badituztela ahozko harremanak beste herri erakundeetako solaskideekin; eta % 81,8k, erakunde pribatuetako edo bestelako entitateetako solaskideekin.

Beste herri erakundeetako solaskideekin ahozko harremanetan euskararen erabilera %41,4koa da eta nabarmen baxuagoa erakunde pribatu eta beste entitateetako solaskideekin (% 22,9).

Norberea ez den beste herri erakundeetako solaskideekin, beraz, euskara gehiago erabiltzen da erakunde bereko solaskideekin baino; baina gutxien beste erakunde pribatu eta bestelako entitateetako solaskideekin egiten da.

54. grafikoa: Euskararen erabilera ahozko kanpo harremanetan: herri erakundeekin eta bestelako enprekin (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

4.3. Laburpena: Barne eta kanpo komunikazioetako ahozko harremanak

46. taula: Euskaraz ongi/nahiko ongi hitz egiteko gai direla dioten langileak eta laneko eta kanpoko ahozko hizkuntzaren adierazleak (euskaraz %)

	Euskaraz ongi eta nahiko ongi hitz egiteko gai diren langileak			Lan bileratan ahoz	Euskararen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz eta aurrez aurre (batez besteko %)		Euskararen erabilera ahozko kanpo harremanetan (batez besteko %)	
	Ongi	Nahiko ongi	Ongi+ Nahiko ongi		Telefonozko harremanetan	Aurrez aurreko harremanetan	Beste herri erakundeetako solaskideekin	Erakunde pribatu eta beste entitateetakoekin
	%	%	%		Euskaraz %	Euskaraz %	Euskaraz %	Euskaraz %
GENEROA								
Emakumezkoa	52,9	13,2	66,1	30,9	35,9	36,9	47,8	25,1
Gizonezkoa	38,5	16,8	55,3	18,8	27,3	25,0	33,8	20,3
Ez bitarra	0	18,4	18,4	0,6	35,2	0,2	10,0	6,1
Guzfira	46,5	14,8	61,3	25,5	32,1	31,6	41,4	22,9
ADIN-TARTEA								
<=35 urte	77,8	3,5	81,3	25,7	40,1	44,5	58,1	26,3
36-45 urte	57,5	17,6	75,1	30,9	39,2	38,0	48,4	24,6
46-55 urte	40,4	18,6	59	28,0	33,3	31,1	39,0	25,3
>55 urte	27	12	39	13,0	18,4	18,5	31,0	17,1
EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA								
Ongi	100,0		100	43,5	57,1	55,9	72,3	38,3
Nahiko ongi		100,0	100	25,0	29,8	28,8	37,6	21,5
Zertxobait			0	6,0	7,6	7,8	11,8	6,1
Hitz batzuk			0	2,0	1,1	0,8	0,7	0,0
Ezer ez			0	1,1	0,0	0,0	0,0	0,0
HARREMANAREN MAIZTASUNA								
Egunero/Astero (lankideekiko harremanetan, egunero)				21,3	31,2	33,3	33,7	20,1
Gutxiagotan				32,2	35,9	24,3	45,2	26,1

5. Kudeaketa

Atal honetan bi izan dira aztertu diren alderdiak lanari loturiko idatzien sortze hizkuntza (laburrak edo luzeak diren bereizi gabe) eta erakundeak eskainitako laneko prestakuntzan euskaraz eskainitako ikastaroen ehunekoa.

Bi iturri desberdinetatik jaso dira datuak; lehena, langileari berari galdetu zaio. Bigarrena, aldiz, erakundeiko solaskideari, erakundearen ikuspegi orokorra hobeto ezagut dezakeelakoan.

5.1. Idatzizko sortze hizkuntza

Jatorrizko testua gaztelaniatik sortu eta itzultzaile automatikoaren bidez egin badu euskarazko bertsioa eta testu hori berak birpasatu, zuzendu eta egokitu badu, elebietan sortutakoa dela kontsideratu da. Euskarazko bertsioa ere norberak lantzen badu eta itzultzailea soilik “zuzentzaile” modura erabili bada edo itzultzailea erabili ez bada eta lehenago erabilitako euskarazko testu ereduak (txantilioiak) erabili badira, sortze hizkuntza euskara dela kontsideratu da.


Eta oro har, lanari loturiko idazkiak, batez beste, % 29,6tan sortzen dira euskaraz: % 18,5tan euskara hutsez eta % 11,0tan ele bietan. 10etik 7, beraz, gaztelania hutsez.

Euskararen erabilera testu laburrak idazterakoan ateratzen den indizea baino 7 puntuz baxuagoa da sortze hizkuntzaren indizea, eta aldiz, luzeak sortzeko baino 4 altuagoa

Euskaraz ongi idazteko gai direnek, batez beste, testuen % 52,7 sortzen dituzte euskaraz (soilik ala ele bietan). Nahiko ongi idazteko gai direnek, aldiz, % 27,9.

Berrito ere, altuagoa da euskaraz sortutako testuen batezbestekoa 45 urtetik beherakoen artean eta emakumezkoen artean.

55. grafikoa: Lanari lotutako idazkien artean, zenbat diren euskaraz sortutakoak (soilik, edo ele bietan) (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2020

V. Plangintzaldiaren amaieran euskara sortze hizkuntza, batez beste, % 30,8 gainerako sektore publikoko erakundeetako langileek . VI. plangintzaldiaren tartekoan %29,6k. Beraz, mantendu egin da ozta-ozta.

Datu hori erreferentzia modura hartu behar da, esan bezala, unibertsoan aldaketak egin direlako.

47. taula: Lanari lotutako idazkien artean, zenbat diren euskaraz sortutakoak (soilik eta ele bietan) (batez besteko %)

	V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa			VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioa		
	Euskaraz %	Ele bietan %	Euskaraz+ele bietan	Euskaraz %	Ele bietan %	Euskaraz+ele bietan
Guztira	16,6	14,2	30,8	18,5	11,0	29,6

Iturria: Siadeco, 2020

5.2. Prestakuntza

Solaskideari erakundeak langileei zuzendutako lan prestakuntza saio edota ikastarorik antolatzen duen galdetu zaio eta, hala bada, urtean zenbat gutxi gorabehera.


Eta taulan ageri bezala, 5 erakundetik batek ez du prestakuntzarik antolatzen, eta multzorik handienak (ia erdiak), urtean 10 baino gutxiago antolatzen ditu.

48. taula: Langileei zuzendutako lan prestakuntza saio edota ikastaroen maiztasuna (%)

	Urtean 50 baino gehiago	Urtean 20-50 artean	Urtean 10-20 artean	Urtean 10 baino gutxiago	Ez, inoiz ez	Guztira
Langileei zuzendutako lan prestakuntza saio edota ikastaroen maiztasuna (%)	13,1	6,6	11,5	47,5	21,3	100,0

Orotara, eskainitako lau ikastarotik bat, gutxi gorabehera euskaraz eskaintzen da (% 28,5). Kasuren batean, euskaraz jasotako prestakuntza IVAPek berak eskainitako hizkuntza prestakuntzarako ikastaroetara mugatzen dela adierazi da.

56. grafikoa: Erakundeak langileei begira antolatutako ikastaroetatik, zenbat eskaintzen dira euskaraz (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Euskararen eskaintza baxuaren atzean dauden arrazoen artean, honakoak solaskideek aipatuena:

- Langileen artean euskararen ezagutza orokortua ez izatea.
- Ikerketa zentroetan batik bat, atzerritarren kopurua altua izanik, ingelesa erabiltzea.
- Erakundeko langileei prestakuntza euskaraz eskainiko duen eragilea topatzea zail gertatzea.
- Langilea bera, euskalduna izan arren, prestakuntza euskaraz jasotzeko motibaturik ez egotea.
- Euskara, benetan, lan hizkuntza izatetik urrun ikusten denean, prestakuntza euskaraz jaso/eskaintzearen beharrik ez sumatzea.

“Jakina, sustatzeko beharra dago baina hutsunerik handiena da langilegoaren erdiak ez duela euskara menperatzen”

“Ingelesez egiten da dena. Gurea nazioarteko ikerketa zentroa izanik, 25 herrialde desberdinetako langileak dauzkagu eta gure lingua franca ingelesa da”

“Gure langilerari zuzendutako trebakuntzak ingelesez egin behar ditugu, pertsona guztiei helarazteko”

*“Hutsune: Formazio berezia egiteko eskaintza gaztelaniaz da.
Bultzatzeko: Formazio berezia euskaraz izatea eskatzen ari gara eta horretarako ere lankideen languntza behar da hauek eskaintzen den formazioetan euskara hizkuntza aukeratzeko. Langileak "zona de confort" etik atera”*

*“Alde batetik, zaila da euskaraz prestakuntza espezializatua ematen duten enpresak edo profesionalak aurkitzea.
Eta aurkitzen ditugunean, eta euskarazko ikastaroa antolatzen dugunean, langileek nahiago dute gaztelaniazko deialdietara joan”*

Egoera honi aurre egiteko, baliabide teknikoak eta ekonomikoak eskatzen dira.

“Bai, baliabide ekonomikoak benetan beharrezkoak dira, adibidez hurrengo zerbitzu hauek lantzeko: itzulpen zerbitzuak, bozeramaileen euskarazko prestakuntzak, euskara teknikoak eta hizkuntza tituluak lortzeko berariazko prestakuntza”

“Euskara ezagutza handia dago baina langileok profesionalki jasotzen dugun prestakuntza, batik bat, gaztelaniazkoa da. Horren arrazoia, neurri handi batean, euskaraz jasotzearen beharrezko ez ikustea da. Euskarazko "produkzioa" itzulpenetik abiatu eta bideratzen da. Oraindik orain, euskaraz ere lan egitearen kontua sinesgaitzat jotzen da eta, hortaz, prestakuntza euskaraz jaso, zertarako?”

5.3. Bilakaerarekiko balorazioa

Amaitzeko, langileari bere erakundean euskararen erabilera duen bilakaerari buruzko balorazioa eta iritzia eskatu zaizkio.


10 langiletik ia seik (% 59,6) bilakaera oso positiboa (% 41,5) edo positiboa (%17,8) izan dela diote. Beste muturrean, oso negatiboa edo negatiboa diotenak % 11,9 dira. Eta tartean geratu dira, ez positibo, ez negatiboa, %25,5.

Zertxobait balorazio positiboagoa egiten dute jendaurreko lanpostu batean dauden langileek (% 63,8), eta emakumezkoek (% 63,7), jendaurrean ez daudenek (% 56,9) eta gizonezkoek baino (%53,8).

Baina oro har ez dago aurreko ataletan euskararen erabilera maila aztertu denean agertutako diferentziarik.

Bilakaera negatiboa izan dela dioten artean, gizonezkoak eta 35 urtetik beherakoak zertxobait gehiago dira (% 15 bi kasuetan)

57. grafikoa: Bilakaerari buruzko balorazioa (%)



Iturria: Siadeco, 2020

Egindako balorazioaren argudioak emateko eskatu zaie langileei: zertan ikusi duten bilakaera hobetzen edo okertzen.

Oso positibo (% 17,8) eta positibo (% 41,5) jotzen dutenek aipatutako arrazioen artean, hauek lirateke azpimarratzeko modukoak:

- Euskara delako erakundearen lehen hizkuntza, bai langileen arteko harremanetan, baita zerbitzu hizkuntza ere.
- Euskararen erabilera gora egin du erakundearen, eta hori urtetan egindako lanaren eta ahaleginaren emaitza da.
- Euskararen ezagutza mailak gora egin du langileen artean, berrien artean euskaldunak gehiago direlako, edo —eta are garrantzitsuagoa, motibazioa ere adierazten duelako—bertan ari zirenek euskara ikasi dutelako.
- Langile euskaldunak gehiengo izateak barne komunikazioa euskaraz izatea ahalbidetzen/errazten du.
- Erakundearen aldetik, euskararen erabilera sustatzeko ahalegina sumatzen delako: euskara plana,

Bikain ziurtagiria,

— Erakundearen irudiko elementuetan, euskararen presentzia bermatzen delako.

“Gero eta gehiago erabiltzen da euskara eta gainera motibazioa da altua”

“Ia ezer ez erabiltzetik nahikotxo erabiltzera iritsi garelako”

Euskara bultzatzeak, ohitura eta kultura aldaketa suposatuz dezake kasu askotan. Jada adin bat daukagunok, eta programa/ekintza ezberdinak ikusteko aukera izan dugunok, sistema orohar hobera doala antzeman dugu, eta hori kostata lortzen da.

Azken urte hauetan lankide batzuk euskaltegiara joan direlako hizkuntz euskera ikastera

“Euskera ulertzen ez zuten bi langile jubilatu bait dira eta berriek ondo ulertu eta hitzegiten dute.”

Normalean, ahal dutenek euskeraz mintzatzen dute haien artean eta nirekin baita ere. Nik eskertzen diet mintzapraktika egiten dudalako.

“Euskara da erabiltzen den ohiko hizkuntza”

“El uso del Euskera con la ciudadanía en todas las relaciones y ámbitos están garantizados”.

“Se facilita el e incentiva el aprendizaje del Euskera, así en los planes de formación anuales está siempre incluido.

La empresa ha trabajado y obtenido el certificado BIKAIN”

“Estamos orgullosos de haber obtenido el Bikain, y siempre participamos en Euskaraldia”

“La empresa da muchas facilidades para la excedencia del aprendizaje del euskera”

“Aspaldiko partez, ezinbesteko baldintza da euskara jakitea enpresan kontratatua lortzeko, eta horrekin batera gero eta gehiago erabiltzen da”

“Existencia de un Plan de Euskera muy activo. Generalización del euskera en los escritos dirigidos al exterior”.

“Lanean ari naizen erakundeak duela gutxi arte ez du euskerarekiko jarrera aktiborik izan; profesionalak kontratatzerako orduan ere, euskera ez da kontutan hartu. Azkenaldian berriz, euskalduntze plan bati ekin zaio eta aurrerapausoak ematen ari dira.”

“Todas las comunicaciones que se realizan en el trabajo se realizan en euskera. Es el idioma que normalmente se utiliza y de cara a las relaciones con clientes o proveedores el primer contacto siempre realiza en euskera, a no ser que de antemano ya se sepa que no habla la lengua.”

“Erakundearen erreferentziazko hizkuntza Euskara da beti. hartzailearen arabera hitzez gaztelaniara saltatu dezakegu baina esaten dugunak eta idatziz eman ditzazkegun testuek beti dute sorrera euskaraz. euskaraz dute oinarria.”

“Erakunde barruan euskaraz egiten dugu dena. Turismo Bulegoan zerbitzua ematerakoan, ongi etorria euskeraz saiatzen naiz beti eta gero bisitariaren jatorriaren arabera hizkuntza erabiltzen dut.”

“Nere erakundearen komunikazioa lehenengo beti euskaraz egiten da. Zuzendaritzatik hasita!!”

“De manera paralela, hay una mayor sensibilidad hacia el euskera desde la dirección, tanto en un plano simbólico (utilizándolo en saludos en nuestras comunicaciones) como en un plano práctico, pasando a ser una herramienta común de trabajo, adoptar iniciativas que animan a hacerlo, etc. Cara al exterior, formalmente el euskera tiene una presencia de igualdad en todo tipo de difusión de los contenidos.”

“Desde que trabajo en la empresa se han ido adoptando medidas que poco a poco van fomentando el uso del euskera, al menos en relación con la ciudadanía, a través de textos, cartelaría, etc. Además el personal de recepción y al menos un trabajador de cada perfil están capacitados para hablar en euskera con fluidez con la ciudadanía”.

“Porque la cartelaría interna y externa + mensaje en redes sociales es bilingüe y hace cinco años esto no era así.”

Bilakaera negatiboa edo oso negatiboa (% 11,9) izan dela adierazi dutenen artean, gehienek ez dute euskara gutxiago erabiltzen denik adierazten, baizik eta ez dutela hoberako bilakaerarik sumatzen. Honako arrazoiak nagusitu dira:

- Euskara sustatzeko interesik ez dago erakundearen aldetik.
- Euskara ez da erakundearen erabiltzen; ez da erabiltzen ahoz, euskaraz erraz hitz egiteko gai direnak gutxiengo direlako. Idatzizko harremanak ere gaztelaniaz dira eta baita langileei eskainitako prestakuntza ere.
- Eta euskaraz idazteko gaitasuna eta interesa duten langileek, erakunderen batean, mugak dituzte, erakundearen ontzat emandako euskarazko testu bakarria, itzultzaileak egindakoa delako.
- Langileei eskainitako euskarazko formazioa ez da eguneroko laneko jardunean islatzen.
- Erakundearen kokapenak eta hartzaile motak ere zaildu dezakete euskararen erabilera areagotzeko egindako ahalegina.

“Ez dute euskera sustatzen, eta ez dituzte erraztasunik ematen hizkuntza ikasteko.”

“Euskaraz eskeinitako zerbitzuak ez daudelako gure katalogaren barruan, beraz ez da bultzatzen hizkuntzaren garapena erakundean”

“Ez dago normaltasun planik”

“Zuzendaritza mailan euskara ezagutzarik ez dago. Ez dago euskararekiko sentsibilizaziorik. Euskalduntze plana itxurakeria besterik ez da. Euskara ikasi nahi duten lankideei trabak jartzen zaizkie, Euskaltegira joan-etorrien denbora erreperatu behar dutelarik, eta orokorrean, euskara ikasteko aukera ematen bada ere, ez da horrelakorik sustatzen (...) Azken urteetako barne promozioetan euskararen ezagutza ez da kontutan hartu.”

“Araututa dauden eta derrigorrezkoak diren betebeharrak harago, ez dago interesik. Euskara ez da lehentasuna. Langileen ehuneko garrantzitsu batek ez du bere jarduna/soldadari dagokion H.E. mailarik; gutxik dute. (...) Enpresa honek komunikazio enpresa bat du kontratatuta, eta bertako inork ez daki euskaraz egiten. Horra!”

“Nadie habla euskera.”

“Ez da erabiltzen, ez da bilakaerarik egon”

“Jendeak ez daki euskara eta dakitenok ez dute erabiltzen.”

“Barneko komunikazio guztia gaztelaraz izaten da, bai era idatzian (barneko inprimakiak, txostenen ereduak, etab.) eta bai ahozkoan, bilera orokor guztiak gaztelaraz izaten dira. Jasotzen dugun prestakuntza beti gaztelaraz izaten da.

“Toda la comunicación interna y externa se realiza en castellano”

“Ez dago euskaraz testuak idazteko aukerarik ezta, onartzen den euskara bakarria itzultzailearena da, derrigortuta egonez testuak gaztelaniaz idaztera eta gero itzulpena eskatzera, lau lerro xume edo hitz bakarria den arren. Gainerako langileak euskaraz jakingo ez bagenu bezala egin behar dugu, euskaraz dagoen edozein hitz itzultzailearena dela suposatzen da eta.”

Langileak euskara ikasteko liberatu daitezke (ordu batzuk) baina horrek gero ez dauka egunerokotasunean inolako erreflejurik”

Inguru guztiz erdaldunean egiten dugu lan. Honi gehitu behar zaio, bazterketa sozialean bizi den jendearekin egiten dugula lan eta euskararekiko interes oso txikia dutela.

Ez positibo, ez negatibo (% 25,5) jotzen dutenek, hau da, bilakaera ez hobera, ez okerrera sumatu ez dutenek honako arrazoiak eman dituzte:

- Erakunde publikoak izan arren, euskara planak garatzeko laguntzarik ez dutela-eta, barnean euskara sustatzeko bitartekorik ez dute.

- Erakundearen aldetik ez da interesik sumatu euskara sustatzeko.
- Ikerketa zentroetan ingelesa da hizkuntza nagusia, lan harremanetan; eta bestelako zentro espezializatuetan ere, kanpotarren presentziak euskararen erabilerari muga jartzen dio.
- Euskaraz mintzatzeko erraztasunak eragiten du euskara gehiago ala gutxiago erabiltzea; eta lehen hizkuntza gisa euskara dutenen eta “euskaldunberrien” hizkuntza ohiturak oso desberdinak dira.
- Euskararen erabilera sustatzeak lana eta ahalegina eskatzen ditu, eta langilearen bizkarrean geratzen den ardua izanik, ez da beti barneratzen.
- Kasuren batean, COVID 19ak eragindako osasun larrialdiak lehentasunak aldatu, eta euskarari dagozkion betebeharrak “bigarren, hirugarren leku batean geratu direla” salatu da.

“Parte del personal domina el euskera, las notificaciones al exterior se envían en euskera pero no hay un interés en promover el uso del euskera entre el personal (no se dan ni se han dado facilidades para formación en euskera...)”

“No se ha fomentado el euskera.”

“No tenemos recursos económicos para abordar el desarrollo de las acciones del plan de euskera porque no se subvenciona a las entidades mercantiles de capital público por ser de gobierno vasco/administración local”

“Desde RRHH no se hace especial trabajo en este sentido, a la persona responsable no la he oído nunca hablar en euskera.”

“Porque el uso de las lenguas está funcionalizado, es decir que depende de la procedencia del profesorado y se adapta a una comunicación efectiva. (...) Hay muchos/as compañeros/as que proceden de otras comunidades autónomas o de países extranjeros, por lo que hablamos en un mix de idiomas que puede contener un saludo en euskera una introducción en castellano y un mix de terminología en alemán e inglés... cosas de la idiosincrasia de un centro”.

“Beste hizkuntzetan hitzegiten da askotan (inglesa, frantsesa)”

“Gure enpresan (ikerketa zentrua) hizkuntza korporatiboa ingelesa da. Beraz, enpresa barruko idatzi ofizialak, protokoloak, bilera orokorrak, email ofizialak, aurkezpenak eta abar ingelesez dira. Zerbitzua eskaintzen dugun kanpoko kolektiboarentzat aldiz dena hiru hizkuntzatan eskaintzen dugu (euskara/gaztelera/inglesa), hauek zein hizkuntzatan komunikatu nahi duten aukeratzeko izan dezaten. Gero, baina, langileen artean norbanakako tratuan erosoan sentitzen garen hizkuntza erabili dezakegu”

“El idioma internacional de la investigación es el inglés, y es el que más utilizo.”

“Lehen euskara erabiltzen zuenak egun ere erabiltzen du, baina euskaldun berriek gaztelaniaz egiten jarraitzen dute. Aldaketarik ez da somatzen.”

“Las comunicaciones internas suelen ser en castellano, excepto en el caso de las personas que tienen el euskera como lengua materna cuando hablan entre sí o cuando se dirigen a los que podemos seguir la conversación con ellas en euskera.”

“Las personas que tienen el euskera como lengua materna lo usan habitualmente y de forma natural, los euskaldunberri se les nota forzados a usarla y muchas veces acaban usando el español.”

“Como siempre se tiene mucho volumen de trabajo, escribir en dos lenguas es más trabajo añadido que solo se cumple en las comunicaciones al exterior.”

Se suele respetar la opción bilingüe en las comunicaciones al exterior. Aunque sigue habiendo informes en la web que están solo en castellano.”

“Porque al final es una imposición, que se debe realizar fuera del horario de trabajo, y que sabes cuándo te matriculas por primera vez en el euskaltegi, pero no sabes cuándo conseguirás aprobar el perfil, en mi caso C1. Ya pesar de que soy una persona que en cuanto he podido he usado euskera porque me gusta y porque creo que hay que fomentarlo, me ha resultado tan dura la inversión de tiempo y me ha pasado un peaje tan alto en mi vida personal, que en este momento prefiero no seguir estudiando, y desde luego, no es mi idioma preferente, a no ser que la persona usuaria quiera ser atendida en euskera”

“Enpresan euskaldun gutxi gaude, eta lankideek gazteleraz egiten dituzten dokumentuak itzuli behar izaten ditugu, baita euskaraz iristen diren dokumentuak gaztelerara itzultze (Foru Aldundiko eskutitzak, e-mailak adibidez); beraz, gure kasuan euskara jakitea zigorra da.”

“Zer nolako jarrera erakutsi dezake enpresa batek, euskararen erabilera -eta defentsa- langileen borondatearen arabera uzten badu? Finean, bakoitzak ahal duena egiten du, eta inor ez da arduratzen euskararen erabilera zuzena egiten den ala ez. Ez du axola. Ondorioz, hainbat kexa jasotzen ditugu. Normalean, legez betetzen diren protokoloekin erantzuten da eta kitto”

Amaitzeko, euskara sustatzeko hainbat neurri edo laguntza proposatzen dituzte erakundeek:

- Langileentzako euskara ikastaro “bonifikatuak”.
- Erakundeko euskara eta ekintza plana langileen ardurapean dagoen kasuan, euskara teknikari baten laguntza edo aholkularitza izatea.
- Euskararen erabilera sustatzeko laguntzak. Herri administrazioen prestakuntza eta garapen-programetatik kanpo dauden erakundeak, erabilera sustatzeko dirulaguntzak proposatzen dituzte. Baita doako euskara tekniko itzulpen zerbitzua ere.

“Erakundeak ez dugu euskara teknikaririk eta langileok dihardugu lanean gai honetan. Euskara plana dugu eta ekintza planean ere lanean gaude. Komenigarria ikusten dugu euskara teknikari baten laguntza izatea edo aholkularitza.”

“Merkatal sozietate publikoak inoren lurretan gaude, herri administrazioen prestakuntza eta garapen-programen barnean ez gaudelako. Horregatik diru-laguntzak behar ditugu”

“Euskara tekniko doako itzulpen-zerbitzuak funtsezkoak dira ere”.

“Adibidez, enpresentzako eta merkatari-ostalarientzako antolatu diren webinar batzuk gaztelaniaz egin dira, kasu batzuetan hizlarien ezintasunagatik baina gehienetan hartzaileek ez dutelako eskatu edota presen eta taldeak osatu beharraren inertziak.”

6. Hizkuntza adierazleen taula

6.1. GAINERAKO SEKTORE PUBLIKOA: ADIERAZLEAK OROTARA ETA LANGILEAREN GENERO, ADIN-TARTE ETA EUSKARA GAITASUNAREN ARABERA

ZERBITZU HIZKUNTZA														
		Guztira	Generoa			Adin-tartea				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna				
			Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
Jendaurreko ekitaldietan, euskaraz azaldutako informazioaren ehunekoa	%	59,1												
Erakundeak herritarari begira antolatutako ikastaroetatik, batez beste zenbat eskaintzen dira euskaraz:	%	30,0												
Herritarari begira antolatutako jardueretan, euskaraz azaldutako informazioaren ehunekoa	%	80,9												
Telefono bidezko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen dituz herritarrak (batez besteko %)	Euskaraz	54,7	56,6	52,1	40,5	63,2	62,3	52,4	45,1	76,1	55,1	32,9	15,7	10,1
	Ele bietan	9,2	8,8	9,8	0,2	8,9	11,0	11,1	4,3	7,9	13,0	13,2	10,9	1,3
	Euskaraz eta ele bietan	63,9	65,4	61,9	40,7	72,1	73,3	63,5	49,4	83,9	68,1	46,1	26,6	11,4
	Gaztelaniaz	36,1	34,6	38,1	59,3	27,9	26,7	36,5	50,6	16,1	31,9	53,9	73,4	88,6
Behin hasierako agurra eginda, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte)(Batez besteko %)	Euskaraz	40,3	44,0	35,1	40,5	52,9	47,2	39,2	28,9	61,1	45,5	11,7	4,2	0,8
	Gaztelaniaz	59,7	56,0	64,9	59,5	47,1	52,8	60,8	71,1	38,9	54,5	88,3	95,8	99,2
Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)		-23,6	-21,4	-26,8	-0,2	-19,1	-26,1	-24,2	-20,5	-22,8	-22,6	-34,4	-22,4	-10,6
Aurrez aurreko harreran, langileak zein hizkuntzatan agurtzen dituz herritarrak (batez besteko %)	Euskaraz	52,4	54,9	48,7	50,5	63,6	57,7	53,6	37,7	74,5	53,0	26,2	16,4	4,3
	Ele bietan	12,7	12,6	12,8	9,7	10,7	15,4	13,9	7,0	10,2	16,3	22,7	15,2	1,2
	Euskaraz eta ele bietan	65,1	67,5	61,6	60,2	74,3	73,2	67,6	44,7	84,7	69,3	49,0	31,6	5,5
	Gaztelaniaz	34,9	32,5	38,4	39,8	25,7	26,8	32,4	55,3	15,3	30,7	51,0	68,4	94,5

		Guztira	Generoa			Adin-tartea				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna				
			Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
Behin agurtuta, zein hizkuntzatan eskaintzen duen jarraitzeko aukera (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte) (Batez besteko %)	Euskaraz	38,1	42,6	31,1	49,8	52,8	43,3	37,9	24,9	58,9	38,0	11,7	2,0	0,0
	Gaztelaniaz	61,9	57,4	68,9	50,2	47,2	56,7	62,1	75,1	41,1	62,0	88,3	98,0	100,0
Aldea (jarraitzeko aukera - agurra)		-27,0	-24,9	-30,5	-10,4	-21,5	-29,9	-29,6	-19,8	-25,8	-31,3	-37,2	-29,6	-5,5
Euskarazko harremana nahiago duten herritarrekin, zein hizkuntza erabiltzen du langileak (batez besteko %)	Euskaraz	61,1	67,3	53,2	52,7	82,9	74,0	59,2	38,2	95,1	74,5	28,6	3,0	1,8
	Gaztelaniaz	38,9	32,7	46,8	47,3	17,1	26,0	40,8	61,8	4,9	25,5	71,4	97,0	98,2
Zerbitzu hizkuntza⁸	Euskara %	54,8	57,4	48,6	48,8	67,0	62,2	53,5	37,2	76,7	59,1	29,4	13,5	3,9
LAN HIZKUNTZA														
		Guztira	Generoa			Adin-tartea				Euskaraz idazteko gaitasuna				
			Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
Lanerako testu laburrak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Euskaraz	24,5	28,2	19,5	35,5	31,0	30,5	23,3	15,9	43,0	25,9	4,9	2,3	0,1
	Ele bietan	13,0	14,3	11,3	0,1	19,5	14,8	13,6	7,0	17,6	17,1	6,7	9,4	1,6
	Euskaraz eta ele bietan	37,5	42,5	30,8	35,7	50,5	45,2	36,8	22,9	60,6	43,0	11,6	11,6	1,6
	Gaztelaniaz	62,5	57,5	69,2	64,3	49,5	54,8	63,2	77,1	39,4	57,0	88,4	88,4	98,4
Lanerako testu luzeak idazteko garaian, langileak zenbatetan sortzen dituen euskaraz (batez besteko %)	Euskaraz	16,1	21,7	9,9	1,8	21,3	20,7	16,9	8,2	34,2	8,7	0,3	1,2	0,0
	Ele bietan	9,3	8,4	10,4	0,0	12,2	10,7	11,6	3,4	15,9	12,5	1,6	0,9	0,0
	Euskaraz eta ele bietan	25,4	30,1	20,2	1,8	33,5	31,4	28,4	11,6	50,1	21,2	1,9	2,1	0,0
	Gaztelaniaz	74,6	69,9	79,8	98,2	66,5	68,6	71,6	88,4	49,9	78,8	98,1	97,9	100,0
Erakunde barnerako sortutako testuak, zenbatetan iristen zaizkion euskaraz hartzaileari (batez besteko %)	Euskara hutsean	19,8	22,5	16,1	36,8	19,5	23,9	21,9	10,9	33,9	22,3	5,3	2,1	0,5
	Ele bietan	23,2	25,5	20,4	0,0	31,7	22,0	25,3	18,9	29,6	22,0	19,9	22,9	8,2
	Euskaraz eta ele bietan	43,0	48,0	36,6	36,8	51,2	46,0	47,2	29,8	63,5	44,3	25,2	25,0	8,7
	Gaztelaniaz	57,0	52,0	63,4	63,2	48,8	54,0	52,8	70,2	36,5	55,7	74,8	75,0	91,3

⁸ Zerbitzu eta lan hizkuntza guztiak kontuan hartuta daude irudiarekin eta prestakuntza hizkuntzarekin solaskideak emandako datuak, baina horiek ez dira kontuan hartzen langileen ezaugarriei buruzko adierazleak kalkulatzeko.

		Guztira	Generoa			Adin-tartea				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna				
			Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
Lan bileretan ahoz euskaraz egindakoa (batez besteko %)	Euskaraz	25,5	30,9	18,8	0,6	25,7	30,9	28,0	13,0	43,5	25,0	6,0	2,0	1,1
	Gaztelaniaz	74,5	69,1	81,2	99,4	74,3	69,1	72,0	87,0	56,5	75,0	94,0	98,0	98,9
Hizkuntzen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: telefonoz (batez besteko %)	Euskaraz	32,1	35,9	27,3	35,2	40,1	39,2	33,3	18,4	57,1	29,8	7,6	1,1	0,0
	Gaztelaniaz	67,9	64,1	72,7	64,8	59,9	60,8	66,7	81,6	42,9	70,2	92,4	98,9	100,0
Hizkuntzen erabilera lankideekiko ahozko harremanetan: aurrez aurre (batez besteko %)	Euskaraz	31,6	36,9	25,0	0,2	44,5	38,0	31,1	18,5	55,9	28,8	7,8	0,8	0,0
	Gaztelaniaz	68,4	63,1	75,0	99,8	55,5	62,0	68,9	81,5	44,1	71,2	92,2	99,2	100,0
Beste herri erakundeetako solaskideekin ahozko harremanetan erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskaraz	41,4	47,8	33,8	10,0	58,1	48,4	39,0	31,0	72,3	37,6	11,8	0,7	0,0
	Gaztelaniaz	58,6	52,2	66,2	90,0	41,9	51,6	61,0	69,0	27,7	62,4	88,2	99,3	100,0
Erakunde pribatu eta beste entitateetako solaskideekin ahozko harremanetan erabilitako hizkuntza (batez besteko %)	Euskaraz	22,9	25,1	20,3	6,1	26,3	24,6	25,3	17,1	38,3	21,5	6,1	0,0	0,0
	Gaztelaniaz	77,1	74,9	79,7	93,9	73,7	75,4	74,7	82,9	61,7	78,5	93,9	100,0	100,0

KUDEAKETA

		Guzfira	Generoa			Adin-tartea				Euskaraz idazteko gaitasuna				
			Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
Lanari lotutako idazkiak sortzeko erabiltutako hizkuntza (batez besteko %)	Euskara hutsean	18,5	22,5	13,5	,6	25,9	22,7	18,9	8,5	34,5	16,4	2,6	,3	,1
	Ele bietan	11,0	12,4	8,8	70,0	9,1	14,4	11,5	7,6	18,2	11,6	3,5	3,8	1,2
	Euskaraz+ele bietan	29,6	34,9	22,3	70,5	35,0	37,0	30,5	16,1	52,7	27,9	6,1	4,0	1,2
	Gaztelaniaz	70,4	65,1	77,7	29,5	65,0	63,0	69,5	83,9	47,3	72,1	93,9	96,0	98,8
Erakundeak langileei begira antolatutako ikastaroetatik, zenbat eskaintzen dira euskaraz	%	28,5												
Lan hizkuntza	Euskara %	31,8	36,9	26,1	21,9	40,6	37,9	33,3	19,8	54,9	31,0	9,3	5,3	1,4
Guzfira	Euskara %	42,0	44,2	34,1	31,5	50,0	46,5	40,5	26,0	62,7	41,0	16,5	8,2	2,3
		Guzfira	Generoa			Adin-tartea				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna				
			Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	<=35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte	Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
Bilakaerari buruzko balorazioa (%)	Oso positiboa	17,8	20,1	14,9	,0	17,1	15,2	20,7	18,3	23,9	18,8	9,5	9,7	13,2
	Positiboa	41,5	43,6	38,9	,0	39,6	46,6	40,5	39,3	40,5	56,4	38,1	36,9	36,8
	Ez negatibo ez positiboa	25,5	23,9	27,7	18,4	27,0	23,6	25,2	28,0	20,9	10,3	38,1	33,0	36,8
	Negatiboa	9,0	7,2	11,3	,0	15,1	6,3	8,2	8,6	11,8	12,0	9,5	1,9	
	Oso negatiboa	2,9	1,7	4,0	70,0	,5	5,6	3,1	,0	2,1	1,7	,8	11,7	
	Zehaztu gabe	3,3	3,5	3,1	11,6	,6	2,7	2,4	5,7	,8	,9	4,0	6,8	13,2
	Guzfira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

7. Bilakaeraren estimazioa

7.1. ARGIBIDEAK: VI. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioan neurtutako adierazleak eta V. Plangintzaldiaren amaierakoan neurtutako arteko aldea

Bi neurketetan jasotako emaitzak ez dira zuzen-zuzenean alderagarriak, kasu batzuetan galderaren formulazioa aldatu delako, eta beste batzuetan erantzuna emateko modua. Hurbilpen edo estimazio modura interpretatu behar dira. Izan ere, kontuan hartu beharko da:

- d) Zerbitzu hizkuntzan eta kanpo harremanetako ahozko harremanetan administrazioko langileak euskara zenbateraino eskaintzen duen jakitea helburua izanik (soilik edo gaztelaniarekin batera), erantzun aukerak birformulatu egin dira.

V. Plangintzaldiaren amaierako galdesortan, ahozko erabileraren inguruko galderak 0tik 10erako eskala batean planteatzen ziren, non 0k “erabat gaztelaniaz” adierazten zuen, 10ek “erabat euskaraz” eta 5ek “euskara gaztelania bezainbeste”.

Oraingoan, aldiz, agurrei dagokienez (telefonoz eta aurrez aurre) portzentualki, zenbatetan egiten duen euskara hutsean, zenbatetan ele bietan eta zenbatetan gaztelania hutsean galdetu zaio langileari. Eta euskarazko eskaintza, euskara hutsez egindakoa eta ele bietan egindakoa izango da.

Behin agurtuta, elkarrizketa zein hizkuntzatan eskaintzen duen galderak, (herritarrak hizkuntza hautua esplizitatu arte) bi aukera eskaintzen ditu, euskaraz eta gaztelaniaz.

Hori dela eta, V. Plangintzaldiaren telefonoz eta aurrez aurreko lehen hitzaren adierazleak birkalkulatu egin dira, oraingo formulazioan izango luketen balioa estimatuz. Beraz, hurbilpena da.

- e) Idatzizko erabileraren inguruko galderetan, galderaren formulazioa aldatu egin da, “hartzaileek testua zein hizkuntzatan jasotzen zuten” egiten zelako V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan; eta orain aldiz, langileari berak “zein hizkuntzatan sortzen” duen galdetzen zaio.
- f) Erakundearen irudiaren inguruan, solaskideak betetako galdetegian, galdetu da jendaurreko ekitaldietan eta herritarrari zabalduetako jardueretan zenbat informazio unitate zabaldu diren euskaraz eta zenbat erdaraz. Hizkuntza bakoitzean azalduetako informazio kopuruaz ari gara, ez hizkuntza batean edo bestean hitz egindako denboraz. Informazioa horrela biltzeak erabilera orekatua neurtzeko aukera ematen du (informazioaren erdia euskaraz, eta beste erdia gaztelaniaz eskaintzeari deritzo HPSk erabilera orekatua).

**V. PLANGINTZALDIAREN AMAIERAKO EBALUAZIOAN BILDUTAKO ADIERAZLEEN ETA
VI. PLANGINTZALDIAREN TARTEKOAN JASOTAKOEN ARTEKO ALDEA**

			VI. Plang. Tarteko Ebaluazioaren galdetegia		V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan antzekoena zen adierazlea	Oharra
			Nori zuzentzen zaion	Galdetegi ko galdera zk.		
1. ZERBITZU-HIZKUNTZA						
1. Erakunde-aren irudia	1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak	Jendaurreko ekitaldiak	Solaskidea	2	1.2.5.	Ez dira zuzen-zuzenean konparagarriak; lehen langileei galdetu zitzaizen, orain solaskideari. Eta datua eskatzeko modua ere desberdina da.
		Herritarrari begira antolatutako jarduerak (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak)	Solaskidea	5		Berria
		Herritarrari begira antolatutako ikastaroak	Solaskidea	8		Berria
2. Bezeroeekiko eta herritarrekiko harremanak	2.2.1. Harrera	Telefonoz (Zuzenean zerbitzukoak)	Langilea	2		Berria
		Aurrez aurre (Zuzenean zerbitzukoak)	Langilea	5		Berria
	2.2.2. Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	Telefonoz lehen hitza	Langilea	2	2.2.1	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./elebi/gazt.
		Aurrez aurre lehen hitza	Langilea	5	2.2.2.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./elebi/gazt.
		Telefonoz elkarriketa eskainitako hizkuntza	Langilea	3	2.2.5.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gast.
		Aurrez aurre elkarriketa eskainitako hizkuntza	Langilea	6	2.2.6.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gast.
	2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	Langilea	7	2.2.7.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gast.	
2. LAN-HIZKUNTZA						
3. Barne komunikazioa eta lan tresnak	3.3.1. Erakundearen barne harremanetarako idatziak	Barne komunikaziorako testu laburren jatorrizko hizkuntza	Langilea	8b	3.1.2	Lehen azpimarra erakundeak "bidalitako hizkuntzan" egin zen; orain langileak "sortzeko" erabilietako hizkuntzan
		Barne komunikaziorako testu luzeen jatorrizko hizkuntza	Langilea	9b	3.1.2	Lehen azpimarra erakundeak "bidalitako hizkuntzan" egin zen; orain langileak "sortzeko" erabilietako hizkuntzan
		Hartzaileari zein hizkuntzatan iristen zaizkion testu labur eta luze horiek	Langilea	10	3.1.2.	Lehen azpimarra erakundeak "bidalitako hizkuntzan" egin zen; orain langileak "sortzeko" erabilietako hizkuntzan
	3.3.2. Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak	Barruko lan bileretako ahozkoak	Langilea	11b	3.2.1.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gast.
	3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	Erakundearen barruko telefonozko harremanak	Langilea	12b	3.2.2.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gast. Ez zen bereizten telefonoz eta aurrez aurre
		Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	Langilea	13b	3.2.2.	Lehen eskala 0tik 10era. Orain % eusk./gast. Ez zen bereizten telefonoz eta aurrez aurre

			VI. Plang. Tarteko Ebaluazioaren galdetegia		V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan antzekoena zen adierazlea	Oharra
			Nori zuzentzen zaion	Galdetegi-ko galderazkia		
2. LAN-HIZKUNTZA						
4. Pertsonen kudeaketa	4.1. Laneko prestakuntza	Laneko prestakuntza euskaraz zenbateraino egiten da?	Solaskidea	10	4.1.3	Lehen langileari galdetu zitzaion. Orain solaskideari.
